

JON MIRANDE  
AIPHASORHOREN  
PENTSAMENDU  
FILOSOFIKOA



Marijo Telletxea Tolosa

## 0. AURKIBIDEA

1. Sarrera	2
1.1. Miranderen bizitzari buruzko zenbait ohar	2
1.2. Mirande idazle	9
2. Testuinguru historikoa eta kulturala	10
3. Testuinguru filosofikoa: irrazionalismoa	13
4. Miranderen pentsamendua	17
4.1. Epistemologia: tradizioa, intuizio poetikoa, mitoa, parapsikologia	18
4.2. <i>Nil igitur mors est</i> eta hizkuntzaren filosofia	24
4.3. Ontologia: Oro den Izatea, Arima, Batasuna	28
4.4. Antropologia	34
4.5. Etika	38
4.6. Politika	47
5. Miranderen idatziak	55
6. Oinarrizko testuak eta hiztegia	59
7. Bibliografia	80
8. Eranskina: ikasleentzako materiala	83
8. 1. Batxilergoa. 1. maila	83
8. 2. Batxilergoa. 2. maila	85

## 1. SARRERA

Lan honen helburu nagusia da, Jon Miranderen idatzizko lanetatik abiatuta, haren pentsamendu filosofikoa zein den ahalik eta argien azaltzea. Miranderen lanari buruzko ikerketa eta argitalpen batzuk badira, baina Joxe Azurmendik idatzitakoak izan ezik, beste guztiak haren literatura-balioari buruzkoak edo ideologiari buruzkoak dira. Hortaz, zuberotarraren lanetan ageri den pentsamenduari buruzko lan bakarrak Joxe Azurmendik idatzitakoak dira: *Mirande eta kristautasuna* eta *Schopenhauer, Nietzsche eta Spengler Miranderen pentsamenduan*.

Liburu horietan, Azurmendik sakonki aztertzen du Miranderen lana ikuspegi filosofikotik eta argi erakusten du, haren idatzi askotan badela filosofia bat. Agian, ez beti koherentea, lana ez baitugu osorik jaso; horretaz gain, batzuetan pentsamenduaren baitako eboluzio edo garapena ere erakusten duenez, ez da beti erraza filosofia-sistema gisa ikustea. Areago, badira Mirandek beste hizkuntza batzuetan idatzitako eta ezagutzen ez ditugun lanak. Nolanahi ere, Azurmendik argi erakusten du Miranderen filosofia aztertu eta kontuan hartzeko modukoa dela; hortaz, betiere Azurmendiren lanak oinarri, abiapuntu eta erreferentzia gisa hartuz, filosofia hori zertan den argitzen ahaleginduko naiz ondoko orrietan.

Esan bezala, Azurmendiren ikerketak gidatuko du lan hau; era berean, ikuspegi filosofikotik esanguratsuenak diren testuak gehitu ditut, baita ulermena errazteko hiztegi bat ere. Pentsalari gisa, Miranderi zer toki dagokion gogoraraztea ez dago soberan, haren pentsamendua eta ideologiaren inguruko aurreiritziak direla medio, etengabeko balorazio moralak egiten baitzaizkio. Lan honetan, juzgu horiek gabe, haren pentsamendu filosofikoaren nondik norakoak azalduko ditut.

Bukatzeko, adierazi nahi dut lan hau, sakontasun eta azterketa filosofikoari dagokionez, Azurmendirena baino arinagoa izango dela, eta hainbat kontzeptu jakintzat emango ditudala. Berebiziko garrantzia dute, nire ustez, Miranderen lanaren transmisioak eta harekiko elkarrizketa eguneratuak: Mirande bere testuinguruan ulertu eta, gaur egungo erronka nagusiei dagokienez, zer ikuspegi eta proposamen egiten dituen aztertu.

### 1.1. Miranderen bizitzari buruzko zenbait ohar

Miranderi buruzko biografia gehienek, hasiera-hasieratik, aipatzen dute Parisen sortutako zuberotarra izan zela. Esan genezake, modu berean, paristarra ere bazela. Izan ere, gutunetan behin baino gehiagotan aipatzen du hiriburu frantseseko giroa, Europa iparraldean egoki, irekiagoa dela Hego Euskal Herrikoa baino: "Eta guk, Frantzia, Alemania eta Britaini Handiko kultura-atmosferan bizi garenok halako aide afrikano bat arkitzen diegu askotan zuen kontzepzioei. Lapurdiko, eta batez ere Zuberoako euskaldunak oso bestelako dira ikusgune hortatik; eta Peillenek eta nik, bai gure etxekoen artean, bai Parisen ezagutzen ditugun Frantzes, Bretoi, Ingles etc.en artean gogoaren libertatea preziatzen ikasi dugu, eta hori gauza premiazkoa zaigu, euskaltzetasuna bezinbeste. Espaina afrikano egon nahi bada, horrek ez gaitu ikutzen, bainan uste dugu ba dela ordu Euskalerrria europartu dadin, fede-, pilosopi- eta ederti-kontuetan libertatea ezagutuz, eta horrengatik gure aldizkaria ateratzen

jarraituko dugu, iñoren lagungoa gabe ere"<sup>1</sup>, idatzi zion Jon Etxaideri 1962ko martxoan. Ibiñagabeitiari, 1962ko maiatzean hauxe: "Baina nahiz Frantsesak ez ditudan gehiegi miresten, ba dute behintzat alde hon bat: pentsatzeko libertatea gauza kulturaletan".<sup>2</sup> *Igela* aldizkari heterodoxoak eragiten zituen boikoten edo ezineramanaren testuinguruan idatzitako gutunak izanagatik, bistan da Frantziako Errepublikan edo Espainiako Estatuan bizitzearen artean diferentzia nabarmena sumatzen zuela Mirandek kultura askatasunari dagokionez.

Zuberotarra esaten diogu, nahiz eta lehenbiziko aldiz Zuberoara joan zenerako 5 urte bazituen, bizitzako urte gehienak Parisen eman eta euskara ikasten hasterako 20 urte eginak izan. Hala ere, 1925eko azaroaren 10ean Paris 12. auzunean (12<sup>e</sup> Ème arrondissement) sortu zen Jon Mirande Aphasorho euskaldun betea eta osoa dela esaten dugu zalantza izpirik gabe. Zergatik da hori horrela? Zerk markatu zuen haren euskaltasuna? Zer izan zen haren bizitza gure ikuspegitik?

Beste hainbat eta hainbat zuberotar bezala, Jonen gurasoak Parisera joan ziren lanera, eta han ezagutu zuten elkar. Hiru seme-alaba izan zituzten arren, lehenbiziko alaba —Yvonne— zortzi hilabeteren buruan hil egin zen; ondoren jaio ziren Simone eta Jon. Parisen apartamentu txiki batean bizi zirelako, edo, agian, lehenbiziko alabaren heriotzarekin hunkituta, Simone Sohütako Xao baserrira eraman zuten izeba-osabekin bizi eta hazi zedin. Mirandek, bost urterekin lehenbizikoz Zuberoara joan zen arte, ez zuen arreba ezagutu; zer den erbestea eta sustrai gabetzea! Anai-arrebak elkarrekiko arrotz ziren, ordu arte elkarren ezaguerarik gabeak, eta batak bestearekin ezin hitz egin, Simonek oso frantses gutxi baitzekien eta Jonek euskararik batere ez.

Jon, zortzi urte egin zituen arte, seme bakar izan zen Paris 20. auzunean 106 Boulevard Davouteko apartamentu txikian, eta han bizi izan zen aita hil arte 1967an. Amaren heriotzarekin hasi zen nerbioetatik gaixotzen eta alkoholaren neurria galtzen; aita galdu eta etxetik bidali zutenean, ordurako oso hautsia zegoen gizona desegina geratu zen: "Etxekoen bizileku hori Jonentzat Euskal Herri bat zen, etxondoa euskaldunek adigai hori ematen dioten indarrarekin: hor gurasoenganako maitasuna, liburutegia bere mundua biltzen zituen. Haren etxea, haren bizitza zen. Uzte horrek depresio sakon batean amildu zuen bere sustraiak galdu balitu haina".<sup>3</sup>

Batxilergo ikasketak Place de la Nationeko Lycée Arango-n egin zituen, eta 1944an Finantza Ministerioan lortu zuen postuan egin zuen lan bizitza osoan, nahiz eta begi-bistakoa zen edonorentzat ez zela bere jakintza mailari egokitzen zitzaien lana. Edonola ere, ikasketen inguruan datu bat hartu behar da kontuan, Peillenek ongi dioenez: Mirandek batxilergo-ikasketak egin zituen garaian, gazteen % 4k besterik ez zuen lortzen maila hori. Gurasoek seme-alabek bizitza maila hobea izatea nahi zuten, eta horretan ahalegindu ziren baita semeari euskara ez erakustea erabaki zutenean ere.

---

<sup>1</sup>URKIZU, Patri: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, Zarautz, Susa, 1995.

<sup>2</sup>Urkizu, op. cit, 1995.

<sup>3</sup>PEILLEN, Txomin: "Jon Miranderen biografiaz", in *Jon Mirande, olerkaria*, Euskaltzainak bilduma, 18 (2012), 49.

Ipar Euskal Herria markatu zuen Gerra Handia bukatu eta zazpi urteren buruan jaio zen Mirande, baina Bigarren Mundu Gerrak 15-19 urterekin harrapatu zuen. Testuinguru horretan ezagutu zituen abertzale bretoiak, eta haiei esker ikasi zuen menderatutako herri batekoa zela. Handik aurrera, bretoiera, lehenbizi, eta euskara, gero, Europako hizkuntza gutxiak ikasteko helburua izan zuen. Izugarri ona behar zuen hizkuntza ikasketetan, denbora laburrean zenbat ikasi zituen kontuan hartzen badugu. Estatu-hizkuntzak ikasi zituen —ingelesa, frantsesa, espainiera, alemana—, baina benetako gogoia, esan bezala, Europako hizkuntza gutxituekiko erakutsi zuen, eta baita hizkuntza klasikoekiko ere: “Bigarren Mundu Gerran, 15-20 urte zituelarik, Pariseko bretoi naziekin eta hauen Spengler-zaletasunarekin harremanetan jarri zen: honela jabetu zen europarra zela eta euskalduna. Orduz geroztikoa da Mirandek euskara eta euskal kultura ezagutzeko eginiko ahalegin handia, bai eta Europako aintzinako kultur hizkuntza guztiak menderatzeko saio erraldoiaren arrazoia ere”.<sup>4</sup> Horiez gain, beste hizkuntza askok piztu zuten interesa eta zaletasuna Miranderengan: ijitoen hizkuntzak, hebreerak, amazigerak eta abarrek.

Denetan eta benetan berea, baina, euskara du eta horri heldu zion bizitza guztian zehar, azkeneko urteetan, etsipena zela medio, euskaraz idazteari uko egin bazion ere. Miranderi buruz hitz egiterakoan, dudarik gabe, euskal idazle onenen artean kokatzen dute adituek: “Miranderen obra XX. mendeko idazle fin eta estetarik zainduenetako baten emaitza da eta haren eragina poeten artean aurkitzen da batez ere, besteak beste, Felipe Juaristi eta Joseba Sarrionandiaren idazlanetan, azken honen poesia eta narraziogintza badira ere zuberotarraren oinordeko aitortuenak”.<sup>5</sup>

Gutunetan maiz agertzen du Mirandek hizkuntzarekiko kezka, atxikimendua, interesa, maitasuna, gogoia eta, azkenean, min ematerainoko etsipena. Euskaldun abertzaleekin ongi etorri ezinak, eta, horren ondorioz, bere lanak argitaratzeko izan zituen zailtasunek etsiarazi zuten. Gainera, 1960an Mirandek *Eganen* idatzitako artikulu baten harira Aginagak egindako kritikari inork ez erantzuteak eta Euskaltzaindian bere hautagaitzak sortu zuen zalapartak jota utzi zuten. Mirandek bere burua eskuindar eta ez-kristau, ez- demokrata eta ez-sozialista aldarrikatzen zuen. Hori egiten zuen abertzaletasuna inoiz baino kristauagoa eta demokraziaren aldekoagoa zen garaian. Ondorioz, ez zuen euskaldunen artean iritzi onik lortu. Hona zer dioen Ibiñagabeitiari 1953an idatzitako gutun batean: “Damu handia dut, Euskaldunen eliztiarkeriaren aurkha jazarri bai naiz: nire izen ona galdu-eta ez jarraitzaile bat ere bildu ez baitut horrela egiñik: hain koldar baitira *Euskaldun zintzoak*, hainbat gaiztoago enetzat! Hobeki pentsatu behar nuen, aitzinetik”.<sup>6</sup>

Joxe Azurmendik Mirande abertzale absolutu gisa aipatzen du, eta nik gehituko nuke euskaltzale absolutua ere badela. Mirande 1948an Piarres Lafittek gonbidatuta etorri zen Miarrizteko Euskal Biltzarrera. Horrez gainera, 1956ko Arantzazuko Euskaltzaindiaren Biltzarrean ere parte hartu zuen Koldo Mitxelenak deituta. Hasiera-hasieratik ibili zen euskara batu baten premiari buruz, eta horren alde lan egiteko prest: “Azken menderdi hontan egin izan diren lanak gatik, gure mintzoa oso hurrun dago oraindar biziaren beharrune guztien adierazten ahal ukhaitetik. Mintzajakintza diodalarik, ez ditut gure

---

<sup>4</sup>OTAEGI, Lurdes: “Jon Mirande (1925-1972)”, in Bidegileak, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Donostia, 2000, 11.

<sup>5</sup>ibidem, 13.

<sup>6</sup>Urkizu, op. cit, 1995.

mintzaeraren ethorkiaren inguruko ikherkuntzak gogoan, baina bai, hizkuntza bizi bat den aldetik biziaren erranbehar guztiai egokituko duten bideak”<sup>7</sup>, idatzi zion Zaitegiri 1956an. Eta hilabete batzuk beranduago: “Baina, euskeraren batasuna ororen gainean ipintzen baitut, euskal akademi batek, edo beste zein-nai talde batek, batasun ori lortzen badu bein, bestelako asmo batzuen bidez bada ere, eta beste euskaldun guztiek aren erabakiak aintzat artzen badituzte, jakintsuki ekitea gure lehenengo eginbearra dala daukat”.<sup>8</sup> Arantzazuko Biltzarrean, euskara batua sortzerakoan mahairatu ziren joera ezberdinen artean, Mirandek oinarritzat lapurtera klasikoa hatzearen aldeko jarrera izan zuen, Luis Villasantek eginiko proposamenari jarraituz, nahiz eta bere idatzietan gipuzkera osotua erabiltzen zuen.

1957an euskaltzain urgazle izendatu zuten; hona nola eskertu zion izendapen hori Koldo Mitxelenari berria jaso ondoren idatzitako gutunean: “Eta Euskaltzaindiko urgazle izendatu nauzutelako diploma aurkhitu dut etxean. Othoi, ene esker ona agert ezaiezu, ene izenean, ene izendatzearen alde izan diren euskaltzain jaun guztiai”.<sup>9</sup> 1962an, Mitxelenak, Villasantek, Arruek, Irigaraik eta Krutwig-ek Euskaltzaindian euskaltzain oso izendatzeko hautagaitzat proposatu zuten Mirande; hautagaitza horren gainean izugarritzko eztabaidak sortu ziren, eta horrek min handia eman zion: “Ba al dakizu Euskaltzaindian ene sar erazteko kandidatura presentatu zuela (Krutwigek) eta sekulako eztabaidak gertatu dirala gero elkargo ohoragarri hortan, hori zela kausa? Alabainan, Mitxelenak, Arruek, aita Villasantek eta Irigoyenek Krutwigekin batean ene alde firmatu ba zuten, Aita Lafitte Nazkagarriak bere *vetoa* ipini zuen ene kontra, ez dakit ongi zergatik, orain artean ene adiskidetzat edukitzen bainuen, jakinik ere fede eta politikazko gauzetan ezin izan nintekela adox demo-kristau horrekin; eta baten vetoa aski zen ezkerorone euskaltzain izatea eragozteko, azkenekotz samurtu naiz eta ene kandidatura ta euskaltzain-urgazlegoari ere uko egin diet”.<sup>10</sup>

Esan bezala, Aginagarekin izandako arazoak ere asko eragin zion, bereziki, inor ez zelako haren alde atera horrelako *laido pertsonalak* jaso ondoren. Honela azaltzen dio Etxaideri 1961eko azaroan: “Neure idazlanen kritika onhartzten dut, beste edozeinek bezainbat bederen, zuzenki eta zuzentzaz egina denean. Baina ba dirudi Aginaga hori pertsonalki oldartzen zaidala, gezur franko erabiliz ene kontra, eta asko asarretu naiz Euskaldun baten gandik laido horiek entzun beharraz”<sup>11</sup>. Hortaz, erantzun gisa artikulu bat idatzi zuen eta *Egan* aldizkarian argitaratu zuen: “Baina Aginagaren atheraldiek ororen gainetik ene herritar euskaldunen aintzinean belzten nautelakotz, eta hauien artean nukean fama ona galtzeko zorian iminten dutelakotz, eta bertzalde, EGANen azkenengo numeroaren irakurtzetik khonduratu ahal izan naizen bezala, nehor ez baita nere alde mintzatu hark ixuritako gezurren era laidoen zuzentzekotz, bortxatu naiz nihauk hala egitera”.<sup>12</sup>

Era berean, ezintasun- edo etsipen-iturri izan zen idatziak argitaratzeko edukitako oztupoak. Bizitza guztian liburu bakarra ikusi zuen argitaratua, *Haur besoetako*, hil baino bi urte lehenago; ordurako, baina, amore emanda eta lur jota zegoen. 1953 aldera olerki-bilduma bat prestatu zuen, Miangolarrak esan baitzion argitaratuko zuela; denbora

---

<sup>7</sup> ibídem.

<sup>8</sup> ibídem.

<sup>9</sup> ibídem.

<sup>10</sup> ibídem.

<sup>11</sup> ibídem.

<sup>12</sup> ibídem.

joan eta etorri, ez zuen argitaratzen, ezta horri buruzko azalpenik ematen edo olerkiak itzultzen ere. Azkenean, lau urtean poema horien berririk izan gabe, etsita eta haserre, Andimari eskatu zion olerkien argitaratzea eragotz zezala: “Hala ere, nahi nuke Miangolarrari erran zenezaión ene *24 Poema* zorigaitzekoak atzera nahi ditudala: ez dut nahi orain publika ditezen, eta nahi ditut aldaki guztiak erre. Miangolarrari utzi nerauzkion, orduan argitaratuko zituela erran bait zerautan. Ez du bere hitza bethe, eta nik ez deraukot ezer zor (haboronean, ez bait zerautan ez bi soseko bat ere heiangatik ordaindu; margolaria bai pakatu zuen, baina poeta bat...)”.<sup>13</sup>

Horiek horrela, Mirandek olerki eta artikuluak garai hartako aldizkarietan argitaratu zituen. Hasieran, *Herrian* eta *Gernikan*; gerora, berriz, *Euzko Gogoan*, *Irrintzin*, *Enbatan* eta *Eganen*. Dena den, 1961. urtetik aurrera gero eta zailtasun gehiago izan zituen bere lanak argitaratzeko. Hona zer dioen 1961ean Etxaideri idatzitako gutun batean: “Dena dela, euskerazko idazkiak argitaratzeko aurkitzen diren behaztopa eta eragozpenak (konformistak ez direnean) nazka ematen didate. Euskaldun ispiritu ertsiontzat gauza ez oituak eta berriak idaztea *margaritas ad porcos* botatzea da... (beharbada, ni naizela xerria esango du haatik... norbaitek...)”.<sup>14</sup>

1962an Txomin Peillenekin *Igela* “aldizkari heterodoxoa” jarri zuen abian. “Liburu lizunetaz” artikuluan dioen moduan, hizkuntza guztietan behar da denetarik: “Guk, Euskaldun izaiki, euskaraz hitz-egin nahi dugu, eta euskaraz geure olde, irrits, gogorapen eta ametsak oro agerrtu, aratz ala likhits izan ditezeen aburuz”.<sup>15</sup> Bi urtez argitaratu zuten —sei zenbaki— oso kolaboratzaile gutxirekin —Juan San Martin eta Andima Ibiñagabeitia— eta dirua ere haiek jarrita; horrez gainera, *Enbataren* edo Lafitteren kritikak izan zituztenez, 1963ko urtarrilean hitz hauek idatzi zizkion Peilleni: “Halarik ere, beldur naiz ez dugula sekula lankide *zintzorik* edirenen, gauza important batean gurekin aritzeko. Baina euskal ekintza osoki utzi baino lehen, azken entseiu bat egin nahi nuke”.<sup>16</sup> Horren ondoren, 1963ko azaroan hauxe idatzi zion Etxaideri: “Berri on bat jakin erazi bear dizut: *Igela* uzten dugu, Peillenek eta nik, aski dirurik igorri genduela horretan konturaturik [...]. Ez dut esango ene ideia ez-konformistetan nik nuela arrazoi: egiak begitarte asko ditu eta... Bainan oraindik ere uste dut arrazoi nuela ene ideioek euskeraz agertu nahian. Ezen euskal literatura idatzia hain da gauza txikia, ertsia, intresgabekoa (Euskaldunek, ez soilki auzo errietako literatura aundiak, bainan bai eta ere txikiak: Finlandiakoa, Gales-errikoa, Okzitaniakoa, Britainiakoa ere..., Europakoez baizik ez mintzatzeko, istudiatuko ba litukete, ikusiko lukete zenbat atzeratuak dauden), ain da gauza erkina, diot, non euskal idazle batek gauza pertsonalak, ez-oituak, esatera gertu denean, pozik artu behar bailukete haren herritarrek, eta lagundu; traba ipintzeko eta irain egozteko ordez”.<sup>17</sup>

*Haur besoetakoa* eleberria 1959an bukatu zuen; eginahalak egin zituen han edo hemen argitaratzeko, baina ez zuen lortu. “Izanen ditugu naski hauzi zenbait mintzatu beharrik. Mitxelenaren guthun bat hartu berri dut (erraiten zerautan zerorri ere erantzutekotan zela egun haueitan); goraiphuak egiten derauzkit ene ipuin-berria gatik

---

<sup>13</sup>ibídem.

<sup>14</sup>ibídem.

<sup>15</sup>LARREA, Jose Maria: *Miranderen lan kritikoak*, Pamiela, Iruña, 1985, 38.

<sup>16</sup>Urkizu, op. cit, 1995.

<sup>17</sup>ibídem.

—bainan ezin publika eraz dezakela borobilki erraiten deraut... bertzela *akabo aldizkaria*. Andimari igorri deraukot, eia Amerikan argitaratzeko biderik hatzemanen duenik... Irigaray'ek ere idatzi deraut, eta hari ere gustatu omen zaio; bainan ezin publika ditekela hark ere diost. Hainbat gaixto euskal publikorentzat!<sup>18</sup>, idatzi zion Peilleni urte berean. Mirandek euskararekiko jarduera ia gehienak etenda zituela, Arestik argitaratu zuen eleberria. 1971ko urrian, hauxe idatzi zion Kintanari: “Eskerrik asko zure eskutitza gatik, eta batez ere *Haur besoetakoa* nere ipuin berriaz daukazun eritzi ona gatik. Zutzaz beste nehork ezagun edo adiskideetarik ez deraut idatzi esateko liburu hortaz zer pentsatzen duten. Alpertuta nagoela? Behar bada, bainan otoi gogoan har ezazu zenbat gaitz den Parisen oso bazterturik (bertze euskaldunetarik bazterturik, esan nahi dut) bizi den batentzat euskal *kulturean* parte hartzea, eta are dakidalarik ez dudala gogaiderik nere herritarren artean. Bertzalde, azken urte hauietan gaixorik egon naiz, bizpahirur aldiz, eta ene lanbidean ere makurrak ukan ditut. Gainera ez naiz lehenago bezain gazte, eta guztien azkenean, idazteko behar da zerbait esateko euki; orai ez dakit euskaldunei zer esan diezaiekedan. Gero, ez dakit. Dena dela, *fascista* hunen goraintzirik hoberenak har itzazu”.<sup>19</sup>

Ezin argitaratuak eragiten zion minari eta etsipenari buruzko pasarte hau bukatzeko, hona hemen beste eskutitz bat, oraingo honetan *Eganek* argitaratu ez zion olerki bati buruzkoa, 1964ko urrian Ibiñagabeitiari idatzia: “*Egan*-en ez dute ene idazki bat publikatu nai izan; poeta neo-hebreotar bati buruz egin nuen (Saul Txernikhovski), aren neurtitz batzuk ere itzuliz, poeta ori, judutar izanik ere europatar razistentzat ere goraipagarri baita [...]. Nik erantzun diot Mitxelenari (ark baitzidan gauza orren berri eman) amor ematen nuela, bainan hori zela *euskaltzale* edo *eskualzale*-engandik jasango nuen azkeneko umillazioa, eta gaurgero ez nuela geiago ezer egingo euskaldungoan edo euskaltzalegoan”.<sup>20</sup>

Parisko euskaldunen onarpenik gabe eta Hego Euskal Herrikoekin gero eta hotzago, bakardade handia sentitzen zuen Mirandek, inon gozorik gabe balego bezala. Bizitzako azken bederatzi urteetan —1963an *Igela* bertan behera utziz geroztik—, behin eta berriro errepikatzen du gutunetan euskararekiko loturak eta ekintza guztiak alde batera utziko dituela, eta, hala ere, Etxaideri edo Ibiñagabeitiari idazten dizkien gutunetan, beti ageri da itzultzeko aukera bat, euskarara eramaten zuen atea erabat itxita ez balego bezala. Hona zer idatzi zion Ibiñagabeitiari 1964ko urrian: “Sekula Frantziara itzultzen ba zera, edo Europara beintzat —eta Europako egoera sekula aldatzen ba da, gure ideietara egokitzeraino, bearbada euskaldungoaren aldeko borrokari berriz lotu ahal izango gatzazkio. Bainan beldur naiz ordunko euskera galdurik datekeala osoro Zuberoan, geroago eta galtzenago ari baita, eta orduan ez duke zentzurik Peillenek eta nik euskaldungoaz ardura ar dezagun”.<sup>21</sup> 1966ko otsailean: “Zu onat bizitzera sekula etortzen ba zara, eta kultura-igikunde edo —aldizkari bat antolatzeke asmoa ba zendu (eta ene bizi-baldintzak piska bat obekuko ba lira), jakiña poz bat eta ohore bat litzaidake zure lankide izatea”.<sup>22</sup> 1966ko abenduan: “Alarik ere, zeuk, Europara itzuli eta, zer edo zer antolatuko ba zendu euskal-kulturaren alorran, atsegin bat, eta ohore bat, izango litzaike zure lankide izatea”.<sup>23</sup> Azkenik, Ibiñagabeitiaren heriotzaren

---

<sup>18</sup> ibidem.

<sup>19</sup> ibidem.

<sup>20</sup> ibidem.

<sup>21</sup> ibidem.

<sup>22</sup> ibidem.

<sup>23</sup> ibidem.



berri izan zuenean, Peilleni hauxe idatzi zion 1967ko azaroan: “Euskaltzaletarzunarekin genduen bertze lokharri bat orain hausten dena. Nik bethi esperantza nuen Andima Europara itzuliko zela behin, eta orduan harekin lan egin ahalko nuela, behar bada”.<sup>24</sup>

Handik aurrera, bakardadea basamortu bihurtzen zaiola ematen du, ez baitu kasik euskaldunik ondoan, ezpada Etxaide edo Peillen. 1967tik hil arte, gutxienez hiru aldiz ospitaleratzen dute “zainetako eritasuna” dela-eta. Loezina ere gero eta handiagoa, *lo-kura* bat egiten diote klinika batean, eta Peillenek zioenez, oso gogorra izan zen tratamendua: oso gaizki atera zen. 1967ko uztailean, ospitaleratze baten ondoren, honako hau idatzi zion Ibiñagabeitiari: “Illabete bat gaixotegian (La Pitié-La Salpêtrière) igaro behar izan dut [...]. Jakiña, emengo Euskaldun lagun zaharretatik, iñor ez da nitzaz arduratu estatu its ortan nengoelarik; orrengatik, ez dakit batere iñoren ikustera joateko pena artuko dudanetz”.<sup>25</sup>

Bakardadean bizi dela behin eta berriz aipatzen du azken urteetan idazten dituen gutunetan, baina azken une arte Peillenekin eta Etxaiderekin izango du harremanik. Jon Etxaideren etxera, Donostiara, etortzen zen Euskal Herrira hurbiltzen zen aldiro; pentsamendu edo ideologian, zer esanik ez erlijioan, bat egiten ez bazuten ere, Mirandek maiz adierazten du gutunetan laguntasuna eta pentsaera gauza ezberdinak direla. Etxaideri 1963ko martxoan hauxe idatzi zion: “Orain gaineratzen dut auzi orretan, eta beste batzuetan ere, gogaide ez bagera ere, ez dudala sekula idea ezberdintasuna adiskidantzaren eragozpentzat eduki. Beraz ez kexatu: neuk ere gure elkarren arteko adiskidetasuna eta laguntasuna asko preziatzen dut, ta gainera zure jarkera errelisioneke auzi orretan errespetatzen dut oso (naiz ez dudan osoki entelegatzen, aitortu bear dizut, ezen Frantziako —eta Zuberoako— katolizismoa aski lazoago da)”.<sup>26</sup>

1972ko urtarrila hasieran, Jon Mirandek bi aste zeramatzan lanean agertu gabe, eta Tauriac lagunarekin zuen hitzorduan agertu ez zenez, Tauriacek arrebarekin hitz egin zuen. Simone eta senarra Jonen apartamentura joan zirenean, ohe gainean hilda aurkitu zuten, lurrean botila hutsak eta pilula-kaxak ohe-mahaitxoan. Horiekin batera, haren ohe-lagun Blennyk eskuz idatzitako ohar bat aurkitu zuten, “Jean je ne t’oublierai jamais” zioen. Ezin jakin noiz idatzia izan zen, baina honako hau dio Peillenek ohar horri buruz: “Goulvenn Pennaoden arabera, Jon agonian aurkitu zuen eta hark bakean uzteko erranik ez zuen medikurik deitu”.<sup>27</sup>

Jon Miranderen bizitzaren gorabehera nagusiak zer izan ziren ederki azaldu zuen Jon Etxaidek *Zeruko Argia* aldizkarian “Jon Mirande hil zaigu!” artikuluan. Jon Mirande nolakoa zen esanez bukatzen du artikulua lagun gipuzkoarrak: “Horrelaxe zen gure Jon Mirande: on puska bat, apala, bihozpera eta bihotzandi, beti lagun hurkoari mesedeak egiteko prest, zero desinteresatua, hitzean lander egiñetan eder, beti on egin zale iñorengandik ezer espero gabe. Etzen kristaua izanen, beharbada, baiñan zenbat kristau izeneko haren aintzinean lotsagorritu beharra daukatenak! Jainkoak dezala bere atsedenean, mundu

---

<sup>24</sup> ibídem.

<sup>25</sup> ibídem.

<sup>26</sup> ibídem.

<sup>27</sup>Peillen, op. cit, 2012, 27.

hontan hainbeste sufritu duen gure Jon Miranderen arima".<sup>28</sup>

## 1. 2. Mirande idazle

Mirandek olerkiak, narrazioak, nobela labur bat eta hainbat artikulua idatzi zituen. Horrez gainera, hizkuntza askotatik (ingelesetik, alemanetik, okzitanieratik, bretoiieratik...) itzuli zituen gustuko idazleen lanak. Haren biografiari begiratzen badiogu, garbi ikusiko dugu idaztea berebiziko garrantzia zuen jarduera zela berarentzat Peillenek dioen moduan, "Jonentzat idaztea bizitzeko arrazoa zen, baina baita erremedioa ere [...]. Idazten zuenean ez zen gaixotzen". Mirandek berak Ibiñagabeitiari idatzitako gutun batean hauxe dio: "Aspaldi hontan ez dut ezer ere idatzi euskaraz (ez eta erderaz ere...). Ez dut gehiago idazteko gogorik ez errextasunik; eta gaiztoago dena, biziak ez du areago gozorik enetzat: damu dut artu dudan bidez, bañan orain beranduegi da beste bat artzeko... *fiat voluntas Deorum!*".<sup>29</sup>

Mirande, Parisen jaioa eta paristarra izanagatik, euskalduna zen; horregatik, euskarak kezkatzen zuen eta, beraz, beste hizkuntzetako testu garrantzitsuak euskaraz ere behar zirela garbi zuen, eta horretan lan egin zuen. Areago, euskal literaturaren baitan hutsune asko ikusten zituen, bai forma eta baita gai aldetik ere. Honela aipatzen du Aiora Jakak Mirandek nola bizi zuen hutsune hori: "1950eko hamarkadaren hasierarako ohartua zen zuberotar idazlea euskal literaturaren antzutasun eta gabezia [...]. Literatura-gabezia hori betetzeko, Miranderen ustez, ez da nahikoa euskaraz idaztea; aitzitik, ezinbestekoa da beste hizkuntzetan egindakoak irakurri eta itzuliz gure literatura aberastea. Horregatik ekin zion berak buru-belarri makina bat hizkuntza ikasteari".<sup>30</sup> Txomin Peillenen testigantzari esker dakigu Mirandek hizkuntza mordoa ikasi eta erabili zituela, euskal literatura ez zedin hain pobre eta eskasa izan.

Horiek horrela, euskaraz idazteko hautua egin zuen, eta, beste idazle batzuekin batera, gabezia horiek estaltzen ahalegindu zen. Esan daiteke Miranderentzat munduan egoteko modu bat zela idaztea, eta bizitzako azken urteetan, etsipenak jota idazteari utzi zionean, horixe adierazi omen zion artatu zuen medikuari.

Zenbaitek uste badu ere idatzi edo hitz egin zer hizkuntzatan egiten dugun garrantzirik gabeko auzia dela, paristarraren bizitzak garbi erakusten du ez dela hala. Mirandek gehienbat euskaraz idatzi zuen hizkuntza asko jakin arren, euskalduna zenez, horren aldeko apustua egin baitzuen. Baina euskaldunen artean zailtasunak gailendu zirenean, eta bere burua bakarrik ikusi zuenean, argitaratzeko ezintasuna, batetik, eta kritika latzak, bestetik, idazteari, hots, euskaraz idazteari, utzi zion. Bere gutunetan, 1957az geroztik, behin eta berriz aipatzen du ezin argitaratuak sortzen dion nahigabea, baita euskaldunen konformismoak eragiten dion "nazka" ere. Hona Ibiñagabeitiari 1964ean zer idatzi zion: "Dena dela, euskal bideak oro utzi ditut. Badakit gauza mingarria izango zaizula,

---

<sup>28</sup>ETXAIDE, Yon: "Jon Mirande hil zaigu", in Zeruko Argia, 519 (1973) 7.

<sup>29</sup>Urkizu, op. cit, 1995.

<sup>30</sup>JAKA, Aiora: "Miranderen itzulpen argitaragabe batzuk", in "Itzulpengintzari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan", Iker 28, EHU-Senez 39, 247.

baina frantzesek dioten itzetan: *A l'impossible nul n'est tenu* —eta orain arte aal nuena egitera saiatu naiz zintzoki. Azkenekotz etsitu dut".<sup>31</sup>

## 2. TESTUINGURU HISTORIKOA ETA KULTURALA

Jon Mirande lanagatik erbestera joan behar izan zuten zuberotarren ondorengoa zen, eta Frantziako hiriburuan jaio eta bizi izan zen. Dena den, euskalduna izateak berebiziko garrantzia izan zuen Miranderengan, eta ez dago haren lana ulertzerik hori kontuan izan gabe. Paristar euskalduna Euskal Herria gogoan aritu zen idazten; zer Euskal Herri zen hori, ordea?

Euskal Herria bi estatu handitan banatua zegoen Miranderen garaian gaur bezala. Batean zein bestean, ezinean zebiltzan euskaldunak, ezin hizkuntzari, nortasunari eta mundu ikuskerari eutsi. Iparraldekoak gero eta frantsesago, Hegoaldekoak gero eta espainolago. Eta hala ere, euskaldunak otzan eta zerbitzari ikusten zituen Mirandek.

XX. mendeko bi mundu gerrek eragin izugarria izan zuten Frantzia osoan eta baita Ipar Euskal Herrian ere. Lehenbizikoaren ondoren Ipar Euskal Herria desegina geratu zen; bigarrenak oso bestelako ezaugarriak izan zituen, alemanek, hasieratik, Frantziaren zati handi bat hartu baitzuten. Mirandek Bigarren Mundu Gerra bukatu zenean 20 urte zituen. Garai horretako egoera eta giroa hobeto ulertzeko egin dezagun atzera eta ikus dezagun zer gertakizun politiko eta kulturalak baldintzatu zuten XX. mendera bitarte Ipar Euskal Herria.

Frantziako Iraultzaren ondorioz Erregimen Zaharra desegitearekin, herrien ezaugarri guztiak ezabatu nahi izan zituen Iraultzaren gobernuak. Horretarako pertsona guztien arteko berdintasuna aldarrikatu zuen: denek eskubide eta betebeharrak berak izango zituzten; denak ziren Frantzia Handiko hiritar, eta hiritar hori zen eskubideen subjektua. Prozesu hori benetan burura eramateko hamarkada asko behar izan ziren, baina Ipar Euskal Herrian, nagusiki, Iraultzarekin hasi zen herri-izaeraren desegitea.

Iraultzaren ondoren Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherea Biarnorekin batera departamendu batean bilduta geratu ziren eta, ondorioz, elkarrekin lotzen zituen ezinegitea edo antolaketa desegina geratu zen. Garai hartako Euskal Herriko ordezkarien aktetan agertzen denez, Administrazioa beste modu batera antolatzeaz gain, hiru herrialdeak batean biltzea ere eskatu zuten euskal ordezkariak. Ez zuten horrelakorik lortu. Dena dela, Manex Goienetxeren esanetan, Iraultza baino lehenagotik hasia zen Iparraldea Frantzian integratzen. Izan ere, 1659an, Frantzia hasi zen lehenagotik Espainiak zuen hegemonia hartzen, eta Iparraldeko noblezia bere alde jartzeko hainbat bide erabili zituen: ospea, karrera militarra, maila sozialean gora egiteko aukera, pribilegioak... eta, gainera, Kontrarreforma katolikoa.

Iraultzaren ondorengo urteak ez ziren samurrak izan, jendea hasi baitzen ondorioak pairatzen, eta poliki-poliki Iraultzaren aurkako jarrera indartzen joan zen. Apaizei konstituzio zibila ezartzeak garrantzi handia izan zuen, Iparraldea oso katoliko fededuna baitzen eta apaizek zeresan handia baitzuten. Gainera, Konbentzio Gerrak (1793-95) Euskal Herriko

---

<sup>31</sup>Urkizu, op. cit, 1995.

mugan eragin izugarria izan zuen, eta hura bukatzearekin Iparraldean foruak ezabatu zituzten. Horri guztiari gehitu behar zaio Frantziako agintariak bidaltzen zituzten ordezkarien aginte-jarrera gogorra eta Zuzentasun Publikoa Zaintzeko Komiteak hartzen zituen neurri zorrotzak. Egoera horretan, tentsioak gora egin zuen gauzak erabat okertzeraino: 1794ko udaberrian Lapurdiko milaka lagun Landetara erbesteratu zituzten.

XIX. mendeko lehen erdia latza izan zen. Euskaldunak jabetza gutxiko jendea ziren eta, gainera, nekazaritza- eta industria-krisi pare bati egin behar izan zieten aurre: uzta eskasak izan ziren zenbait urtetan, eskulangintzak eta industriak ere beherakada izan zuten, 40ko hamarkadan laboregaien urrialdia izan zen eta, azkenik, 1854an kolera-izurritea. Gainera, Iraultzaren ondoren, basoen eta lurren kudeaketari lotutako lege zaharrak baliogabetu bai, baina lege berriak behar bezala ez ezartzearen ondorioz, baso- eta lur-sailak oso hondatuta geratu ziren. Horrek guztiak ekarri zuen euskaldun askok Ameriketarako bidea hartzea bizitza hobea izateko itxaropenarekin. Mendearren bigarren erdian, batetik, azpiegitura berrien eraikuntzak, bestetik, kostaldeko turismoaren gorakadak, eta, azkenik, zenbait industriagune modernoren sorrerak aldaketa nabarmenak eragin zituzten jarduera ekonomikoan eta baita demografian ere —Lapurdiko kostaldean gorakada handia, landa-eremuetako herrien hustea—.

“1870eko uztailetik 1871ko irailera, gerra bat iragan zen Frantziaren eta Prusiaren artean. Gerra Prusiako erresumak irabazi zuen, eta Frantziak Alsazia eta Lorrena galdu zituen, inperioarekin eta ohorearekin batera. Aldi berean, Alemaniako inperioa sortu zen. Orduz geroztik, Frantziak etengabe izan zuen errebantxarako gogoa”<sup>32</sup>, dio Eneko Bidegainek *Bigarren Mundu Gerra eta Euskal Herria* liburuan. Eta segitzen du azaltzen XIX. mendeko zer gertakizun politikok eragin zuten Lehen Mundu Gerran etsai nagusi zirenen arteko ezinikusia gerra piztu zen arte. Hasi zen, beraz, ustez berehala bukatuko zen gudua, baina lau urtez luzatu zen eta Euskal Herrian 6000 bat hildako utzi zituen. Hildakoen kopurua Frantzia osoan izan zen ikaragarria, eta gobernuak herri bakoitzean oroigarri bat jarri zuen *Aberriaren alde* bizia eman zutenen izen-abizenekin. Horrek frantses sentimendua izugarri areagotu zuen euskaldunen artean, hain galera handiek nolabaiteko zentzua behar baitzuten izan. Horretan guztian berebiziko eragina izan zuen *Eskualduna* astekariak, argi eta garbi agertzen baitzuen *Aberria* defendatzearen garrantzia eta euskaldunek horretan erakusten zuten adorea.

Frantsesaren ezarpena eta eskualdeetako hizkuntzen debekua Iraultzaren ondoren hasi bazen ere, benetako frantsese bizkorra Lehen Mundu Gerraren ondoren hasi zen Euskal Herrian. Prozesu horrek ez du etenik izan XX. mende osoan, gerra hori bukatu eta hogeitaurteren buruan hasi baitzen Bigarren Mundu Gerra. Lehenbizikoarekin alderatuta bestelako ezaugarriak izan zituen arren, horretan ere alemaniarrek ziren frantsesen etsai nagusiak, are gehiago, gerra haste hutsarekin Frantzia erdia okupatu zutela kontuan hartzen badugu. Pétainek alemanekin armistizioa sinatu ondoren, Frantzia bitan banatua geratu zen, eta baita Ipar Euskal Herria ere: Lapurdi eta Nafarroa Beherea alemaniarren menpe eta Zuberoa Vichyko gobernuaren esku. Testuinguru horretan, Frantziako eta, oro har, Europako herrialde menderatutakoek askatasuna lortzeko aukera ikusi zuten alemaniarrengan. Finean, Frantziako Errepublikaren baitan desagertzen ari ziren beste herri guztiak, hizkuntzak,

---

<sup>32</sup>BIDEGAIN, Eneko: *Lehen Mundu Gerra eta Euskal Herria*, Elkar, Baiona, 2014, 15.

kulturaz, ohituraz... gabetuak. Horren ifrentzuan, alemaniarrek herrien nortasuna errespetatu eta mantenduko zutela hitzeman zuten, eta, beraz, ez da harritzeko hainbat euskaldun eta bretoi haiekin harremanetan jarri izana. Azken batean, itxuraz alemaniarrek irabaziko zuten gerra, eta haiekin ongi moldatzeak eta etorkizuneko akordioak lortzeak berebiziko garrantzia izan zezakeen herriak bizirik irauteko. Mirandek salatu zuen kolaborazionistak baino gogorrago zigortu zituztela abertzale bretoiak gerra ondorenean.

Iraultza ondorengo gertakari horiek, XIX. mendeko aldaketa politiko eta administratiboek eta XX. mendeko bi gudek izugarritzako eragina izan zuen euskaldunek beren buruaz zuten irudian, eta honako ondorio hauek izan zituen: kulturaren eta, bereziki, hizkuntzaren transmisioa etetea, emigrazioa Ameriketara zein Parisera, turismoaren gorakada, euskalduna gero eta integratuagoa edo desagertuagoa, hots, frantsesagoa.

Hala ere, XX. mendeko kultura-muuimenduei begiratzen badiegu, garbi ikusten da galeraren kontzientzia mendea abiatzearekin batera hasi zela. 1901ean Hendaian *Baskologia Biltzarra* egin zuten, eta 44 kide bildu ziren; erdiak Iparraldekoak eta beste erdiak Hegoaldekoak. Gerora, biltzar horrek *Eskualzaleen Biltzarra* ekarri zuen Iparraldean eta *Euskal Eснаlea* Hegoaldean.

1932an *Euskalerriste* sortu zen, Iparraldeko lehen mugimendu abertzalea, EAJren aldarrikapen bertsuekin: Jaungoikoa eta Lege Zaharrak. Helburu gisa, berreuskalduntzea, kultura berreskuratzea, deszentralizazioa, euskara ofizial bihurtzea, oinordekotasun eta dibortzio-lege berriak egitea eta nekazaritzarako hobekuntzak. Iparraldea oso kontserbadorea izaki, abertzaletasunaren aurka egin zuen jendeak, eta, beraz, mugimenduak ez zuen jarraitzaile askorik lortu; gutxi iraun zuen.

1960an sortu zen *Enbata* mugimendua; lehenbizi, kultura eta euskara helburu hartu zituen, baina denborak aurrera egin ahala, gero eta politikoago bihurtu zen. *Itsasuko Biltzarrean* garbi azaldu zuten zer xede zuten: euskararen defentsan ari nahi zuten, atzerapen ekonomikoa irauli, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko batasuna aldarrikatu, euskal legeak egin eta abar. Mugimenduak aurrera egitearekin, buruzagien arteko iritzi desberdinek arazoak ekarri zituzten, eta Frantziako gobernuak ederki baliatu zuen hori: 1974ean desegin egin zuen.

Hego Euskal Herrian gauzak ez zeuden Iparraldean baino askoz hobeto. Gerra galdu berria eta Francoren diktadurapean, Jaurlaritza erbestean eta euskaldun asko ihesi joanak; errepresioa latza izan zen. Herria isilik, euskara debekatua eta beldurra hezurretaraino sartua. Bigarren Mundu Gerran aliatuen alde jarri ziren euskaldunak, eta uste izan zuten gerra aliatuek irabaziz gero, lagunduko zutelara Autonomia Estatutua legezatzatzen eta gauzatzen. Ez zen, ordea, horrelakorik gertatu. Gerra hotzaren testuinguruan, AEBk eta aliatuek Franco onartu egin zuten, komunismoaren aurkakotzat ikusten baitzuten. Jaurlaritzak prestigiozko politika jarri zuen martxan, baina ez zuen nazioarteko ez laguntzarik ez onarpenik lortu.

Dena dela, Iparraldean bezala Hegoaldean ere, desegite-prozesua lehenagotik hasia zen: XIX. mendeko bi gerra karlistak galdu ondoren, euskaldunen foruak desegin zituzten eta

Espainiarekiko mendekotasuna gauzatu zen. Ez dugu ahaztu behar, ordea, euskararen debekua eta jendartea berdintzeko prozesua hasia zela lehenagotik ere. Horrez gainera, XIX. mendeko Bizkaiko industrializazioak ere ondorio esanguratsuak izan zituen: hiriko bizitzak gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen eta Espainia aldetik lanera jende asko etorri zenez, populazioan, natura-paisaia eta hiriaren antolaketan aldaketa bortitzak izan ziren. Egoera horretan, eta biziraupena helburu hartuta, sortu zuen Sabino Aranak mugimendu abertzalea, lehenbizi Bizkaian eta, gero, Hego Euskal Herrian zabaldu ondoren, Iparraldean ere eragina izan zuena —*Euskalerriste* mugimendua—.

Kultura-mugimendu garrantzitsuak izan ziren XX. mendean Hego Euskal Herrian, baina, bereziki, euskarari lotutakoak aipatuko ditugu: ikastolen sorreraren aitzindari izan ziren etxe-eskolak 40ko hamarkadan —Elbira Zipitria—, euskal ohitura-, kontakizun-, abesti- eta mitologia-bilketa mende osoan zehar —Azkue, Barandiaran—, euskaraz argitaratzen zuten hainbat aldizkariren sorrera —*Gernika, Egan, Euzko-gogoa, Olerti*—, eta horiei guztiei lotuta, euskara batua —Txillardegia, Aresti, Mirande, Mitxelena—.

Hori izan zen Jon Mirande zuberotar paristarraren Euskal Herria: gorputza eta bihotza zatiturik, arimari behar besteko indarrarekin eutsi ezin; izaten segi nahi, eta nola asmatzen ez; iraganari begira etorkizuna asmatzeko bideak bilatzen, eta ahalegin horretan hatsa bukatzen. Eta berak, Mirandek, abertzale euskaltzale gisa, aberria berpizteko proposatutako formulak ez zuen batere onarpenik izan; are gehiago, baztertua eta gutxietsia izan zen. Hori da, hortaz, Miranderen tragedia handia: handi nahi zuen herria bakarrik geratu zen, eta egindako ahaleginek ez zuten fruiturik eman ekintzaren alorrean.

### 3. TESTUINGURU FILOSOFIKOA: IRRAZIONALISMOA

Miranderen pentsamendu filosofikoa irrazionalismoaren baitan kokatu behar da. Kultura burgesean arrazoimenean konfiantza itsua dagoenez, munduarekiko bestelako jarrerak agertzen dituzten ikuspegiak erretorikotzat edo bitxikeriatzat hartzen ditugu. Dena den, ez da ahaztu behar XX. mendearen bigarren erdian, arrazoimen klasikoaren kritika handia egon dela; korrante askotan, jakintzaren tokia hartu zuen tradizioetan eta mitoetan oinarritutako ezagutzak. Filosofiaren historiari begiratuta, ikusten dugu arrazoimenarekiko konfiantza itsu hori ere irrika irrazionalistatzat hartzen hasi dela. Eta ezin dugu ahaztu Humek zer kritika egin zion arrazoimenari goreneko mailan zegoenean, esanez zientzia eta jakintza guztien oinarria ohitura besterik ez zela. Horren ondoren ezarri zituen Kantek arrazoimenaren mugak. Beraz, Miranderen planteamendu asko bitxiak iruditu arren, eta, askotan, irla gisa bakardadean ikusten dugun arren, Azurmendiren ustez, historia luze baten baitan kokatzen da Mirande: “ez diogu kapritxo literario erromantikotzat hartuko, tesi epistemologiko eta antropologiko guztiz benetakoak izan zuena: intuizioaren lehentasuna”.<sup>33</sup>

Ikus dezagun noiz eta zerk eraginda abiatu zen irrazionalismoa deituriko eskola filosofikoa, eta zer ezaugarri dituen. XVIII. mendea Argien Mendea da, gizakiaren heldutasuna ekarri zuena, hain zuzen. Sinesmenak eta kanpoko gidaritzak alde batera utzi,

---

<sup>33</sup> Azurmendi, op. cit, 1989, 39.

eta gizakia gai da, arrazoimena erabiliz, nahi duen guztia lortzeko. Politikoki, gizakien askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna aldarrikatu ziren Frantziako Iraultzan, eta horrek pentsamenduaren alorrean gertatzen ari zena gauzatu besterik ez zuen egin.

Filosofian, idealismo alemana historikoki Iraultza Frantsesari lotuta dago. Izan ere, erlijio gerrak, Kopernikoren aurkikuntzak eta Descarteszen zalantzak medio, Errenazimentua izugarritzko astindua izan zen, Erdi Aroko antolaketa eta mundu-ikuskeraz zurruna jartzen baitzituen zalantzan. Horri guztiari eman zioten aterabidea Iraultzak eta idealismo alemanak, arrazoiak, giza adimena eta haren gaitasunak erdigunean jarri. Halere, ez zen eragiketa oso erraza izan: arrazoiak hornitutako gizaki hori gizaki indibidualista zen, gizartetik eta naturatik berezia zegoen, eta horrek ondoez ikaragarria eragiten zion. Filosofoek pentsatzen zuten, ordea, gizakiak arrazoiaren bidez gaintzen ahal zituela zailtasun horiek, eta ilustrazioak aldeztutako ideiek aski indar izango zutelako askatasunari, berdintasunari eta elkartasunari eusteko. Ez zen hala izan, ez politikoki ez eta filosofikoki ere. Enpirismo ingelesak arrazoiaren izaera ahalguztiduna auzitan jarri zuen, eta natura-zientzien aurrerapenen ondorioz gizakia naturako beste edozein elementuren gisa aztertzen zenez, hots, haren izaera naturaren baitan aztertzen eta ulertzen zenez, naturako elementu haien arteko elementu huts bilakatu zen.

Krisi horren ondorio izan ziren Kanten filosofia eta idealismo alemana. Ezagutzari dagokionez, Kantek bi alderdi bereizten ditu: batetik, agertzen zaiguna —fenomenoa— eta, bestetik, berbaitangoa —*noumena*—. Gizakiok agertzen zaiguna bakarrik ezagutu dezakegu, eta berbaitangoak beti ihes egiten digu. Horrek ez du esan nahi ezagutzen duguna gezurrezkoa denik; egiazkoa da, baina ez da berez edo izatez den hori, baizik guretzat den errealitatea, giza adimenaren *a priori*en bidez ezagutzen baitugu.

Idealistak modu askotara ahalegindu dira agerkizun hutsean geratu gabe aterabideak bilatzen: Kant bera arrazoi praktikoa bidez eta Hegel dialektikaren bidez. Nolanahi ere, idealismo alemana arrazionalismoa da, hau da, arrazoiari ematen dio lehentasuna. Eta horren erakusgarri da Hegelek errealitateari buruz dioena: “arrazionala den guztia erreala da eta erreala den guztia arrazionala”.

Schopenhauer Kanten jarraitzaileetatik har daiteke, nahiz eta irrazionalismoa deiturikoari hasiera ematen dion pentsalaria den. “Schopenhauerrekin hasi irrazionalismoaren eskolak` bi krisi suposatzen ditu bere aurretik beraz: ikuspide tradizionalen krisia eta hura gaintzen zuen razionalismoaren krisia, azkeneko krisi honek esan nahi duen guztiarekin (demokraziaren kritika, eta abar) pesimismo arradikalarekin alegia: historiak ez du helburu jakinik, gizarteak ez arrazoizko ordenagarritasunik, zoriona amets hutsa da, sufrimendua ezin sekula mundutik erauziko da eta abar”.<sup>34</sup>

Ikus dezagun zer ezaugarri nagusi duen irrazionalismoak: lehentasuna elementu irrazionalari ematen die, ez arrazoimenari; banakoak oinarritzko garrantzia hartzen du, eta filosofia artearen eta poesiaren ondoan jartzen du, ez zientziaren ondoan. Finean, irrazionalismoan, arrazoimena erreala denaren forma bat besterik ez da, bizitzari aurre egiteko era bat, bizitzeko modu bat. Zer ezagutza mota dakar? Arrazoimena kontzeptuak eratzeko gaitasuntzat hartzen badugu, hots, abstrakzioari esker izaki mentalak sortzeko,

---

<sup>34</sup>ibídem, 160.

ikusten dugu ematen duen ezagutza bitarteko bidezkoa dela, eratorria eta bigarren mailakoa. Areago, arrazoimen bidezko ezagutza lehen mailako ezagutza irrazionalean, pertzepzioan, oinarritua dago. Kontzeptuetara bideratutako abstrakzio-prozesuan, jatorrizko atzematean jasotako errealitate konkretu eta banakoak desagertu egiten dira; beren benetako errealitatea, bizitasuna, galtzen dute. Ordainetan, erreala dena logiko bihurtzen duen definizioa daukagu: errealitatea egia bihurtua. Beraz, arrazoimen bidezko ezagutza ez da benetako ezagutza, ez dio subjektu ezagutzaileari informazio berririk ematen. Aitzitik, hautemateetan jasotzen den informazioa antolatu eta sistematizatu egiten du. Funtsean, hausnarketa da, ezagutzaren ezagutza.

Schopenhauerren filosofian errealitatearen muina nahimena da; mundua errepresentazio gisa agertzen da, baina nahimena da. Errepresentazioa, arrazoimenaren bidez ezagutzen duguna, ilusiozkoa da, izaki banakoen mundua; nahimena, berriz, erreala denaren esentzia da, banakoen errealitateetik harago dagoen batasuna. Dena den, errealitatearen esentzia den Nahimena eta banakoen nahimena bereizi behar dira. Banakoen nahimena errepresentazioaren eremuan dago, Nahimenaren objektibazioa da; ezagutzari, kontzientziari, autoezagutzari lotua. Autokontzientzia horretan, subjektua “nahi duen” subjektu gisa agertzen da. Banakoaren nahimen hori norberaren kontzientzian gorputzaren “beste alde” gisa agertzen da. Gorputz hori bitartekorik gabeko objektua da, kontzientziaren hasiera adierazten du. Banakoen nahimenak honako helburuaren arabera jokatzeko du: bizitzari eustea eta indartzea.

Errealitatearen esentzia da Nahimena, munduaren berbaitangoa, eta naturari helburu bat jartzen dio. Hala ere —Nahimenak ez du ez kontzientziarik, ez ezagutzarik—, helburu horrek esan nahi duen gauza bakarra hau da: dena, den guztia, Nahimenaren baitakoa dela, ez besterik. Gainera, ezinezkoa da Nahimena ezagutzea, Nahimena bizitzarako joera baita, bizitza-sena, helbururik gabea, indaritsu eta zentzugabea. Nahimena erreala den guztiaren —organiko zein inorganiko— esentzia denez, arrazoimenak ere hor du bere jatorria; beraz, arrazoimenak irrazionala den zerbaitean du sorburua.

Gauzak horrela, esan daiteke giza esentzia ez dela arrazoimena; natura osoko elementuak bezala, arrazoimena ere Nahimenaren arabera da. Giza nahimena da ezagutza prozesua abian jartzen duena, nahi izatea ezagutzaren aurrekoa baita. Ezagutza ez da, hortaz, helburu espekulatiboa duen jarduera huts bat, helburu praktikoa du: interesatzen zaiguna besterik ez dugu ikasten.

Nietzscheren irrazionalismoa Schopenhauerren filosofiatik abiatu bazen ere, bere pentsamendua garatu ahala, Schopenhauerren pesimismo tragikotik urrundu egin zen. Nolanahi ere, Miranderengan zer ideia filosofikok eragin zuten aztertzen ari garenez, egile horiek zer duten komunean ikusiko dugu, eta tradizio horretatik zuberotarrak zer jaso zuen agerian jarri. Esate baterako, Nietzschek eta Schopenhauerrek erreala Lehen Batasuna dela esaten dute; benetako errealitatean dena bat da, ez dago aniztasunik. Aniztasuna edo banako izakiak sortzen dira benetan den hori espazioaren eta denboraren baldintzetan sartzean. Arrazoimen bidezko ezagutzan ez da benetako errealitatea ezagutzen, hizkuntza giza asmakuntza bat baita, ilusio bat, egia itxura duen sinetsitako gezurra. Benetako errealitatea ezagutzeko intuizioa da bidea eta baita artea, mitoak eta tradizioa ere.



Miranderen pentsamendu filosofikoari begiratuta, berehala ohartuko gara, bizitza, gizakia eta mundua ulertzeko moduari dagokionez, puntu horietan guztietan bat egiten duela alemaniarren planteamenduarekin. Izan ere, zuberotarraren ikuspegiaren, arrazoimena ez dago errealitatearen muinean, arrazoimen bidezko ezagutza bigarren mailakoa da, eta, beraz, errealitatearen urrundu egiten gaitu. Bai arrazoimena, bai harek dakarren ezagutza eratorriak dira, errealitatearen esentzian, sakon-sakonean, ez baitago arrazoimenik, kontrajartzen zaizkion ezaugarriak baizik.

Gatozen orain, Euskal Herrian non eta nola kokatzen den Mirande ikustera. Azurmendiren ustez, Mirande ez dago uste izan den bezain bakarrik: "Foruak ezabatu izanez gero, darraikion guztiarekin, abertzaleen zein ez direnen artean, euskaraz nahiz erdaraz, nabaritzen diren elementu amankomun batzuen (kultura guzia, eta pentsamendua, planteamendu politikoetara murriztu gabe hain zuzen; horrek posibilitatea irekiko liguke beharbada, politikoki batere interesatzen ez zaizkigun pentsamoldeak, kulturalki halere interesatzeko)".<sup>35</sup> Hortaz, aztertze dago Euskal Herriko hainbat pentsalariren —Unamuno, Baroja, Mirande, Txillardegia, Salbatore Mitxelena, Salaberria— arteko lotura eta elkarreragina.

Unamunoren pentsamoldeak alderdi askotan egiten du bat Miranderren ikuspegiarekin. Unamuno, Schopenhauerren eraginpeko izaki, irrazionalista dugu: arrazoimena bigarren mailan jartzen du ezagutzarako, eta ametsa ezagutza-iturri jotzen du; dualismo epistemologikoa zein ontologikoa aldeztu ditu; arimari buruz duen ikusmoldeak Miranderren gogo basaren ideiarekin egiten du bat; gerra laudatu eta aldarrikatu egiten du. Hona hemen zer dioen gerrari buruz *Bizitzaren sentimendu tragikoa* lanean: "Bizidunen munduan, bizitzaren aldeko borroka, the struggle for life delakoak, elkarre bat, eta ezin hertsia, ezartzen du, eta ez soilki beste baten aurka borrokatzeko batzen direnen artean, elkarre aurka borrokatzen dutenen artean baizik. Eta, ba ote da elkarre sakonagorik, beste animalia bat jaten duenaren eta horrek jandakoaren artean, irensearen eta irentsiaren artean tratatzen dena baino? Eta hau banakoen arteko borrokan argi ageri baldin bada, are argiago ageri da herrien artekoan. Gerra aurrerapen faktore osoena izan da, merkatalgoa bera ere baino handiagoa. Gerrari esker ikasten dute elkarre ezagutzen eta, horren ondorioz, elkarre maitatzen, garaitzaileek eta garaituek".<sup>36</sup>

Txillardegirekin ere baditu hainbat gauza komunean —euskararekiko kezka eta arduraz gain, noski—. Beren belaunaldian, mundua aldatua ikusten zuten, errealismo gordinez eta gertakizun hutsez betea: gizakiak, etengabeko mugimendu eta ekintzetan murgildua, pentsatzeko eta bere baitara biltzeko astirik gabe, bizitza azaletik bizitzen du. Benetako bizitzaren galera sumatzen dute, benetako munduarena, transzendentziarena. Azaletik harago dagoen mundu hori ikusteko, bigarren mundua deituriko horretan murgiltzeko, barne begiak behar dira, eta horretarako gero eta ezinduago gaude gure bizimoduaren ondorioz. Bai Mirandek eta baita Txillardegik galera hori sakonki bizitzen dute, eta batarentzat zein bestearentzat, benetako errealitatea fenomenoetatik harago, transzendentzian dagoena da: "Eguneroko preokupazioetan murgildurik, ezin arnasarik hartu dugu; inguru guztietan sakabanatuta gabiltza, axial axial, astirik ez dugula geure barnera

<sup>35</sup>Azurmendi, op. cit, 1989, 167.

<sup>36</sup>UNAMUNO, Miguel: *Bizitzaren sentimendu tragikoa*, Klasikoak bilduma, 1994, 72. Euskaratzailea: Xabier Kintana Urkiaga.

jeisteko, bizitzaren sentiduaren problemarekin konfrontatzeko. 'Errealismoak' murrizten eta begi lausotzen eta barne kaskartzen gaitu. Ahaztu egin gara misterioaz"<sup>37</sup>.

Mirandek maiz aipatzen du gutunetan Baroja; hura omen da, gazteleraz idazten duen arren, Euskal Herrian duen gogaide bakarra: "Baroja baita Euskaldun erdal-idazleetan gauza zenbaitetan gogaide aurkitu dudana bakarra".<sup>38</sup> Barojaren *Alzateko Jaun-en kontu zaharra* eleberrian, antzinako euskaldun paganoen kristautzeari buruzko hainbat eta hainbat pasarte ditugu Mirande gogora ekartzen digutenak. Hona hemen kristautasunari buruz zer dioten Jaunek: "Bai. Judatar herri hain mespretxagarri eta hain zital hori Jainkoak hautatu herria izatea ezin dut konpreni. Jende herrakor eta arras maltzurra da, munduko herri guzietan arbuia duten jendea".<sup>39</sup> Elkarrizketan, aurrerago: "Nahi duzun hainbat barre egin ezazu. Judatarrek eta heien ondorengo lehen kristauak herri artzaintzariak zirelako bildotsa jarri zuten jainko izenaren babesean; guk arrazoipide berdinarekin eta guretzako Eguzki-sinbolo bat delako, akerra jarri dugu. Akerra idolo bat baldin bada, funts berdina du bildotsak ere beste hainbeste izateko".<sup>40</sup> Honako hau ere bai: "Beraz, gure ohituretatik, gure aintzinako ideietatik ez du ezertxok ere iraun behar?".<sup>41</sup> Miranderen olerkietan, Orziren ttuntunaren uhinek sortzen dute ezerezetik den guztia, eta Barojaren eleberrian, zati bakoitzean, Otzi-Thor dugu zerua zeharkatzen duen jainkoa.

Dena dela, ez gara hasiko orain Miranderen lanek idazle eta pentsalari garaikideekin zer lotura zuten aztertzen, ez baita hori lan honen helburua. Azken batean, erakutsi nahi izan dugu Mirandek pentsatu eta idatzi zuenak harreman zuzena zuela garai hartako korronte filosofikoarekin zein kulturalarekin; testuinguru filosofiko eta kultural horretan kokatu behar dugu Mirande zalantzarik gabe eta, era berean, ikusi behar dugu zer irakurketa eta hausnarketa jarriko dituen abian XXI. mendean.

#### 4. MIRANDEREN PENTSAMENDUA

Joxe Azurmendik, nolabait, hiru korronte filosofiko ikusten ditu Miranderengan. Batetik, Indiako pentsamendua: kontenplazioa, lasaitasuna, gorputzaren sorgortasuna eta norbere buruaz ahaztea eskatzen dituena. Bestetik, Nietzschearen eta Spinozaren filosofian oin hartuta, indarra eta boterea aldarrikatzen duena. Eta azkenik, mundua eta bizitza ulertzeko ikuspegi barojazalea deiturikoa, hau da, natura eta bizitzaren ikuspegi neopaganoa. Jon Etxaideri idatzitako gutun batean haxe dio: "*La ruta de Baroja* atsegin aundiarekin irakurri dut, pentsa dezakezun bezala, Baroja baita Euskaldun erdal-idazleetan gauza zenbaitetan gogaide aurkitu dudana bakarra".<sup>42</sup>

Hiru korronte horiek agertzen dira zuberotarraren lanetan. Bizitza pertsonalerako intuizio poetikoa eta gorputzaz ahaztea aldarrikatzen ditu, eta hori izateaz duen kontzepzioarekin eta ezagutza sakonaz duen ideiarekin bat dator. Aldiz, etikaz edo politikaz

<sup>37</sup>AZURMENDI, Joxe: *Mirande eta kristautasuna*, Ediciones de la Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa, Donostia, 1978, 92-93.

<sup>38</sup>Urkizu, op. cit, 1995.

<sup>39</sup>BAROJA, Pio: *Alzateko Jaun-en kontu zaharra*, Baroja, 1986, laugarren zatia, IV. Euskaratzailea: Patxi Apalategi.

<sup>40</sup>Baroja, op. cit, 1986, laugarren zatia, IV.

<sup>41</sup>Baroja, op. cit, 1986, laugarren zatia, IV.

<sup>42</sup>Urkizu, op. cit, 1995.

ari denean, borroka eta indarra aldarrikatzen duenez, zaila ematen du Miranderen ontologiatik eta epistemologiatik etika eta politika nola ondorioztatzen diren ikusteak.

Ustezko lotura edo koherentzia falta hori argitzeko Miranderen testu bat aipatzen du Joxe Azurmendi: “Badago nolana ere, testu bat, guztiz oinarrizkoa eta –haren ‘sistemari’ bagagozkio– pribilegiatua, horregatixe hemen aparte nabarmendu nahi genukeena, pentsamendu mirandetarren segida edo jarraikitasuna (koherentzia, beraz, azken finean), berak espreski bezala erakutsi nahi izan zuena, epistemologiatik ontologiara eta hemendik moralera eta politikara. *Euskaltasun romantiko baten alde* saioaren bukaera da”.<sup>43</sup>

Testu horren azken hiru paragrafoetan, labur bada ere, Mirandek bere pentsamendua azaltzen digu; arrazionalismoaren ukoa proposatzen du, eta esaten du egiazko errealismoa erromantikoa dela. Hitz gutxitan, baina garbi, dio benetako ezagutza ez dugula arrazoiaren bidez edo kontzeptu logikoak erabiliz eskuratuko, eta, hortaz, euskal mistizismoa aldarrikatzen du: “Ba da ordu gure ideologiaren iturburuak razionalismo estu hortatik kanpoan billa ditzagun, gure Erriari buruz amets aundiak egitera aursart gaitezun, hitz batez, bada ordu razionalista adimentzale izateko ordez, romantiko izan gaitezun”;<sup>44</sup> eta aurrerago, “Gogo razionalista mythozale ba da, romantikoa mystikazale da; mystikaren bidez eltzen da mundu irudikor honen atzean den egiazko Izateraño, ots, Arimaraño [...]. Geu euskal-mystikoak izan gaitezun beraz, abertzale realistek gure lepotik iseka egiñik ere amets-egilleak geralakoan”.<sup>45</sup> Ondoren, benetako euskaltasuna zer izan den esaten digu: “Gure ametsen bidez aldiz, egiazko euskaltasuna ezagut dezakegu, gure arbaso aundiek Erdi Mendeetan munduari erakutsi ziotena. Eta odol garbiko Euskaldun horiek ez ziran ez auzo on, ez bakezale ez jasankor, bañan aitzitik bortitz, urduri, guduzale ta aundi-izan-anaiak: hainbat hobe horrelakoak izan direlako, askoz eredugarriago baitukegu orduko Peru Abendaño´ko bat oraingo Perrando Amezetarrak oro baño”.<sup>46</sup>

Horrela, Miranderen filosofian epistemologiatik ontologiarako eta ontologiatik etikarako pausoa nola ematen den ikusten dugu. Izan ere, gure ezagutza-ahalmenetik —zer ezagutzen dugun— ondorioztatzen da ontologia. Era berean, ontologiaren arabera da daukagun autokontzientzia; azken hori izango da gure moralaren oinarria, eta horixe gure jokabidea. “Gure burua zertzat eduki, daukagu mundua, eta zertzat eduki mundua, beharko dugu egin azken finean borroka”. Beraz, lan honetan ere bide hori egingo dugu.

#### 4.1. Epistemologia: tradizioa, intuizio poetikoa, mitoa, parapsikologia.

Miranderen pentsamenduari buruzko sarreran esan dugun bezala, zuberotarraren filosofia antropologia bat da. Zertzat daukagun gure burua, hots, nola ulertzen den gizakia, horren arabera munduaren ezagutza eta mundua izango ditugu. Ikuspegi horretan, bat egiten du Nietzschekin, nahiz eta Nietzschek psikologia hartzen duen oinarri eta Mirandek, berriz, parapsikologia.

---

<sup>43</sup>Azurmendi, op. cit, 1989, 110.

<sup>44</sup>Larrea, op. cit, 1985, 63.

<sup>45</sup>ibídem, 63.

<sup>46</sup>ibídem, 64.

Epistemologia terminoak ezagutzaren teoria esan nahi du; zientzia horrek aztertzen du gizakiok nola ezagutzen dugun, jakintza zer bidetatik eskuratzen dugun, jakintza hori nolakoa den eta zer ziurtasun maila daukan. Gaur egungo jakintza ziur ia bakarra zientziaren eremuko delako pentsatu ohi dugu. Hau da, metodo hipotetiko-deduktiboaren bidez zientziak egiten dituen aurkikuntzak, orokorrean, ez ditugu zalantzan jartzen. Izan ere, gizakia animalia arrazoiduna da, kontzeptuak eratzen ditu, eta mundua edo errealitatea ezagutu dezake arrazoimena behar bezala erabili, eta esperimenduarekin auresandakoa frogatzen badu.

Baina hori noiztik da horrela? Filosofiaren esparruan nola ulertzen da arrazoimenaren nagusitasun hori? Ba al dago arrazoimena ez den beste ezagutza-biderik? Miranderen testuinguru filosofikoa garatzerakoan, ikusi dugu irrazionalismoaren eskolan kokatzen dela haren pentsamendua, eta nola irrazionalismoak krisi bikoitz bati erantzun zion —Antzinako Erregimenarenari eta arrazoimenarenari—. Schopenhauerrek hasi zuen filosofia-eskola hori, Nietzschek jarraipena eman zion eta Mirandek horiengandik eta Spenglerrengandik jaso zituen bere filosofia eratzeko oinarritzko ildoak.

Miranderen epistemologia edo ezagutzaren teoria, beraz, Schopenhauerrek hasi eta Nietzschek segida eman zion irrazionalismoaren bidean kokatu behar da. Pentsalari horien arabera, ezagutza sakonerako bidea ez da adimena, intuizioa baizik. Horrela, tradizio arrazoizaleak markatzen zuen bidetik bereizi, eta bestelako ikuspegi bat garatu zuten, bai gizakia ulertzeari dagokionez, baita natura eta ezagutza aztertzeko moduari dagokionez ere. Mirandek ezagutza sakonerako hainbat bide proposatzen ditu: tradizioa edo mitologia, intuizio naturala, intuizio poetikoa eta parapsikologia.

Tradizioa edo mitologia, Miranderen baitan, herri baten sinesmenen multzoa da, herri edo enda horren mundu ikuskera adierazten du, herri horren psikearen *Arketypen* modukoa da. Horregatik estimatzen du hainbeste Mirandek Barandiaran eta Azkue egiten aritu ziren bilketa-lana. Jon Mirande ohartzen da, kristautasunaren eraginez sinesmen asko galduak, estaliak edo alde batera utziak izan direla. Horren ondorioz, euskal mitologia batek emango ligukeen ezagutza ez daukagu nahi bezain eskuragarri.

Kristautasunak herri-sinesmenak eta tradizioak baztertuta, bada beste bide bat ezagutzarako, Miranderen ustez: intuizio naturala. Pertsona batzuek arauz gaindiko fenomenoak antzemateko edo ikusteko dohain handiagoa dute beste batzuek baino. Dohain hori dutenak ere urritu dira arrazoiaren nagusitasuna dela-eta. Nolanahi ere, bide hori oraindik hor dago, eta egongo da, eta hala erakusten dute euskaldunen zein zelten hainbat kontakizunek. “Lehen hain ugari izanik, gaur egun ia iñork ez badu lamiñik topatzen, hori ez ahal da Ohiturazaleek (Tradiziozaleek) aipu duten «munduaren gotortzeak», munduaren aurreratzeak, ekarritako ondore bat? Egia da Demokrazia eta Atomoaren Fisika ere ekarri dizkigula.... Oro ezin euki dezakegu”.<sup>47</sup>

Hitz horiekin azaltzen du, nola ilustrazioaz geroztik, irrazionalismoa ezarri den, eta alde batera utzi zentzumenez edo adimenez ezagutzen ez den guztia. Hortaz, intuizioa baztertu egin da, eta ez zaio inolako gaitasunik aitortzen ezagutzarako. Dena den, Mirandek

---

<sup>47</sup>MIRANDE, Jon: *Obra osoa*, Hiria, Alegia, 1999, 302.

“Gizalekoreko izateak euskaldunen eta keltren folkloretan” artikuluan zelten eta euskaldunen hainbat sinesmen aipatzen ditu, herri horiek giza lekoreko edo haragoko gizakietan duten sinestearen ingurukoak, besteak beste: “Elezahar horietan bait dago Euskal Endaren egiazko folklorea eta ez bakarrik Fernando Amezketarraren ipuinetan, edo pilota, fandango, mus eta beste baskokerietan. Zoritxarrez, jakingarri aunitz betiereko galdu dugu, beranduegi eman zirelako bilaketa horri euskal-jakintzariak. Behar bada ere, gure nausi tenporal eta izpiritualek indarrez erautsi bide zituzten Euskaldunen gogo-bihotzetatik paganu-usain gehiegi zeukaten herri sinespenak”.<sup>48</sup>

Aipagai dugun artikulua horretan, galestarren, zelten eta euskaldunen folkloretan agertzen diren giza lekorekoen berri ematen du, eta nolabaiteko antzekotasuna ere ikusten du batzuen eta besteen artean. Horrez gainera, Konde Gorriaren istorioa kontatzen du Laminek eta gizakiek zer erlazio duten erakusteko, eta baita, lekoreko gizakiak ikusteko modua edo bidea zein den azaltzeko ere: “Alta egia da: barurak ere, soma eta soinarekiko berjakinza sorgortzen dituelarik, gizona *transa* antzeko egoera batean jar dezake, zenbait aldiz. Orduan, beste Jakintza gorago batez baliatuz, izadi eta gizagaindiko zerak «ikus» ditzake, barne-begiz; ezen, ene irakasle ohi batek nonbait idazten duen bezala «hainbat erizten diogun Mundu ikuskor eta ukikor — hau ez da egiazki bizi den Munduaren errainua, errainu ahuldu bat baizik» (R. Tocquet, in *Les phénomènes physiques de la Métapsychique*)”.<sup>49</sup>

Pasarte horrek agerian uzten du, haragoko munduaren ezagutzarako —goragoko jakintza— egoera berezi batean egon behar dugula. Eta, bistan da, gaur egungo bizimoduak eta mundu ikuskera arrazoizaleak hori guztia zapuztu egiten du. Dena dela, mitoak, tradizioak eta intuizio naturalak indarra galdu arren, bada ezagutzarako beste prozedura bat: intuizio poetikoa. Hori zertan den ulertzeko, Schopenhauerren epistemologia azaldu beharra dago, Miranderen ikuspegiak harreman handia baitu haren epistemologiarekin.

Schopenhauerren arabera, mundua errepresentazioa eta nahimena da. Agertzen dena (*Erscheinung*) irudien munduari dagokio eta kontzeptuen munduaren abiaburu da. Biek, hots, agerpenaren irudiak eta kontzeptuak, osatzen dute errepresentazioa (*Vorsstellung*). Zentzumenen bidez hauteman eta arrazoimenaren bidez ulertzen dugun mundua da errepresentazioa, Kantek fenomeno mundua deiturikoa, hain zuzen. Baina, jakina, agerpenen mundurik bada, haren azpian edo harago dagoen *Ding an sich* edo berbaitango mundua ere bada. Horri Schopenhauerrek nahimena deitzen dio.

Schopenhauerren arabera, guk nahimena ezagutu dezakegu, ez adimenaren bidez, gorputzaren bidez baizik: geu ere gorputza izanik, nahimena gara. “Ezagutzaren subjektuari, zeina bere identitatearen bitartez gorputzarekin individuum gisa agertzen baita, gorputz hori bi era guztiz desberdinetan ematen zaio: behin errepresentazio gisa begiespen adigarrian, objektuen arteko objektu gisa, eta horien legeen mendean; gero berriz aldi berean guztiz bestelako era batean, h. d. bakoitzari bitartegabe ezaguna zaiona bezala, nahimen hitzak izendatzen du. Bere nahimeneko egiazko egintza oro aldi berean eta ezinbestean bere soinaren higidura bat ere bada”.<sup>50</sup> Hortaz, berbaitangoa ezagutzen du subjektuak bere

---

<sup>48</sup>ibídem, 297.

<sup>49</sup>ibídem, 301.

<sup>50</sup>SCHOPENHAUER, Arthur: *Mundua nahimen eta errepresentazio gisa*, Klasikoak bilduma, 1999, \$18.

barnera baitaratzean, baina, horretarako, lehenago esan bezala, egoera berezi batean jarri behar du subjektuak.

Ezagutza zientifikoak ematen digun ezagutza baliagarria da, dudarik gabe, baina espazioan, denboran eta kausalitatearen baitan agertzen den munduaren berri ematen digunez, mundu aldakorra eta askotariko erakusten digu. Aldiz, benetako mundua, barne-barnean den hura —*Ding an sich*— nahimena da: bakarra, osoa, espaziorik eta denborarik gabea. Munduan nahimenak agintzen du, nahimena lehenagokoa eta garrantzitsuagoa baita adimena edo ezagutza baino. Nahimenak bere agintea ezartzen du: aginte itsua da, bere helburua betetzea besterik bilatzen ez duen indarra. Nahimenak berekoikeria eta sufrimendua dakartza; hortik, Schopenhauerren filosofiari darion pesimismoa. Nahimenaren atzaparretatik askatzeko bi bide erakusten ditu Schopenhauerrek: artea eta aszesia.

Labur bada ere, azal dezagun nola lortzen den nahimenetik askatze hori. Schopenhauerrek izatearen hiru maila bereizten ditu: *Ding an sich* —berbaitango izatea edo nahimena—, izatearen forma hutsak eta espazioaren eta denboraren arabera izateak. Nahimena bi urratsetan objektibatzen da: lehenbizikoan, izatearen forma hutsak edo Ideiak sortzen ditu; bigarrenean, forma huts horiek espazioaren eta denboraren baldintzetan sartzen dira, eta orduan, mundu ezagugarriko aniztasuna eta ugaritasuna agertzen da.

Ideiak edo forma hutsak atzemateko bi bide ditugu: kontzeptuak eta intuizioa. Kontzeptuen bitartez, fenomeno munduan geratuko gara, fenomeno mundurako bakarrik balio baitute kontzeptuek. Intuizio poetikoa erabiliz, forma hutsak edo Ideiak atzeman ditzakegu espazioaren, denboraren eta kausalitatearen baldintzarik gabe. Intuizioan, subjektu ezagutzaileak bere buruaz ahaztu behar du, banakotasuna alde batera utzi, eta horrela lortuko du forma hutsetara edo Ideietara iristea.

Honela azaltzen du hori Schopenhauerrek: “Baldin eta, espirituaren indarrak jasorik, gauzak kontsideratzeko ohiko modua alde batera lagata, uzten badio elkarrekiko beren harremanak bilatzeari, zeinen azken helmuga beti nahimen propioarekiko harremana baita, arrazoia printzipioaren taxuaren gidaritzapean, eta gauzen non, noiz, zergatik eta zertarako gehiago kontsideratzen ez badu: baizik zer bakar eta soila; eta pentsamendu abstraktuaz, arrazoimenaren kontzeptuez, kontzientziaz arduratzen ez bada; baizik horren guztiaren orde bere espirituaren ahalmen osoa begiespenari eskaintzen badio, erabat horretan murgildu eta kontzientzia osoa betetzen badu, presenteko objektu naturalaren kontenplazio lasaiaren bitartez, paisaje bat, zuhaitz bat, harkaitz bat, eraikin bat edo beste edozer dela, alemanezko esamolde esanahitsu baten arabera, objektu horretan erabat galtzen bada, bere banakoa, bere nahimena ahaztu eta subjektu huts gisa, objektuaren ispilu klaru bihurtzen bada, halako moldez, non gauzakia bakarrik existituko balitz bezala, hauteman duen inor gabe, eta begieslea begiespenetik berezi ezin bada, baizik biak bat bilakatzen badira, kontzientzia osoa imajina begiesgarri bakar batez beterik badago; horrela objektua bere baitatik kanpoko harreman orotatik, subjektua nahimenarekiko harreman orotatik berezi denean: orduan ezagututakoa ez da gauza partikularra bere horretan; baizik ideia da, forma betikoa, nahimenaren objektibitate bitartegabea maila horretan: eta horrexegatik beragatik ez da banakoa begiespen horretan ulertua; zeren banakoa begiespen

horretan galdu egin baita: baizik ezagutzaren subjektu huts, nahimengabe, mingabe, denboragabea da".<sup>51</sup>

Ez dugu ahaztu behar ideiak ere nahimenaren objektibazioa direla, eta haien azpian edo barnean dagoela benetako izatea, nahimena, hain zuzen. Bada, Schopenhauerrek, nahimenean barneratzeko, ez ditu proposatzen ez kontzeptuak, ez intuizio poetikoa; arte-adierazpen hutsa aukeratzen du: musika. Schopenhauerren ustez, musikak Nahimena bera adierazten du. Ikus dezagun zer dioen arteari, eta, bereziki, musikari buruz *Mundua nahimen eta errepresentazio gisa* hirugarren liburuan: "Nahimenaren objektibazio egokia ideiak (platonikoak) dira; horien ezagutza gauza partikularren aurkezpenaren bitartez (zeren arte-obrak berak beti horrelakoak baitira) kitzikatzea (zeina horri dagokion aldaketaren pean bakarrik baita ahagarri subjektu ezagutzailearengan) da beste arte guztien helburua. Horiek guztiek horrela nahimena bitartedunki objektibatzen dute, hots, ideien bitartez... Musika ez da inola ere beste arteak bezala ideien kopia; baizik nahimenaren beraren kopia, zeinaren objektitatea ere ideiak baitira: horregatik da hain zuzen musikaren efektua hainbat ahaltu eta sarkorragoa beste arteena baino: zeren hauek itzalaz bakarrik mintzo baitira, hura, berriz, esentziaz".<sup>52</sup>

Nietzschek *Die Geburt der Tragödie aus dem Geiste der Musik* ("Tragediaren sorrera musikaren espirituan") lanean ideia bera defendatzen du. Espiritu dionisiakoak, hots, intuizio estetikoak eramaten gaitu berbaitango errealitatea ezagutzera. Geroago ikusiko dugun bezala, Nietzsche Schopenhauerren salbazioaren ideia horretatik urrundu egingo da pentsamenduaren garapenaren ondorioz. Nietzschek onartzen du nahimen itsua: mundua ikaragarria da, baina ez du ez bestelako salbaziorik, ez kontsolamendurik espero. Mundua horrelakoxea da eta halaxe maite dugu: *amor fati* (bizitza den bezala onartzeaz gain, horrekin pozik bat egitea) aldarrikatzen du. Dena den, munduaren funtsa artearen bidez atzemateko aukerari ez zion inoiz erabat uko egin.

Honezkero, Miranderen ezagutza sakonak bi pentsalari horien filosofiarekin zer harreman duen ikusteko moduan gaude. Esate baterako, *Haur besoetako* eleberriko gizonaren jokabideari erreparatzen badiogu, ohartuko gara behin eta berriz jartzen dela lo egoeran eta barne begiz ikusten duela benetako errealitatea; areago, gizonaren hausnarketetan ageriko munduaren igarokortasunaren eta benetako errealitatearen arteko kontrastea etengabe azpimarratzen da. *Zergatik* olerkian ere igarokorrari buruz galdetzen du. Azken finean, zentzurik ez daukan bizitza bat bizi dugu, bizialdi honetan ikusi, egin, ikasi eta sentitu dugun guztia itxura besterik ez baita.

"Nil igitur mors est" poeman, eta "'Nil igitur mors est` poemaren giltza"n areago, argi eta garbi adierazten du Mirandek zer pentsatzen duen soma-gauzei buruz, eta nola errealitatearen barne-barnera iristeko, hots, benetako ezagutzarako, egoera berezi batean egon behar den, *nonbaita* eta *noizbaita* alde batera utzita, alegia: "Poetak aldiz uzten du, gezurrezko jorik, nonbaita eta noizbaita dauzkan mundu-ezagutu hori...".<sup>53</sup>

---

<sup>51</sup>ibidem, §34.

<sup>52</sup>ibidem, §58.

<sup>53</sup>MIRANDE, Jon: *Poemak 1950-1966*, Erein, Donostia, 1984, 97.

Jon Mirandek zentzumenen eta adimenaren munduaren funts gabezia agerian jartzen du “Nil igitur mors est` poemaren giltza” testuan, eta, horrekin batera, noski, Nietzscheren *Über Wahrheit und Lüge im aussermoralischen Sinne* (“Egiaz eta gezurrez zentzu ez-moralean”) idatzi laburra gogorarazten duen hizkuntzaren kritika bat egiten du. Jakina, egiara iristeko hizkuntzaren balioa auzitan jartzearekin, adimen bidezko ustezko ezagutza da kritikatzeko duena. Nolanahi ere, aurrerago aztertuko dugu hizkuntzaren filosofiaren atal hori.

Hauxe dio du Joxe Azurmendik poemaren giltzari buruz: “Iruzkinak erakusten digunez, aurretik esateko, zer-izanaren bi maila berezten da: agerikoa, fenomenoena, eta barneko ezkutua, egiazko errealitate betierekoarena. Eta ezagupide horretan poetak daraman prozesuan, orobat, hiru maila edo aldi berezi behar dira: zentzuena edo enpirikoa, kontzeptuena edo intelektuala, eta intuizioarena azkenik, sakontasun osora iristen dena”.<sup>54</sup> Eta poetak, ezagutza sakon hori eskuratzen duenean, honako hau diosku: “Poetak ediren du egia handi hau azkenekotz. Segurrean badaki oixtion ikusten zituenak oro bere gogoaren amets bat zirela soilik, izaterik gabeko. Atsegin batean dago, lorrezko amets hartarik askaturik eta egiazko izatea beraren baitan aurkiturik”.<sup>55</sup>

Ikusi dugunez, hiru ezagutza mailetan lehenbizikoan, ezagutza arrunta deitzen duguna sartzen da; bigarrenean, poeta ohartuko da gauzak ez direla irudi hutsa —bai, ordea, igarokorrak— eta heriotza eta desagerpena dutela xede; hirugarren mailara edo intuizio poetikoaren mailara iristean, poeta konturatuko da ustez errealitatea zena itxura besterik ez dela, eta etorkizuneko desagertzea bera ere itxura dela: “Orduan balakikete iduritze, bat direla mundua eta munduan izatea, eta hil-beldurra joan lakieke, iduripen baten herioa bera ere iduripena bait da”.<sup>56</sup>

Hirugarren maila hori nola erdiesten den ikusten da honako pasartean: “Poeta, gogoetatuaren ariaz, jartzen da emeki emeki lo-antzeko egoera berezi batean, Okkultisten «bigarren egoera», orduan bait dago gizarima bere egiazko izanean. Sorgortzen zaizkio atzaraldiko Oroimena eta Adimena —German zaharren sinestean, norbait— den Jainkoaren bi bele hegazu zaindariak bai eta ahaztutzen du bi men hoiek gogoratzen zioten gauza guzien hil-behar hura”.<sup>57</sup> Hala, arimara edo munduaren benetako izatera iristeko, beharrezkoa da gorputzaren eragina murriztea eta baita adimena zein oroimena lausotzea ere. Orduan egongo da giza arima bere benetako izatean. Horrek guztiak, bistan denez, Schopenhauerren epistemologia gogorarazten du.

Bukatzeko, ezagutzarako beste bide bat aipatzen du Mirandek “Jakintza berri bat: Psikologi gaidikoa” artikulu luzean. Ontologiako atalean gehixeago zehaztuko dugu, baina, oraingoz, esan dezagun, Miranderen ustez, sorginak *mediumtasunerako* dohain bereziko izakiak zirela. Mirandek ez ditu asmakeriatzat hartzen herritarrek laminei eta sorginei buruz esaten dituztenak: *mirariak* egiten dituztela, gertakizunak igarri, urrunetik eragin eta abar. Aitzitik, psikologiaz gaidikoa deituriko zientzia berriak azaldu ahalko du arauz gaidiko fenomeno horietan zer gertatzen zen. Garbi dagoena da *transan* dagoenak egoera arrunt batean ezagutu ezin ditugunak jakiteko ahalmena duela. Aipatutako artikuluan, honela

<sup>54</sup> Azurmendi, op. cit, 1989, 27.

<sup>55</sup> Mirande, op. cit, 1984, 96.

<sup>56</sup> Mirande, op. cit, 1984, 97.

<sup>57</sup> Mirande, op. cit, 1984, 96.



azaltzen du Mirandek berak: “Hona egitan zer den medium bat: araugaindiko fenomenuak maiz xamar ekartzen dituen gizaki bat”<sup>58</sup>. Eta pixka bat aurrerago: “Fenomenuok erakutsi iduri dute, ukigaiak ezaxolatzen garen aldi guziz geratu eta den guzia batetan garela, medium, transaratua bezala. Zer du mediumak guk baino gehiago? Guk baino berjakintza-lekoretiko sail haundiago bat berjakintzara dezake, deus ez besterik”<sup>59</sup>.

#### 4. 2. *Nil igitur mors est* eta hizkuntzaren filosofia

Ezagutzaren teoriaren atalean aipatu dugun bezala, “*Nil igitur mors est*” poemaren giltza”n Mirandek ematen duen azalpena oso interesgarria da, ezagutzaren inguruko auziak argitzeaz gain, hizkuntzaz duen ikusmoldea ere azaltzen baitigu. Azurmendik dio euskal pentsalarien artean Mirande dugula hizkuntzaren filosofia bat duen lehena; beraz, testu hori kontuan hartzekoa da, zalantzarik gabe. Ikus dezagun hizkuntzari buruz filosofiaren historian zehar pentsalariak zer nolako ideiak izan dituzten.

Presokratikoen eta beste hainbat pentsalari greziarren hizkuntza eta arazoimena parekatu egin zituzten. Gizakiaren ahotik —gizakia arrazoiduna eta hitzuna izaki— unibertsoak hitz egiten zuen: hizkuntza *logos*aren une bat zen edo *logosa* bera. Azken batean, antzinateko pentsalarien ustez hizkuntza errealitatearen zati bat zen.

Sofistek hizkuntzaz egindako azterketa nagusiak honako arazo honi buruzkoak izan ziren: hitzak hitzarmenezkoak edo naturalak ote ziren. Bi aukera daude orokorrean: gauzen izenak berez dagozkie errealitateko objektuei edo, aitzitik, konbentzio hutsa dira eta gauzek edozein izen izan dezakete. Jarrera bakoitzak hainbat ondorio eta beste hainbeste arazo sortzen ditu.

Aristotelesek eta estoikoek, hizkuntzaz eta errealitateaz gain, beste elementu bat sartzen dute hizkuntzaren hausnarketan: kontzeptua edo nozioa —kontzeptu mentala zein kontzeptu logikoa—. Zer galdera sortuko dira horien bueltan? Bada, hizkuntza-adierazpenen eta kontzeptu mentalen arteko harremanari buruzkoak, batetik, eta, bestetik, bi horien eta errealitatearen arteko erlazioari buruzkoak. Ikusten denez, arazoak ez dira gramatikal hutsak izango, errealitatearen izaerari ere egingo baitiote erreferentzia.

Erdi Aroan zehar ere ez da hizkuntzaren filosofia-diziplinarik izango, baina hizkuntzaren gaineko zenbait azterketa egingo da, bereziki, logikaren esparruan. Halere, Erdi Aro osoan iraungo duen eztabaida dugu unibertsalena deitutakoa: unibertsalak errealitatean existitzen ote diren edo errealitatea izendatzeko tresna mental diren.

Aro Modernoan agertzen da hizkuntzaren filosofia, azkenean, filosofiaren baitan aparteko atal gisa. Garai honetan, betiere modu orokorrean hitz eginez, bi jarrera nagusi bereizten ahal ditugu: arrazionalistena eta enpiristena. Lehenbizikoek —horietako asko, gainera, errealistak izan ziren unibertsalen auzian—, konfiantza handia dutenez hizkuntzan,

---

<sup>58</sup>Mirande, op. cit, 1999, 373.

<sup>59</sup>ibídem, 373.

oso gutxitan hartzen dute hizkuntzarena aztergai berezi gisa. Bigarrenek, ordea, hizkuntzarekiko mesfidatiago, sakon aztertu zuten hizkuntzaren arazoa. Horien ustez, hizkuntza pentsamenduaren tresna nagusia da, baina, era berean, etengabeko kritika egin behar zaio hark jartzen dizkigun tranpak saihesteko. Enpiristek salatutako hizkuntzaren amarru nagusia da sinestea termino edo hizkuntza-adierazpenak berekin dakarrela errealitatean baden izate bat.

Esan bezala, Mirande dugu euskal pentsalarien artean hizkuntzaren filosofia propio bat duen lehenbizikoa. “Nil igitur mors est` poemaren giltza”n, argiki azaltzen du zer pentsatzen duen hizkuntzari buruz: “Itzaltzen dire buruan zerabilzkin pentsa hitzak: gauzak ulertu nahiz ematen dizkiegun izenak. Uste baitugu, izena jakinez gero, gauzaren izana ere ezagutzen dugula... Baina egiatan, gure ezagutza oro hitz-keta bat baizik ez da eta ezere ez digu ustea zilegi egiten, hitz hoiien atzean izan ere zer bait badela”.<sup>60</sup>

Pasarte horretan irakurtzen dugunak Nietzscheren *Über Wahrheit und Lüge in aussermoralische Sinne* (“Egia eta gezurrei buruz zentzu ez-moralean”) idatzi laburra ekartzen digu gogora, eta pentsarazten, era berean, alemaniarren eragin zuzena egon dela zuberotarrarengan. Izan ere, pasarte horretan hizkuntzari buruz aipatzen dituen eragozpen berberak garatzen ditu Nietzschek testuan: hizkuntzak benetako ezagutzarekin inolako zerikusirik ez du; areago, hitzen edo pentsamenduen eragile den errealitaterik ez dago, bi alor ezberdinetakoak baitira subjektua eta objektua. Ikus dezagun nola azaltzen duen hori Nietzschek.

Gizakiak metaforak sortzeko bulkada du, beharrezko zaio hori. Horrela, ordenarik eta antolamendurik gabeko munduaren gainean, mundu berri arautu bat sortzen du: zientziarena eta kontzeptuena. Baina, funtsean, adimena iruzurgile hutsa izaki, engainua du ekintza nagusi: “Adimenak, zeina indibiduoaren biziraupenerako bidea baita, bere indar nagusia itxurakerian gauzatzen du, hori baita izakirik ahulenak eta eskasena duen bidea bizirauteko”.<sup>61</sup> Ondoren, Egia zer den galdetzen du Nietzschek, eta hona hemen erantzuna: egia gizarteak hitzarmenez ontzat eman duena da, eta gezurra kaltegarri jotzen duena. Gizakiari ezagutza ez zaio axola, eta berarentzat ona dena hartzen du egiazat, hizkuntza-hitzarmen horiek ez baitagozkie gauzei: hitzak ez dira egokiak errealitatea ezagutzeko. Izan ere, zer da hitz bat? “Nerbio-kitzikadura bat soinueta itzulia. Nerbio-kitzikadura batetik, ordea, gugandik kanpoko kausa bat ondorioztatzea arrazoiaren printzipioa oker eta justifikatu gabe aplikatzea da”.<sup>62</sup> Finean, hitzen sorreran bi metafora daude, eta bietan esparru batetik bestera egiten da jauzi: lehenbizikoa da nerbio-kitzikaduraren ondorioz eragiten den buru-irudia, eta bigarrena, irudi horrek sortzen duen soinua.

Hori guztia aski ez eta, hitzetatik abiatuta, kontzeptuak sortzen ditu gizakiak. Hitzak kontzeptu bihurtzen dira, beren jatorria —soinu bihurtutako nerbio-kitzikadura bat—

<sup>60</sup>Mirande, op. cit., 1984, 96.

<sup>61</sup>NIETZSCHE, Friedrich: *Über Wahrheit und Lüge im aussermoralischen Sinne*, aus dem Nachlass 1. 1873, sarean hartua, 1. Der Intellekt, als ein Mittel zur Erhaltung des Individuums, entfaltet seine Hauptkräfte in der Verstellung; denn diese ist das Mittel, durch das die schwächeren, weniger robusten Individuen sich erhalten.

<sup>62</sup>ibídem, 2. Die Abbildung eines Nervenreizes in Lauten. Von dem Nervenreiz aber weiterzuschließen auf eine Ursache außer uns, ist bereits das Resultat einer falschen und unberechtigten Anwendung des Satzes vom Grunde.

ahaztuta, antzekoak diren hainbat gauza izendatzeko erabiltzen direnean; berdin-berdinak ez diren gauzak berdinuz sortzen dira, beraz, kontzeptuak. Kontzeptuetatik ateratzen den ondorio nagusia hauxe da: naturan badirela gauzen eredu diren errealitateak, eta kontzeptuen bitartez horiek izendatzen eta ezagutzen ditugula. Nolanahi ere, den bakarra banakoa da, eta banako hori, Nietzschek X deitzen duena, ez dugu ezagutzen, ez eta hizkuntzaren bidez izendatzen ere. Egia metafora, metonimia eta antropomorfismo sorta bat dela dio Nietzschek, erabiliaren erabiliaz, ziur, kanoniko eta beharrezko jotzen dena: "Egia ilusio hutsa da, eta ahaztu dugu egia metaforak direla, irudia eta esan-indarra galdu duten txanponak, irudia galdu dutenez metal gisa hartzen ditugunak, ez berriz txanpon gisa".<sup>63</sup>

Honela azaltzen du Azurmendik Nietzschek hizkuntzari leporatzen dion ezintasun nagusia: "Hau da, gizonak errealitatean aurkitzen duen guztia, aurretik berak han bere kondizioekin jarri duena bakarrik da, beste ezer ez. Eta ezin izan daiteke bestela, 'egiazko' pertzepziorik ez dagoelako, egon, hots, gizonarena ez delako berez intsektuaren edo txoriaren pertzezioa baino objektiboago".<sup>64</sup> Egiazko pertzeptziorik —objektuaren adierazpen egokia subjektuagan— ez da posible; kontraesan zentzugabea esan nahiko luke. Kontuan izan behar da, subjektua eta objektua bi esfera zeharo desberdinetakoak izanik, haien artean ez dagoela ez kausaliterik, ez zuzentasunik, ez adierazpenik.

Hori irakurrita ulertzen dugu Miranderen testuan poeta izatea egia aurkitzen duena eta ez jakintsua edo zientzialaria. Areago, egia bere baitan aurkitzen du, ez beregandik kanpo: "Bere baitaratu da, egia aurkitu du bere baitan ... badantzu bere baitan hizlari ez bere goiko edo kanpoko Jaun Egile bat, baizik bera ere den Arima orokorra".<sup>65</sup> Gauzen barru-barrura iristeko, beharrezkoa izango da adimena eta oroimena lo egoera batean jartzea, poetak egiten duen bezala: "Gero eta murgiltzenago da olerkaria bigarren egoera hortan, gero eta bake ta bozkario handiagotan dagoela. Bere baitaratu da, egia aurkitu du bere baitan. Erdainatzen ditu orain aztertzen ohi zituen asmalari sakonen lanegin eta iritzi ezberdin guziak: bazebiltzan, bakoitza bere bidetik munduaren arauen bila; baina munduaren ezagutza aizun izaki, arauok ere aizun izan behar...".<sup>66</sup>

"Nil igitur mors est" olerkiak eta olerkiaren azalpenak ezin hobeki azaltzen dute Miranderen pentsamendua. Azurmendik dio filosofiaren historiaren gainbegiratu bat ere egiten duela poemaren inguruko azalpenean: "Lehenengo maila, zentzuen errealismoarena, antzinateaz geroztiko filosofia guztia, Descartesen zalantzak hersten duena, baina azkenean errealismoa berriro onartzeko zalantzaren ondoren. Bigarren maila kantismoari legokioke: gauzak, zentzuen objektua, badira, bai, baina fenomeno hutsa dira eta igarokorrak. Kanten *halere* Jainkoa salbatzeko ahalegin filosofikoa alferrrikako lantzat ematen da, halaxe ematen bait zuen Schopenhauerrek ere. Hirugarren mailan Schopenhauer eta batez ere Nietzschez geroztiko filosofia agertzen zaigu, Miranderen orobat".<sup>67</sup>

Ikusten dugu garai bakoitzeko pentsalariak errealitatea nola ulertzen zuten azaltzen

<sup>63</sup>ibídem, 3. Die Wahrheiten sind Illusionen, von denen man vergessen hat, daß sie welche sind, Metaphern, die abgenutzt und sinnlich kraftlos geworden sind, Münzen, die ihr Bild verloren haben und nun als Metall, nicht mehr als Münzen, in Betracht kommen.

<sup>64</sup>Azurmendi, op. cit, 1989, 32.

<sup>65</sup>Mirande, op. cit, 1984, 97.

<sup>66</sup>ibídem, 97.

<sup>67</sup>Azurmendi, op. cit, 1989, 29.

duela historia horrek. Hasieran, errealismoaren garaian, gizakiak uste osoa du ezagutzen duen horretan, hau da, berak ezagutzen duen bezalakoa dela mundua. Gerora, zalantzak sortzen dira eta, munduaren izatea kolokan jartzen ez bada ere, gizakiarentzat errealitatea harrapaezina eta igarokorra bilakatuko da; idealismoaren garaia dugu hori. Azkenik, mundu hori ez dela benetakoa ohartuko dira Nietzschez geroztiko filosofoak eta baita Miranderen poeta ere: “Segurrean badaki oixtion ikusten zituenak oro bere gogoaren amets bat zirela soilik, izaterik gabeko”.<sup>68</sup> Hortik aurrera, ez dago ez zalantzarik, ez eta hil beharrak eragiten duen eritasunik ere, nahiz eta poetak badakien gizaki gehienek bestelako jarrera dutela: “Gizon gehienek ordea diote munduko biziari, beren mundutar nortasunari, ardua oro eman, eritasun bat baizik ez duten arren delako bizi hori, hil-beharra berarekin ekarki. Behin ere ez dire beren baitaratzen ezagun ahal lezaten berak eta oro den Arima, hau da, Egia bakarra”<sup>69</sup>.

“Nil igitur mors est” olerkiaren iruzkinari buruz ari garela, Mirandek egiten duen hizkuntzaren kritika aipatu dugu lehenbizi; bigarrenik, errealitatea nola ulertzen duen eta ondorio horretara iristeko zer bide egin behar izan den pentsamenduaren historian; hirugarrenik, Batasuna edo Oro den guztia ezagutzeko bidea erakusten du Mirandek: “Poeta, gogoetatuaren ariaz, jartzen da emeki emeki lo-antzeko egoera berezi batean, Okkultisten «bigarren egoera»”.<sup>70</sup> Garbi geratzen zaigu adimena, hitzak eta kontzeptuak ez direla deus Egia ezagutzeko orduan. Horiek eguneroko bizitza arrunteko gertakizunak antolatu eta gizakiari lasaitasuna emateko besterik ez dute balio. Esan digu Nietzschek adimenaren eginkizun nagusia engainua, iruzurra eta asmakeria dela, eta adimena dela, beste animalia batzuek atzaparrak dituzten bezala, gizakiak bere burua babesteko eta iraunarazteko duen tresna.

“Nil igitur mors est” olerkia eta olerkiaren iruzkina hizkuntzari, errealitateari eta ezagutzari buruzkoak dira. Mirandek garbi erakusten du aldakorrari buruzko ezagutza guztia faltsua dela; guretzat arau hautsezinak direnak asmakizun hutsak direla, munduan moldatzeko eginak. Hori horrela, zer geratzen zaigu? Artea, esango du Schopenhauerrek; bizitza bera, Nietzschek. Eta Mirandek? Nik uste dut Miranderen proposamenak aurreko bi horiekin baduela zerikusia, poeta, artista baita egiaren ezagutzailea. Era berean, gizartean ezarrita dauden arauak ez ditu aintzakotzat hartzen, eta ez gizarteko bizitza arruntak egiten dituen eskakizunei kasurik egin ere. .

#### 4. 3. Ontologia: Oro den Izatea, Arima, Batasuna

Mirandek munduaz, arimaz eta jainkoez zer pentsatzen zuen, nagusiki, bi olerkitan eta artikulu batean azaltzen du: “Otso” eta “Orziren ttuntuna” olerkietan eta “Jakintza berri bat: Psikologi gairikoa” artikuluan. “Otso” olerkian, izaki guztien Batasuna aldarrikatzen du, eta “Orziren ttuntuna”n, berriz, den guztiaren sorrera nola gertatzen den azaltzen du, metaforikoki. “Jakintza berri bat: Psikologi gairikoa” artikuluan ukigaiak gairikoa fenomenoek eta Arimaz ariko zaigu. Bi olerki horietan eta artikuluan agertzen den pentsamendua *Haur besoetako* eleberrian ere garatzen du protagonistaren etengabeko

---

<sup>68</sup> Mirande, op. cit, 1984, 97.

<sup>69</sup> ibidem, 97.

<sup>70</sup> ibidem, 96.

barne elkarrizketaren bidez.

Ontologiaz ari zenean, Aristotelesek Lehenbiziko filosofia terminoa erabili zuen. Gerora, metafisika hitza erabiliko da, eta, funtsean, Izateari buruzko jakintza dela esan daiteke. Nolanahi ere, Izate hori aztertzeko momentuan bi ikergai ditugu. Batetik, "Izatea izatea den heinean"; kasu horretan, Izatea orokortasun osoan hartzen da, kontuan izan gabe nolako izatea den. Bestetik, Izatea izate nagusi den aldetik, hau da, Izate nagusi horren menpeko dira beste izate guztiak eta, hortaz, Izate hori hedaturaz aurrekoa baino txikiagoa bada ere, oinarrizkoagoa da. Mendebaldeko tradizioan, Izate nagusi horri Jainkoa esan zaio.

Esan bezala, ontologia Izateaz ari den jakintzagaia da, baden guztiaz hausnartzen duen pentsamendua. Baina Izatearen aztergaiari gagozkiola, izatea pentsa daiteke Izate gorenik gabe, hots, pentsa dezakegu den guztia Izate bakarraren eta beraren zati dela. Ikuspegi horren arabera, ez legoke Jainko sortzailerik, ez unibertsoaren zentzurik, ez inolako gidaritzarik, ez izateko arrazoirik edo justifikaziorik. Miranderen idatziei darian ontologia, inolako dudarik gabe, Jainko gorenik gabeko pentsamendua da: "Schopenhauerren eta Nietzscheren filosofia horixe da: mundua eta historia zeharo Jainko gabe, inolako jainko gabe, pentsatzeko saio bat, gizaki huts-hutsarekin".<sup>71</sup> Horixe bera erakutsiko digu Mirandek aipatutako olerkietan.

Kontuan izan behar dugu Jainkoa edo Izate gorenaren auzia funtsezkoa dela mundua, historia, gizartea eta bizitza ulertzeko orduan. Izan ere, Jainkoaren inguruko eztabaidak, erlijioa ez ezik, morala, zientzia, kultura eta historia ere hartzen ditu bete-betean. Jainkorik bada, unibertsoak badu zentzurik, izateko arrazoirik eta norabiderik. Aitzitik, Jainkorik gabeko mundua pentsatzen badugu, unibertsoak, historiak eta kulturak ez dute norabiderik, "destino itsu tragikoa" besterik ez dago —Schopenhauerrek munduan zer zoritxar eta min dagoen ikusita, ondorioztatzen du mundua ezin dela Jainko guztiz onaren lana izan, eta, ondorioz, edo deabrukeria bat da edo ez dago Jainkorik—. "Puntu batek segurua dirudi Miranderen mundu-ikuskeran, oinarrizkoa bait da puntu hori: dena bat da, eta bataren konprenitzeko abiapuntua ni neu. Alegia, izatea edo baden guztia, joera dago gure kulturetan tradizionaliki, elementu diferentetan bakarrik ez, elementu elkarren kontrariotan erdibitu eta berezteko. Anizkorra eta miresgarriro aberatsa baino lehen, gure irudian, mundua bi da, gure unibertsoa dualista da: arima/gorputza, izpiritua/materia, denbora/eternitatea, mundua/Jainkoa. Kontrario modu guztiokin, eta mundua ulertzeko guk bikoiztasun horiekin dihardugula gure kulturen, funtsean, gero, nahi dena esan, gertatzen da, gure mundu hau badagoela, bai, eta gainean, askoz hobea, gizakiak menperatzen eta kontrolatzen ez duena. Gurea denboraren eta historiaren mundua da, jaio eta hiltzearena, kreaturarena, eta abar, anizkorra eta aldakorra, beti jarioan: bestea eternoa da, Ideien mundua, beti egonean iraunkorki berdina, ongi eta gaizkiaren nahasketa gabekoa, betegina. Unibertsoa —mundua, alegia: historia, giza bizitza eta destinoa, moralitasuna— pentsatzeko eskema hori izan zen Mirandek errotik erauzi eta hastandu nahi izan zuena".<sup>72</sup>

Jainkorik gabeko mundu hori, *Jainkoa hil da* aldarrikatzen duen pentsamendua, nagusiki, Nietzscheren eskutik egin zen ezaguna, nahiz eta, esan bezala, Schopenhauer izan zen hori lehenbizikoz esan zuena. Pentsatzekoa da Mirandek Nietzscherengandik jaso zuela

---

<sup>71</sup>Azurmendi, op. cit, 1989, 51.

<sup>72</sup>Azurmendi, op. cit., 1989, 58.

munduari eta Jainkoari buruzko kontzepzio hori, bai baitakigu haren irakurle eta miresle izateaz gain, testu batzuk itzuli ere egin zizkiola.

Mirandek "Otso" poeman argi azaltzen du Dena bat dela, hau da, Izatea Batasuna dela, eta jatorrizko bekatutzat du izate horien artean bikoiztasuna ezartzea. Gauzak garbi azaltzeko, poema horri giltza edo azalpena gehitu zion. Hona zer dioen "Otso" olerkiari buruz lagun bati idatzitako eskutitzean: "Poemaren atzean uste metaphysiko haur ba da: izaiki bat dela, oso bat dela Gaia eta gogoa, irazaidia eta irazilea, ez-iainkoak eta iainkoak zer beraren modalitate batzu baizik ez dira beraz. Zer hori da, funtsean, egiazko izaiki bakharra: batarzuna da. Batharzunga bikoiztu du gizonaren adimenak: munduan ba dela 'irazaidi' bat (kreazone) ba dela uste ukhan du. Dualismo hori gezurrezko da, gaizkia da. Hortan datza gizon-adimenaren bekhata. Gizonak bekhatu hori ordaint dezantzat, izaiki bakharrak ( h.d. batarzuna edo iainkoa edo oro) nahi du, hots, gizonaren hilopha nahi du".<sup>73</sup>

Eskutitzaren zati horretan ezin hobeto agertzen da nola ulertzen duen Batasun hori, Izate bakar edo Oro den hori. Ez dago kreaizailea eta kreaioa bereizten dituen bi izate motarik; bikoiztasun hori giza adimenak sortu du, eta hori da gizakiak ordaindu behar duen bekatua. Beste izakiak ez dira gizakia bezain hobendun, ez baitira hainbeste urrundu Lehen Batasun horretatik. Nolanahi ere, Mirandek erakutsi nahi izan du "irazaiki guztiak bai gizonak bai abereak beretik dathortzela".<sup>74</sup> Kreaio guztia izankide denez, denek parte hartuko dute gizakiaren hilopha: "Zuhainek dute bahitzen eta otsoen ausiketara biratzen", dio zuberotarrak. Bukaeran esaten du poemako gizona sinbolikoa dela, baina hura hil ondoren, ikuspegia irauli (*Weltanschauung*) eta gezurra desegin ondoren, Batasuna, Oro berriz da, eta ez da gehiago borrokarik.

Baina zer harreman du Oro den horrek eguneroko munduko bizitzarekin? Honela azaltzen digu "Nil igitur mors est` poemaren giltza": "Zer garrantzi dauka bere «gizakideek» amets zaharraren irauteak bizitze eta hiltze badelako sineskerian? Bere haiekiko har-emanak ere iduripen hutsa direla ta...".<sup>75</sup> Bada, Miranderen ustez, zentzumenek erakusten diguten mundua eta adimenak ulertarazten diguna itxurazkoa besterik ez da, irudipen bat, benetakoa ez den agerpen bat. Aitzitik, intuizio bidez edo norberaren barrura baitaratzearen bidez ezagutzen dugu munduaren barne-barneko Izatea. Eta errealitate hori da funtsa, Oro den Izatea, Schopenhauerrek nahimena, Nietzschek botere-nahimena eta Mirandek Arima deitua.

Nietzscheren filosofiaren arabera, tragedia greziarrean, sen artistiko dionisiakoaren bidez, Lehen Izatea edo Arima, guztiaren oinarria, ezagutzen dugu. Epistemologian ikusi dugun bezala, Mirandek ere ezagutza sakonerako antzeko bideak proposatzen ditu: intuizio poetikoa, mozkorraldia, kontenplazioa, mitoa; hitz batean, gorputza sorgortu, norbere buruaz ahaztu, eta barru-barruko hori ikusi.

Schopenhauerrek *Die Welt als Wille und Vorstellung* ("Mundua nahimen eta errepresentazio gisa") lanean Izatea zer den eta nola ezagutzen dugun azaltzen digu.

---

<sup>73</sup>Mirande, op. cit, 1984, 111.

<sup>74</sup>ibídem, 111.

<sup>75</sup>ibídem, 97.

Izenburuan garbi agertzen den moduan, bi gauza horiek da mundua: mundua, batetik, errepresentazioa da, eta, bestetik, nahimena. Errepresentazioa da arrazoiaren bidez ezagutzen duguna —Kantek fenomeno deitu zuena—, hau da, espazioaren, denboraren eta kausalitatearen kategoriak erabilia, munduaren errepresentazioa daukagu. Nahimena, berriz, *Ding an sich* edo berbaitangoa, izatea berez eta beretzat, hots, izatez den hori, fenomeno guztiaren funtsa edo zerizana —*noumena*—. Laburbilduz, gure arrazoiak eta zientziak azaldutakoa errepresentazioa da; berbaitangoa, aldiz, nahimena da. Epistemologian ikusi dugun bezala, berbaitango hori ezagutzeko abiapuntua norbera da, gorputza, alegia; izan ere, gorputza nahimena da, eta bitartekorik gabe, intuizioz, ezagutu dezakegu, gainera.

Horrela bada, Schopenhauerrek dio, ezagutza sakonaren prozesuan, subjektuak eta objektuak bat egiten dutela. Intuizioan, ezagutzailea subjektu huts bilakatzen da, eta hala, objektuaren ispilu bihurtzen. Objektua, berriz, Ideia huts bihurtzen da. Biak ala biak nahimena direnez, esan daiteke, ikuspegi horren arabera, nahimena dela bere burua ezagutzen duena. Nola gertatzen da hori, baina? Subjektu ezagutzaileak subjektu partikular izateari uko egin behar dio, gauzak ikusteko modua aldatu behar du, fenomenotasuna utzi, eta, beraz, non, noiz, zergatik eta zertarakoak kontuan ez hartu. Beste modu batera esanda, norbere nahimena ahaztu behar da objektuaren ispilu bilakatzeko. Hori da intuizio bidezko ezagutza sakona, eta horrela egiten dute bat subjektuak eta objektuak. Gainera, epistemologian ikusi dugun bezala, bide hori erakusten du Schopenhauerrek —intuizio poetikoan subjektuak eta objektuak bat egitea— nahimenaren agintetik askatzeko, eta, ondorioz, sufrimenduaren kontsolagarri.

Nola agertzen da hori Miranderen testuetan? Gorputzaren sorgortasuna aldarrikatzen duenean, norbere buruaz ahazteko esaten ari zaigu, eta, horrela, bere baitan aurkitzen du Miranderen poetak Arima, Oro den izatea: “*Mediuma transan dagoela, bere gorputzaz, bere berjakintzaz ezaxolatzen da. Orduan bere berjakintza-lekoreko izanen da, eta bera eta oro batetan izaki, den guztia badaki: horregatik da garbi ikusle edo araugaindiko ezagutzale [...]. Esan dezakegu nornahi, medium ez izanik ere, bere gorputzaz eta azaleko nortasunaz ezaxolatzen delarik, bere egiazko nortasunera bihurtzen dela, gogo-hutsezko izanean: hala nola lo dagoelarik*”.<sup>76</sup>

Nietzschekek Schopenhauerrengandik hartu zuen Lehen Izatearen, hots, nahimenaren ideia hori, baina aldaketa txiki batekin: bere burua ezagutzen duen horri, dena den Batasun horri, botere-nahimena deitzen dio. Botere-nahimena, Schopenhauerren nahimena bezala, itsua da: ez du ez zentzurik, ez helbururik; ez da ez bidezkoa, ez bidegabea; natura osoan eta izaki guztietan agintzen du eta dago; den guztia da eta ez dago besterik deus ere. Ikuspegi horren guztiaren ondorio dugu Schopenhauerren filosofiari darion pesimismo tragikoa. Bizitza nahigabea da, eta nahimena itsua; nahimenak beti agintzen du, erabaki eta jokabide asko gure adimenaren ondorio iruditzen zaizkigun arren. Bi bide ikusten ditu Schopenhauerrek, epistemologian ikusi bezala, nahimen horri ihes egin eta bizitza den nahigabe eta sufrimenduari itzuri egiteko: aszesia eta artea.

Aitzitik, Nietzscheren artista edo Miranderen poeta atsegin betean daude beren banakotasuna ahaztu eta benetako Izatean barneratzen direnean. Ez dago pesimismorik:

---

<sup>76</sup>Mirande, op.cit, 1999, 372.

jatorrizko Batasunera itzultzea proposatzen du Mirandek eta *amor fati* edo bizitzaren baieztapen erabatekoa Nietzschek. Horrela ulertzen dugu nola heroi tragikoa pozez doan heriotzara eta *Haur besoetakoa* eleberriko Theresa eta gizona ere pozarren doazen Gazteen Lur irrikatura: “Atsegin betean dago, lorrezko amets hartarik askaturik eta egiazko Izatea beraren baitan aurkiturik”.<sup>77</sup> Behin hori esanda, zuberotarrak beste ekarpen bat egiten du “Jakintza berri bat: Psikologi gaindikoa” artikuluan: izatea ez da bakarrik materiala edo ukigaia; ukigaiak gaindiko, petiko eta lekoreko izateak ere badira, nahiz eta, esan bezala, funtsean dena Izate bat bera den. Artikulu horretan, hainbat gertakizun edo fenomeno harrigarri aztertzen ditu: zer izan ziren, zer azalpen eman izan diren, zer zailtasun dagoen horiek ulertzeko eta abar. Nolanahi ere, adibide horiekin guztiekin agerian jarri nahi du, batetik, dena ez dela materia, eta, bestetik, psikologiaz gaindiko zientziaren bidez, orain arte ulertu gabeko hainbat arauz gaindiko fenomeno azaldu ahal izango direla.

Artikulu horren azkeneko atala ondorio batzuk ateratzeko baliatzen du, baina nagusia hauxe da: “izaki gaindikoetan sinestea ez da txorakeria”. Aurrerago hauxe dio: “Psikologi gaindikoak gizagaindi eta petiko izakien auzia berpizten du”. Noski, segidan, arimaren inguruko galdera egiten du: “Arima badea izan?” Eta erantzuna: “Orain badirudi fenomenuok —gogobarrukoek nahiz gogo-lekorekoek— gogo hutsezko ‘zerbait` badela egiaztatzen dutela, ukigaiaren laguntza gabe (araugiandiko ezagutzan) eta ukigaitan beretan (asmo-eralgintzan) ari ditekeena; zerbait horri, nahi dutenek ‘Arima` esan diezaiokete”.<sup>78</sup>

Horiek horrela, beharbada, arima hitza nahasgarri gertatzen ahal zaigu. Izan ere, norberarena den arima bakar eta bakoitza daukagu (antropologiari buruzko atalean aztertuko dugu), eta, bestalde, lehenago esan bezala, Oro dena, Arima hizki larriz, Izaki guztien Batasuna, Izatea bera. Bigarren horri buruz ari garela, honako galdera hau sortzen zaigu: nola agertzen dira banako izaki guztiak dena Bat den horretatik? Gustave Geleyren esanak hartzen ditu oinarri Mirandek: “Gogo hutsak (Lehenengo Batasuna) erarik edo mugarik ez du, ez eta berjakintzarik ere. Mugatuz gero, berjakintza hartuz gero, Gaia sortzen du: Gaia Gogoaren berjakintza hartzea da. Eraldua eta mugatua da, Dena (Gogoa) izaki berezietan banatuz. Beraz, izaki bakoitza Lehen-Gogoaren alde bat da, mugaturik eta berjakintza harturik”.<sup>79</sup>

Azurmendik horretan guztian arazo batzuk ikusten ditu. Zaila da ulertzea nola berjakintzarik edo kontzientziarik gabeko Gogo hutsetik abiatuta sortu den izakiak, bizialdia bukatu ondoren, atzera berriz hasierako Batasunera itzultzen denean, ezagutza sakona lortzen duen —kontuan izan behar da Gogo hutsa batere berjakintzarik gabea dela—. “Lehenengo Batasun edo Gogo Huts hura gogo itsua bait da, berjakintza gabekoa, ezin ezagutza sakonik izan ahalko luke, ezagutzerik batere ez baino”.<sup>80</sup> Arazo horri aurre egiteko, Azurmendiren ustez, Mirandek, berriz ere, Geleyren lana oinarri hartuta, hauxe dio: “Eta bizialditik bizialdira, izaki oro gero eta mugatzenago, berezitenago da, gero eta berjakintza gehiago edukiz. Bizialdien ingurua burutzean, izaki bakoitza, Lehengo Batasunera bihurtzen da, bizialdiz bizialdi irabazi duen nortasuna zainduz haatik: orduan bera eta oro da, batera”.<sup>81</sup>

---

<sup>77</sup>Mirande, op. cit, 1984, 97.

<sup>78</sup>Mirande, op. cit, 1999, 368.

<sup>79</sup>Mirande, op. cit, 1999, 372.

<sup>80</sup>Azurmendil, op. cit, 1989, 56.

<sup>81</sup>Mirande, op. cit, 1999, 372.



Palingenesiaren kontzepturik gabe zail litzateke ulertzea nolatan hasieran itsua den Gogo hutsa, itzulingurua egin eta gero, berjakintzaz betea den; gainera, itzulingurua izaki mugatu gisa egiten bada, nola da posible gero den guztia ezagutzea? Areago, ez du azaltzen Gogo huts eta itsua egotetik beretik mugatu eta berjakintza hartzera nola pasatzen den ere.

Itzulinguruen kontuak, etorkizuna igartzeak, giza lekoreko izakiak... horrek guztiak denborari buruzko kontzepzio bat eskatzen du, eta, Miranderen testuei begiratuta, esan daiteke gogokoen duen azalpena denborarik ez izatearena dela: “baina «garai» absolutorik ez denaz gain, bizitza guztiak garai berekoak dira, denbora berean gertatzen, baina hori beste kontu bat da...”.<sup>82</sup> Ikuspegi horretatik, denboraren arazoa gezurrezko arazo bat baizik ez litzateke izango. Giza lekoreko izakiak gogoan, Mirandek dio den Oro Arimaren materialitate modu bat dela eta baita berjakintza modu bat ere. Gogoratu zer dioen “Otso” poemaren azalpenean izaki guztiei buruz: izaki bakoitza Batasunaren zati mugatu bat besterik ez da, Izate beraren zati; hortaz, giza lekoreko izakiak ere Batasun horren zati dira.

Benetako Izatea da dena den Arima hori, Schopenhauerrek nahimena edo *Ding an sich* eta Nietzschek *Seinsgrund, Ur-sein* edo botere-nahimena deiturikoa. Hirurek diote agerpeneko mundu hori, adimenak kontzeptuen bidez ezagutzen duena, agerpen hutsa dela, igarokorra eta azalekoa, itxurazkoa. Benetako mundua, ordea, ez da mundu honen idealizazioa edo perfekzioa, ez eta betiko bizitza ekarriko duena, edo bizialdian egindakoaren araberrako ordaina eskuratzeko paradisua. Ez, nahimena Izate guztien Batasuna da, dena Bat, dena Berbera, mugimendu itsua den Orziren ttunttuna: ez asmo, ez intentzio, eta, horrela, behin izan dena beti izango da behin eta berriz.

“Orziren ttunttuna” poeman munduaren sorrerari eta denborari buruz hitz egiten du, den guztia nola sortu den azaltzen du Mirandek. Olerki horretan agertzen duen bezala, Orziren ttunttuna da izatearen printzipioa edo sustraia, hark sortzen baititu ezerezean uhinak, eta, soinu-uhin horietatik, izaki oro. Helbururik gabeko mugimendu horrek gauzek ez dutela izateko arrazoirik erakusten digu, eta soma-gauzen mundu material hau ez dela ezer. “Ur bazterrean” narrazioan ere ondorio bera ateratzen du protagonista mutilak: “Oro hilkizun dituk: iragankorrik baizik ez dut iraunkor. Eni begira, nola lore zuri-gorriak, arto muskerrok eta, noizik behin, hurbiltzenegi zaidan gizakumeren bat eroaten ditudan, ezdeuserazten... Sorgina nauk baiki Zori-egilea, indartzale eta indardunen zale hilkizunen hilgarri: polit denak, ezti guztiak, makalak oro, puskatzen ditiat, beren zorakeria eta zintzokeriekin batera. Zuzen duk hori, nahiz gehienek ez ezagutu zuzen dela nire zuzengabea, eder nire oldarra. Ezagut nazak!”.<sup>83</sup> Hori entzunda, gazteari min guztiak desagertzen zaizkio eta hirian sartzen da burgoi eta zangar.

Nietzschek *Die Geburt der Tragödie aus dem Geiste der Musik* (“Tragediaren sorrera musikaren espirituan”) lanean aldarrikatutako benetako Izatearen eta itxurazkoaren arteko aurkaritza hori alde batera utzi zuen helduaroan. Azken finean, *Also sprach Zarathustra* (“Honela mintzatu zen Zaratustra”) lanean esaten du bera ere metafisiko bat izan zela gaztetan: “Mundu hau, beti osatugabea, betiko kontraesan baten errainua eta errainu osatugabea - bere sortzaile osatugabearen atsegin horditzailea: - horixe iruditzen zitzaidan

---

<sup>82</sup>Mirande, op. cit, 1999, 375-376.

<sup>83</sup>Mirande, op. cit, 1999, 206.

behiala mundua. Honela jautiki nituen neure joranak gizonaz haraindi, atzemundutiar guztiek ohi dutenez".<sup>84</sup> Nietzschek autokritika egiten du testu horretan, eta honako ondorio hau ateratzen: benetakoa mundurik ez dagoenez, itxurazkorik ere ez dago. Azurmendik, Nietzschek garapena aski ongi ezagutzen baitu, hauxe dio: "Nietzsche erabat Schopenhauerren jarraitun bezala hasi zen filosofian. Gero, ordea, Wagnerekin eten ondoren bereziki, Schopenhauerrengandik ere urrunduz joango da, 1878tik aurrera. Zarathustraren liburua 1883koa da. Eta justu esku artean darabilgun *Von den Hinterweltern* kapitulua, liburuaren hasieran, autokritika bat da hain zuzen. Azken urteetan Nietzschek pentsamenduak itzuli eta irauli asko egin du, eta eboluzio mingarri baten buruan arras Schopenhauerrengandik aldendu da [...]. Bera ere finean metafisiko bat eta *Hinterweltler* bat izan zela orduan, aitortzen digu Nietzschek, Lehen Izate sakon bezain ilun hura aitortzen zuenean; egiazko errealitateztat hura aitortzen zuenean".<sup>85</sup>

Mirandek, itxuraz, Schopenhauerri jarraitzen dio, eta gerora ere, Batasun edo Lehen Izate hori aldarrikatzen du. Bestalde, Azurmendiri iruditzen zaio, akaso, Miranderen pentsamenduan —Nietzscherenean bezala— garapen bat egon dela. Esate baterako, "Nere Sinestea" artikulua aztertuta —hor aipatzen ditu munduostetarrak Mirandek—, zalantza batzuk sortzen dira Lehen izatearen kontsiderazioaren inguruan. Zaila da hori argitzea ez baitakigu "Nere Sinestea" noiz idatzi zuen. Gainera, testua ilun samarra da, ez dauka Miranderen idatziek izaten duten argitasunik, eta Goulvenn Pennaodek dionez bretoieraz argitaratua izan zen. Agian testu haren itzulpena da esku artea duguna? Nolanahi ere, hauxe da, inondik ere, sortzen zaigun galdera: Nietzschek gisako eboluzio bat izan ote zen Miranderenean.

Hiru pentsalarien artean aldeak egonagatik, honako hau segurua da: Schopenhauerren nahimena Miranderen testuetan Arima da. Ber baitango errealitatea ezagutzeko bidea, berriz, intuizioa, norbere barrura baitaratzea. Honela adierazten du ideia hori Joxe Azurmendik: "Dena bat da, eta bataren konprenitzeko abiapuntua neu naiz".<sup>86</sup> Gaorputzarekiko harreman horri buruz, honako hau dio Mirandek: "Nahiz gorputza gauza iragankor eta bigarren mailako den, Arimari berdinduz nahi bada, sineslari batzuek dagiten bezala, ez da mesprextatu behar hiltzera behartua baldin bada, arima beste plan edo hein batera iragaiten delarik. Aitzitik, gure nortasun ezagutuaren oinarri bezala ezagutarazi behar da".<sup>87</sup>

#### 4. 4. Antropologia

Miranderen pentsamendu osoa, Nietzschek bezala, antropologia bat da: nola ulertzen den gizakia, halako ezagutza eta mundua izango ditugu, eta horren arabera jokabidea. Jon Mirandek gizakia bere orokortasunean eta beste izakiekiko harremanean zer

---

<sup>84</sup>NIETZSCHE, Friedrich: *Honela mintzatu zen Zaratustra*. Klasikoak bilduma, 1992, 25. Euskaratzailea: Xabier Mendiguren Bereziartu.

<sup>85</sup>Azurmedi, op. cit, 1989, 67.

<sup>86</sup>ibidem, 58.

<sup>87</sup>Mirande, op. cit, 1999, 376.

den esaten digu —"Otso" poeman, esate baterako—, eta izaki guztien batasuna aldarrikatzen du kreatzaile eta kreaturen arteko bereizketarik egin gabe.

Gizakiek badituzte, ordea, beste izakiek ez dituzten ezaugarriak: adimena eta hizkuntza, eta, horien ondorioz, ezagutza eta heriotzaren kontzientzia. Aurreko ataletan —"Nil igitur mors est" poemaren giltza"—, ikusi dugu adimena baztertu egin duela ezagutza-iturri nagusi gisa, hizkuntzak ez duela errealitatea ezagutzeko balio eta heriotzarekiko beldurra giza eritasuna dela; gizakiak eritasuna alde batera utziko du benetako ezagutza lortzen duenean. Azken finean, gizakiaren gaitza adimenaren eta hizkuntzaren ondorio dira.

Errealitatearen, arimaren eta gorputzaren gaiak bereziki, honako testu hauetan lantzen ditu Mirandek: "Nil igitur mors est" poeman eta poemaren azalpenean eta "Nere sinestea" eta "Jakintza berri bat: Psikologi gaindikoa" artikuluetan. Mirande dualista dugu, hau da, izaki guztiek gorputza eta arima dugula pentsatzen du "Nere sinestea"n argi dioen moduan: "Izaki bakoitzean alderdi psikiko bat badagoela".<sup>88</sup> Psikologiaz gaindiko zientzia aztertzen duen artikuluan materiaz edo fisikoaz haragoko izateak, hots, izpirituak badirela baieztatzen du. Hori garbi erakusten dute, haren ustez, arauz gaindiko fenomenoek. Areago, parapsikologia-zientziak aurrera egin ahala, orain ulertezinak diren fenomenoak azaldu ahal izango dira, eta frogatu ahal izango da ukigaiaz gaindiko izakien existentzia.

Ontologian ikusi dugu, Miranderen filosofiaren baitan, benetan badena izaki guztien batasun erabatekoa edo Lehen Izatea dela. Munduko izaki banakoen existentzia azaltzeko, Geleyk *L'être subconscient* liburuan azaltzen duen teoria erabiltzen du psikologiaz gaindikoari buruzko artikuluan. Horren arabera, munduan baden guztia Gogo hutsetik sortu da; Gogo huts hori itsua eta berjakintzarik edo kontzientziarik gabea da, baina bere burua mugatzen duenean eta berjakintza hartu, askotariko mundua agertzen da. Munduko izakiak eta munduan izatea itxura hutsa dela esana digu, eta, ondorioz, heriotza bera ere ustezkoa besterik ez dela; mundua —haragoko sortzailerik gabea— mugimendu itsu baten ondorioz agertua da, ez du ez zentzurik ez norabiderik ere. Hori erakutsi digu Mirandek "Orziren ttuntuna" olerkian.

Dena den, munduari eta munduan den guztiari buruz ari garela, gizakia ere hartu behar dugu aintzakotzat. Gizakia, beste izakiak bezala, gorputz eta arima da Miranderen ikuspegian, eta, hortaz, azaldu behar du zer den gorputza eta zer arima, eta bien artean zer harreman dagoen. Azaldu behar du, era berean, biak batera sortuak edo eginak ote diren, eta gorputza desagertzean arimarekin zer gertatuko den. Horren guztiaren inguruan, alderdi batzuk garbi ikusten dira Miranderen testuetan, baina beste batzuek (gorputzaz duen kontzepzioa, esate baterako) arazoak edo kontraesanak sortzen dituzte.

Garbi ageri zaizkigun ataletatik hasiz, esan behar da espiritualista dela Mirande, ariman sinesten duela, eta, gainera, arima hori norberarena dela. Arima hori bakoitzaren psikea da, eta hil ondoren munduko bizialdian izandako nortasun osoak iraungo ez badu ere, ez da erabat desagertuko. Psikologiaz gaindiko zientzia aztertzen duen artikuluan, garbi azaltzen du —Henri Bergsoni jarraituz— garunari, hau da, gorputzari lotutako kontzientziak gain, badela berjakintza lekoreko bat: "Henri Bergson jaunak, haatik, asmo berriak ekarri ditu

---

<sup>88</sup>Mirande, op. cit, 1999, 375.

korapilo hori urratzeari buruz (irakur haren liburua, *Matie're et Mémoire Essai sur la relation du corps d'esprit*). Giza gogoak bi alde badauzka —hemen behar dugu, Sigmund Freud irakasleari zor diogun «berjakintza petiko» haren adigai berria lagun hartu—; batetik burmuinari darraikio, hori dugu berjakintza, norberak bere gogoaren gainean bat-batean ikasten dituen berriak. Bergson-ek erakusten du nola burmuinaren berjakintza hori ukigaiezko munduon gaudelako sortu zaigun, ukigaiari egokitu beharrez. Freud-ek, ordea, giza-gogoak beste alde bat daukala irakatsi digu, berjakintza petikoa [...]. Konturatu dira ez zela soilki berjakintzaren hondakin bat, alderantziz, berjakintza zela haren saila, edo, hobeto esan, haren errainua burmuinean (cf. C. G. Jung-en lanak)<sup>89</sup>. Berjakintza lekorekoa deitzen dio burmuinaren bizipenekin loturarik ez duen kontzientziari, eta horren bidez azaltzen du, nola *mediumek*, trantzean daudenean, inoiz ikusi edo bizitu gabekoak jakin eta ikusi ditzaketen. Berjakintza lekoreko hori Jung-en inkontziente kolektibo gisako bat litzateke, eta horren baitan kokatzen du Freud-en inkontzientea ere Mirandek.

Psikologiaz gairik zientziari buruzko artikularen bukaeran, arimaren eta gorputzaren ondoretasunari buruz esaten du berak ez duela bat egiten ez espiritualistekin, ez eta materialistekin ere. Lehenbizikoen arabera, gorputza hiltzean, arimak bere izate osoari eta nortasunari eutsiko dio, eta ez du ezer galduko. Bigarrenen ustez, behin gorputza hiltzen denean, arima ere desagertu egingo da, eta ez da deus geratuko. Miranderi, ikusi dugun moduan, askoz interesgarriago iruditzen zaio berjakintza lekorekoaren hipotesia, nortasun lurtarra bakarrik galtzearen ideia, eta, horrela, norberaren arima bakar hori Lehen Batasunera itzuliko dela dioen pentsamendua.

Ikuspegi horren baitan ulertzen da benetako Egia ezagutzeko, gorputza lo egoeran jartzearen premia. Gorputzak mundu honetara lotzen gaitu, hilkorra da, eta aldakorra denari begira dago. Gorputza sorgortzean eta adimena eta oroimena itzaltzean egongo da giza arima bere berezko izanean, eta, orduan ezagutuko du Egia: dena bat da, ez dago aniztasunik. Halere, arima edo psikea bizialdi mundutarrean gorputzari lotuta agertzen da, eta bizialdi horretan hainbat ikaskuntza eskuratzen ditu. Horiek guztiak desagertu egingo dira gorputza hiltzean, berjakintza lekorekoak, aldiz, iraun egingo du arima Lehen Izatera itzultzen denean. Horregatik, norberaren arima bakar eta bakoitza Lehen Izate horretara joatea, norberaren jatorri edo herrira itzultzea da. *Haur besoetakoan*, sortoki hori Gazteen Lurra da.

Dena dela, gorputza ulertzeko moduari dagozkion arazoak badira, merezi duen izate-mailari dagozkionak, bereziki. "Jakintza berri bat: Psikologi gaindikoa" artikularen eta "Nil igitur mors est" poemaren giltza"ren arabera, eta *mediumtasunerako*, hots, ezagutza sakonerako gorputza traba da eta alde batera utzi behar dugu. Hona zer dioen artikulua horretan *medium* izateko baldintzei buruz: "Ezen bere *mediumtasuna* lanean den gehienetan, egoera berezi batean dugu *medium* delakoa, transa irasorria eta lo-ibiltzalena bezala: lotan mintzo eta ari da. Orduan eragiten dituen fenomenuek bitariko dira".<sup>90</sup> Honako hau ere bai: "Gogoz edo gorputzez eri direnen artean edireiten da askotan, emasabelekoetan batipat. Jaiotzetikoa da zenbait aldiz".<sup>91</sup> "Nil igitur mors est" poemaren azalpenean beste hau ere irakurtzen dugu: "Poeta, gogoetatuaren ariaz, jartzen da emeki

---

<sup>89</sup>ibídem, 370-371.

<sup>90</sup>Mirande, op. cit, 1999, 353.

<sup>91</sup>ibídem, 352.

emeki lo-antzeko egoera berezi batean".<sup>92</sup> Garbi geratzen da artikulu horretan, trantze-egoeran sartzeko, mundu honetara lotzen gaituen gorputza sorgortu behar dela.

"Nere sinestea"n gorputzari buruz zer dioen irakurtzean, ordea, beste ondorio batzuk ateratzen ditugu. Lehenbizi, gorputza arimaren kontzientzia eta gure nortasun ezagutuaren oinarria dela esaten du: "Zeren aldi bakoitzean erran genezake arimaren kontzientzia dela gorputza: arimak bere ezagutza izan dezan bidea".<sup>93</sup> Gero, zentzuen garrantzia ukatzea astakeria dela: "Gogoaren gainbegia gatik, zentzu horien ukatzea ez lizateke engainu eta astakeria baizik".<sup>94</sup> Azkenik, arimarekin alderatuta gorputza bigarren mailakoa eta hilkorra izanagatik, ez dela mespretxatu behar: "Arimari berdinduz nahi bada, sineslari batzuek dagiten bezala, ez da mespretxatu behar hiltzera behartua baldin bada, arima beste plan edo hein batera iragaiten delarik".<sup>95</sup> Horregatik guztiagatik, arimak gorputza behar du munduko bizitzarako: "Hein bakoitzean, «mundu» bakoitzean, arimak gorputz aragidun bat izan behar du".<sup>96</sup>

Nola lotzen da hori guztia aurretik ezagutza sakonerako bideari buruz esan duenarekin? Zer da gorputza, oztopo bat ala ezagutzarako bide bat? Azurmendik dio gorputzaren auzi honetan psikologiaz gaindikoak laguntzen ez dionez, atzera berriz, Schopenhauerrengana eta Nietzscherengana jotzen duela. Schopenhauerren pentsamenduan, gorputza Lehen Izatearen objektibazioa da, eta bi modutara dugu: adimenaren intuizioan errepresentazio gisa, eta bitartekorik gabe, bakoitzak bere baitan ezagutzen duen nahimen gisa; gorputzaren bidez iristen baikara *Ding an sich* edo Lehen Izatea nahimena dela ezagutzera. Mirandek gorputza ezagutza sakonerako eta autokontzientziarako bidea dela esatean, eta hilkorra izanagatik ez dela mespretxatu behar azpimarratzean, pentsalari alemaniar horien ikuspegia datorkigu gogora. Baina horien pentsamenduan —zuberotarrarenarenean ez bezala—, arima substantzia aparteko gisa ez da existitzen, gorputza nahimena da, eta gorputza garelako ezagutu dezakegu bitartekorik gabe nahimena bera, hots, benetako errealitatea.

Bil ditzagun, orain, arimari buruz esan dituenak. Parapsikologiari buruzko artikulan, garbi esan du materiakoa ez den izakirik badela eta ez dela baztertu behar izaki gaindikoetan sinestea. Hori esanda, "Arima badea izan?" galdera egiten du, eta azpimarratzen du parapsikologo zenbaitek ez duela ariman sinesten, arauz gaindiko fenomenoak ukigaiei dagozkien arauekin azaltzen ahalegintzen direla. Jon Mirandek, artikulan zehar azalduetako fenomenoak aztertu ondoren, garbi du arima badela izan, nahiz eta —"Nire sinestea"n ere gauza bera esaten du— arimak gorputza behar duen munduko bizialdirako. Horrek zer esan nahi du, arima gorputzarekin sortua dela eta harekin desagertuko dela? Mirandek ezetz dio; arima gogo hutsezkoa denez (ukigaiz gaindiko), ez dauka zentzurik ukigaia hil ondoren desagertuko dela esateak: "Halaber, gogo hutsezko hori ukigai gaindiko bada, haizu da ukigaia hilondoan ere bizi ditekela uste izatea. Baina galdea: zer da bizi eta nola?".<sup>97</sup> Auzi horri erantzuteko, lehen esan bezala, Bergsonen teoriara jotzen

---

<sup>92</sup>Mirande, op. cit, 1984, 96.

<sup>93</sup>Mirande, op. cit, 1999, 376.

<sup>94</sup>ibídem, 376.

<sup>95</sup>ibídem, 376.

<sup>96</sup>ibídem, 376.

<sup>97</sup>ibídem, 368-369.

du: "Gure egiazko nortasuna, gure gogo edo arima, ez da hilko gure burmuinarekin batera. Burmuina eta honen oroimenarekin (bi oroimen mota bait dira, Bergson-ek erakusten duen bezala, bata gorputzarekikoa) hilko dena, gure azaleko nortasuna, gure «ni» lurterra da".<sup>98</sup>

"Nere sinestea"n hasieratik esaten du ariman sinesten duela, eta, gainera, arima ez dela materiaren ondoriozko fenomenoa, substantzia bat baizik: "Ariman sinesten dut —bere izen arrunta eman behar baitzaio—; erran nahi dut izaki bakoitzean alderdi psikiko bat badagoela; konbentzitua nago, eta materiazale mekanizaileek diotenez bestalde, *psukhê* hori ez dela ekaiaren gain-fenomeno bat abere eta gizakentearentzat, baina aitzitik, fisika-kimika aldaketez oso bestelakoa, bere izate barnatsu eta sakonean. Nere ustez, parapsikologiazko ikerketen bidez, gisa batez edo bestez, hori probatu izan da. Esate baterako, erran genezake arima errealtate bakarra eta bakoitza dela. Bai; nire Arima neure errealtate bakoitza eta bakarra dela sinets nezake...".<sup>99</sup> Hara hor arimaren definizio argia.

Joxe Azurmendik "Jakintza berri bat: Psikologi gaidikoa" eta "Nere sinestea" artikulua alderatzen ditu, eta hainbat ezberdintasun antzematen ditu arimaren eta gorputzaren gaiari dagokionez. Mirandek bietan garbi esaten du ariman sinesten duela, baina lehenbizikoan, arima Gogo hutsetik sortutako berjakintza duen izatea da, eta horrek dituen ondorioak aipatzen ditu. "Nere sinestea"n, berriz, norberaren arima bakar horretan egiten da azpimarra, eta Gogo hutsari edo Lehen Izateari buruzko aipamenik ez du egiten. Bi kasuetan, gorputza hiltzean arimak bizirik segituko duela dirudi, baina, bigarrean, mundu honetan jarraituko duela ematen du, eta ez urruneko Gazteen Lur hartan edo Lehen Izatearen baitan. Azurmendik galdetzen dio bere buruari ez ote duen Mirandek, Nietzsche bezala, transzendentzia onartzen duen pentsamendu batetik munduko bizia besterik onartzen ez duen ikuspegirako aldaketa egin. Azurmendiren hipotesia da "Nere sinestea" eta parapsikologiari buruzkoa baino hamabost bat urte beranduagokoa dela, eta tarte horretan, Miranderen pentsamenduan aldaketa batzuk izan zirela; hori, ordea, baieztatu egin beharko litzateke.

Antropologiari buruzko kapitulu hau bukatzeko, ohar bat egin behar da Mirandek denborari buruz duen ikuspegia azaltzeko. Esan dugu arimak bizirik jarraituko duela gorputza hil ondoren, hura baino lehenagokoa baita, eta ukigiaz gaidikoa. "Nere sinestea"n dio, goian aipatu bezala, mundu honetan izango dituela bizialdi guztiak. Jon Mirandek aitortzen du, ez duela uste arima gorputz batetik bestera aldatzen denik, nahiz eta bizialdi bizialdi, munduan jarraitzen duen: "Kelta druida aintzinekoak ohartu ziren bezala, uste dut gure bakoitzaren arimak bizitza asko dituela eramaten mundu material desberdinetan, hein desberdinetan, baina «garai» absolutorik ez denaz gain, bizitza guztiak garai berekoak dira, denbora berean gertatzen, baina hori beste kontu bat da".<sup>100</sup> Eta hor dago gakoa: etengabeko orainaldia dugu edo, Nietzschek esan bezala, etenik gabe errepikatzen al da izandako guztia? Bi aukera horiek aipatzen ditu "Jakintza berri bat. Psikologi gaidikoa" artikuluan: "Geroa nolaz igar ditekeen atzaltzeko, batzuek Nietzsche-ren ustekizun bat berendu dute: Betiereko Itzulingerua. Nietzsche-ren arabera, direnak oro aurretik ere izan dira eta gero ere itzuliko dira, betierean aldatzeke. Beraz, geroaldian ikustea, egitan lehenaldi urrun-urrun batean ikustea baizik ez litzateke. Bestetzuek, Betiereko orainaldian sinestea

---

<sup>98</sup>ibídem, 373.

<sup>99</sup>ibídem, 375.

<sup>100</sup>ibídem, 375-376.

hobesten dute. Diotenez, ez da benetan ez lehenaldirik, ez geroaldirik, baina oro garaibereko dira. Aldia badelakoz gure ustekeriak, gure ukigaiezko munduon egoiteari darraikio".<sup>101</sup>

#### 4. 5. Etika

Joxe Azurmendik Miranderen pentsamenduari buruz egindako azterketari erreparatuta, bi aipamen egin behar ditugu etikaz. Ez datoz bat eleberrian, psikologiaz gaindiko artikuluan eta "Nere sinestea"n erakusten digun gizakiaren irudia eta artikulua kritikoetan gizaki horrentzako proposatzen duen jokabide etikoa. Gainera, Mirande, *Haur Besoetakoan* erakutsi zuen bezala, immoralista zen. Ikus dezagun, hasteko, zer testutan agertzen den Miranderen pentsamendu etikoa, eta, ondoren, zer ideia zuen moralari buruz.

Artikulu kritikoetan honako gai hauek landu zituen: hizkuntza gutxituak, herri minorizatuak, literatura-gaiak, parapsikologia, sorginak eta bereziki, politika-gaiak. Politika gaiei buruzkoetan, Mirandek zer ikuspegi etiko duen agerian jartzen da: Nietzscheri jarraituz dio naturan borroka dela nagusi, eta, beraz, hori dela legea: ez dago besterik. Hurrengo atalean aztertuko dugu zer ondorio dakarzkion ideia horrek politikari.

Literaturan —hainbat poema eta narrazioetan, eta *Haur besoetakoan*— zeharka erakusten digu zer pentsatzen duen moralaz, eta adierazten digu ez dagoela moral unibertsalaren alde. Eleberriko gizona aristokratikoa eta zalduna da, pentsamenduari eta meditazioari emana, kanpoko mundutik urrunekoa, eta eguneroko bizitza, eginbeharrak eta aurrerapena mespretxatzen dituen; aitzitik, artikuluetan hobesten duen gizona oso bestelakoa da: naturala, zangarra eta ekintzailea. Horrez gainera, sexuari lotutako olerkietan, Mirandek ohikoaz kanpoko joerak proposatzen ditu: gizartean arrunta eta zuzena dena alde batera utzi, eta norberaren irrikari jarraitu, dela pederastia, dela nekrofilia, dela homosexualitatea, dela putekiko harremana... Narrazioetan, berriz, heriotza eta hiltzaileak azaltzen dira etengabe, eta baita familiarekiko, bikote-harreman ohikoekiko zein gizarteko eginkizunekiko mespretxua ere. Eleberriko gizonarentzat bezala, narrazioetako pertsonaientzat bizitzaren eta heriotzaren arteko muga lausoa dela ematen du —*Eresi kantari*—, gizarteko eginkizunak betetzeak ez du zentzurik —*Ametsa*—, ez dago hilketari egiten zaion epai moralik —*Zazpi gizeraille, Gauaz parke batean*— eta gizakia eta beste izakien artean harreman naturala dago —*Ur bazterrean*—.

Zer ondorio atera behar dugu horretatik guztitik Miranderen etikaz? Jon Mirandek eta Txomin Peillenek bi urtean zehar *Igela* aldizkari heterodoxoa argitaratu zuten. Aldizkariko artikulua batean, etikaren definizio hau ematen dute: "ETHIKA ZER DA? Aita Lhande-n hiztegiak hau dio: *Ethika*, (L.)=phtisque. Beraz ethika eritarzun bat da, gaitz bat eta iduri duenez, barreneko gaitz bat. Larousse hiztegiak aldiz=moralari dohakona. Bagenekien moralak gorabeherak zituela, baina bi iztegien artean jakiten dugu gaitz bat dela. Gaitz horri erremedio, munduko gizon andi batzuen, filosofu batzuen hitzez eta esaerez baliatuko gira".<sup>102</sup> Jarraian, etikari buruz H. Heinek eta F. Nietzscheri esandakoak biltzen dituzte. Hitz horietan ikusten dugunaren arabera, etika gaixotasuna da, eta gaixotasun guztiek bezala sendabidea behar du. Ez dago inolako zalantzarik ideia hori Nietzscherengandik, *Zur*

<sup>101</sup>ibídem, 358.

<sup>102</sup>Igela-2, 1962, Ibiñagabeitia proiektua.

*Genealogia der Moral* (“Moralaren Genealogiari buruz”) lanetik hartua duela.

Mirande beti ageri zaigu idazle inkonformista gisa. Ez dago ados ikusten duenarekin, aldarrikatzen denarekin, ontzat ematen denarekin. Ez gara hasiko aztertzen zuberotar erbesteratua izateak nola eta zenbateraino eragin zuen Miranderen pentsamenduan, baina garbi sumatzen da inongoa ez izatearen zama eta sustrai faltaren mina haren idatzi askotan. Azurmendik dioen moduan, zuberotarra abertzale absolutua dugu, eta ezaugarri hori kontuan izan gabe ez da posible Mirande ulertzea. Izan ere, Miranderen pentsamendu oso antropologia bat da, gizakia zer den aztertzen ari baita. Areago, antropologia oinarri hartuta, euskaldun izatea zer den esaten du, eta esate horretan agertzen da Miranderen filosofia praktikoa. “Euskaltasun romantiko baten alde” artikuluan azaltzen du —Joxe Azurmendiren iritzian— nola pasatzen den ontologiatik eta epistemologiatik etikara eta politikara.

Gatozen Miranderen testuetan ageri den moralari buruzko funtsezko ideia bat aztertzeraz. Horretarako *Igelako* artikuluan Nietzschek Sokratesi buruz, Kaliklesen ahotan, esandakoa hartuko dugu abiapuntu; Sokrates *atopos* dela, alegia. Nahiz eta jakin badakigun Sokrates bertutearen eta moral unibertsalaren aita dela, Sokrates *atopos* da, hau da, besteak ez bezalakoa. Besteak ez bezalakoa denak, esaten digu Mirandek, ezin du besteek jokatzeko duten bezala jokatu. Norberaren jokabidea norberaren nortasunetik ondorioztatu behar da; hortaz, ez da posible denentzat ona izango den moralik eraikitzea. Hona zer dioen *Igelako* beste kontakizun baten bukaeran Egiari buruz: "Gure mundua elefante andi bat duzu eta gu gaitutzu itsuak elefantea unkitzen dugunok. Bakoitzak nahi du mundua berak ukitzen duen gisa izan dadin eta EGIA horren gisako animalea xabal luze edo gotor izan dadin. Egiaren gatik, gu itsuak, borrokatzen gira alferretan".<sup>103</sup> Norberak bere nortasunaren arabera ikuspegia du, eta hala jokatu behar du.

Mirandek, Nietzschek bezala, artaldearen moralak kritikatu ditu: gizakia ongizate eta gaizkiaz harago nahi du, ez taldean desegina. Horretan bat egiten du Nietzschekin eta Schopenhauerrekin, nahiz eta horretarako argudioak ez diren berak. Filosofo aleman horien ustez, benetan dena Lehen Izatea da, nahimena edo botere-nahimena, hain zuzen. Munduan agertzen den oro —gu geu barne— nahimenaren objektibazioa besterik ez da. Nahimenak agintzen du denean, indar itsua da, inolako logikarik gabekoa. Ondorioz, barne-printzipio hori izaki guztietan agintzen duen indar irrazionala da, moralarekin zerikusirik batere ez duena; nahimenak bere nahia bete nahi du, printzipio egoista bat da. Schopenhauerrek Descartesi eta Kanti aurre eginez esaten du, gizakia ez duela ezagutzak ezaugarritzen, nahi izateak baizik: "Horien arabera, gizaki bakoitza bera den hori bere ezagutzaren ondorioz bihurtuko litzateke: zero moral bat bezala etorriko litzateke mundura, bertako gauzak ezagutu eta honelakoa edo halakoa izatea erabakiko luke, honela edo bestela jokatzeko, ezagutza berriaren ondorioz egintza-era berri bati heldu ahal izango lioke, horrela beste bat izan ahalko litzateke. Gainera horren arabera, lehenik gauza bat ontzat berrezagutuko luke eta horren ondorioz nahi izango luke; lehenik nahi izan eta horren ondoren on deitu, egin ordez".<sup>104</sup> Ildo beretik, Nietzschek dio, munduan diren izaki guztiak nahimena denboraren eta espazioaren printzipioen arabera agertzearen ondorioz direla; nahimenean ez dago aniztasunik, dena bat da, bereizketarik gabekoa. Horregatik, izaki bakoitza nahimen osoa da

<sup>103</sup>ibidem.

<sup>104</sup>SCHOPENHAUER, Arthur: *Mundua nahimen eta errepresentazio gisa*, Klasikoak bilduma, 1999, \$55. Euskaratzailea: Xabier Mendiguren Bereziartu.



bere baitan, bizinahia da eta munduko zilibortzat dauka bere burua. Nahimena edo Lehen Izatea, dena bat dela dioen ikuspegitik ondodiotzatzen du Nietzschek moralaz duen iritzia.

Joxe Azurmendik honela azaltzen du Nietzschek pentsamoldea moralaren sorrerari buruz: "Gizona, bere jatorrizko basa egoeratik gizarteko bizitza konbentzionalera, ez zen bere gogoz eta ez inolako itun sozialez pasa, indartsu gutxi batzuk nagusi altxatu zirelako baino gehiengoaren gainean, hauek zitalki zangoperatuz. Horrela sortu zen 'Estatua'".<sup>105</sup> Aginte modu hori tirania bat izan zen, indartsuaren aginte bortitza eta krudela ahularen gainean. Izan ere, Nietzschek garbi dauka "gizaki" tipoaren sorrera gizarte aristokratikoaren ondorio izan dela toki guztietan eta beti: "'Gizaki' tipoaren edozein goratze, orain arte, gizarte aristokratiko baten lana izan da, zeinek gizaki arteko hierarkia eta balio-desberdintasuneko mailaketa luze batean sinesten duen eta, nolabait, esklabotzaren beharra duen".<sup>106</sup> Geroago, ahulen iraultza izango da, eta indartsuen gainetik ezarriko dute beren morala —Nietzschek hori salatzen du—; eritasuna da moral hori, gizakiaren joera naturalak ukatzeaz gain, zapalduaren egoeratik sortua baita. Horri dekadentziaren morala deitzen dio Nietzschek. Ahulak nagusitzearen ondorioz sortzen da kontzientzia txarra deitzen den eritasuna: "kontzientzia morala, beraz, jatorrizko gizonaren egoera naturaletik oraingora, sozialera, iragaterakoan sortutako gaitza da".<sup>107</sup> Saldoko edo gizarteko moralean, lehenbizi, gizonaren izaera jatorra, naturala eta basa desagerrarazi egiten da, haren indarra kamustuz. Gero, berezkoa zuen borrokarako sena bere buruaren kontra erabiltzen hasten da; hor sortu zen kontzientzia txarra deiturikoa.

Miranderen moralaren baitan funtsezkoak diren bi ideia nagusiak azaldu dira dagoeneko: morala gaitza da eta gizartea kartzela da gizakiarentzat, harentzat ona dena alde batera utziarazten baitio gizarteak arauak betetzeko aginduarekin. Gatazka hori konponezina da. Azken batean, zer da norbera, besteengandik bereizten duen hori ez bada? Ezberdintzen gaituena ez badugu kontuan hartzen, hots, moral unibertuala inposatzen badugu, moral pertsonalarentzat ez da tokirik izango. Horrek guztiak nortasunaren heriotza dakar. Gatazka izugarri hori da *Haur besoetako* eleberrian, etengabe, azaltzen dena. Mirandek behin eta berriro esaten du, gizarteko arauetara ez makurtzea dela gizarteak barkatzen ez duen bekatu nagusia, eta, horrela, hautetsiaren aurka indar, gorroto eta mespretxu biziz altxatuko da gizartea edo saldoa. Gizarteak eskura dituen baliabide guztiak erabiltzen ditu moral ahulgarria —gizarteak denentzat hobesten duena— inposatzeko: heziketa, familia, erlijioa, balioak eta abar. Horregatik salatzen du Mirandek ustezko onginahia eta zurikeria, eta defendatzen ditu ohikoak ez diren jokabideak, betiere erakusteko, bizitza beste modu askotara bizi daitekeela: askatasuna lehenesten duen bizitzaren alde egiten du.

Nietzscherengandik hartu zuen Mirandek bi moralen pentsamendua ere. Nietzschek esklaboen morala eta jaunen morala bereizi zituen *Jenseits über Gut und Böse* ("Ongiaz eta gaizkiaz harago") lanean: "Badago jaunen eta esklaboen morala; areago, kultura goren eta

---

<sup>105</sup>Azurmendi, op. cit, 82.

<sup>106</sup>NIETZSCHE, Friedrich: *Jenseits von Gut und Böse*, Projekt Gutenberg Literary Archive Foundation PMB 113, Oxford, 2004, sarean hartua, 257. Jede Erhöhung des Typus "Mensch" war bisher das Werk einer aristokratischen Gesellschaft - und so wird es immer wieder sein: als einer Gesellschaft, welche an eine lange Leiter der Rangordnung und Werthverschiedenheit von Mensch und Mensch glaubt und Sklaverei in irgend einem Sinne nöthig hat.

<sup>107</sup>Azurmendi, op. cit, 1989, 76.

misto guztietan bi moral horien artean bitartekotzak egiteko ahaleginak daude...<sup>108</sup> Bereizketa hori bereganatzen du Mirandek, baina jaunen eta esklaboen moralak aipatu beharrean, hautetsia eta saldoa aipatzen ditu. Hautetsiak —*Haur besoetakoan* gizona— bere balioak sortzen ditu eta ez dio gizarteak —saldoak— agintzen duenari men egiten.

Ikus dezagun zer dioen Nietzschek jaunen moralari buruz: "Gizaki mota aristokratikoak bere burua balio-sortzaile gisa ikusten du, ez du onarpenik behar, honako hau du aurreiritzi: 'niretzako kaltegarria dena kaltegarria da berez'".<sup>109</sup> Eta hau esklaboen moralari buruz: "Esklaboen begirada ez da boteretsuen bertutearen aldekoa: begirada eszeptikoa eta fidagaitza da, bertute horietan —boteretsuen bertuteetan— ohoretsua den 'on' guztiarekiko mesfidatia da, bere buruari sinetsarazi nahiko lioke han zorientasuna bera ere ez dela benetakoa. Alderantziz, sufritzen dutenen existentzia arintzen duten jabetzak agerian jarri eta argitu egiten dira: hemen —esklaboen moralean— ohoratzen dira errukia, laguntzen duen eskua, bihotz-berotasuna, pazientzia, ardura, apaltasuna, adiskidetasuna; horiek baitira izatearen presioa jasateko bitarteko erabilgarrienak eta ia bakarrak. Esklaboen moralak, esentzian, erabilgarritasunaren moralak da".<sup>110</sup>

Miranderen *Haur besoetakoan* gizonak honelako barne pentsamenduak ditu: "Nork zizkion berari egitekoak arintzen? Besteen esanera gehiegi bizi izan zen orain artean eta ondikotz! Oraindik ere besteek haren baitan jarritako itxaropenari amore ematera gertu zen, besteengatik sortutako bere buruaren aizun-irudiari uko ez egitearren. Zergatik ote? Ez koldar zelako, agian. Gizarteko eginbideak zituen eragile, pentsatzen zuen ironia mingar batekin, etxe-ondo zahar baten jabe ta leinu ohoragarri bateko seme denaren eginbideak... Ai! Haren egiazko nortasuna non zegoen, eta zer eskatzen zuen, baleki, edonori gogor egiteko lain izanen lizateke noski, edozer gertaturik ere, ezen hark ere sinesten zuen 'hoben dela sehaskan dagoen inut-aurrari lepoa tinkatzea norberaren bihotzeko nahikari bakar bat itotzea baino'".<sup>111</sup> Garbi azaltzen du Mirandek barne elkarrizketaren bidez gizon horrek bizi duen gatazka: alde batetik, gizarteak ezartzen dizkion arau moralak, eta, bestetik, bere nortasunak eskatzen diona, hau da, gizarteak ezartzen dion moral ahulgarriaren eta unibertsalaren eta hautetsiak bere balioak sortzeko eta bere gisa bizitzeko duen premiaren arteko gatazka konponezina.

Laburtuz, aristokrata edo hautetsia balioak eta arauak bere buruari ematen dizkiona da; menpekota edo saldokoa da, ordea, beti amore ematen duena eta bere gisa deus egiteko gauza ez dena. Argi eta garbi bereizten ditu Nietzschek bi moral horiek, eta, esan bezala,

---

<sup>108</sup>Nietzsche, op. cit, 2004, sarean hartua, 260. "Es gibt Herren-Moral und Sklaven-Moral; - ich füge sofort hinzu, dass in allen höheren und gemischteren Culturen auch Versuche der Vermittlung beider Moralen zum Vorschein kommen..."

<sup>109</sup>Nietzsche, op. cit, 2004, sarean hartua, 260. Die vornehme Art Mensch fühlt sich als werthbestimmend, sie hat nicht nöthig, sich gutheissen zu lassen, sie urtheilt "was mir schädlich ist, das ist an sich schädlich"

<sup>110</sup>Nietzsche, op. cit, 2004, sarean hartua, 260. Der Blick des Sklaven ist abgünstig für die Tugenden des Mächtigen: er hat Skepsis und Misstrauen, er hat Feinheit des Misstrauens gegen alles "Gute", was dort geehrt wird -, er möchte sich überreden, dass das Glück selbst dort nicht ächt sei. Umgekehrt werden die Eigenschaften hervorgezogen und mit Licht übergossen, welche dazu dienen, Leidenden das Dasein zu erleichtern: hier kommt das Mitleiden, die gefällige hülfbereite Hand, das warme Herz, die Geduld, der Fleiss, die Demuth, die Freundlichkeit zu Ehren -, denn das sind hier die nützlichsten Eigenschaften und beinahe die einzigen Mittel, den Druck des Daseins auszuhalten. Die Sklaven-Moral ist wesentlich Nützlichkeits-Moral.

<sup>111</sup>MIRANDE, Jon: *Haur Besoetakoan*, Lur, Donostia, 1983, 6-7.

alemaniarren lanetik hartua dirudi eleberrian Mirandek egiten duen bereizkuntzak. Hautetsiaren eta saldoaren arteko gatazka, halere, ez da balio objektiboen ingurukoa; hautetsiari ez zaio bururatu ere egiten oker dabilenik. Azken finean, gatazka, ezberdina izatearen ondorio da; hori da borrokaren funtsa, eta hori da, hain zuzen, saldoak barkatzen ez duena. *Haur besoetakoan* maiz agertzen da saldoaren jarrera makurra eta mendeku-gogoia ezberdina edo hautetsia denarekiko: "Bai bera baino askoz ankerrago ziren on eta zuzen horiek, lagun hurkoari min egiteko jakintzan, Ontasunaren eta Zuzentasunaren izenean. Beren moralkeria buztineko oinak dituen zutik".<sup>112</sup>

Hautetsia edo jauna ez daiteke edonor izan; hala ikusi dugu epistemologian. Schopenhauerrek esaten du benetako ezagutza sakona gutxi batzuen esku dagoela, eta Mirandek ere "Nil igitur mors est` olerkiaren giltza"n gauza bera dio: "Gizon gehienek ordea diote munduko biziari, beren mundutar nortasunari, ardura"<sup>113</sup>, alegia, gizon arrunta soma-gauzen munduan bizi dela, benetako ezagutza eta egia hor aurkituko balitu bezala, ustez eta hizkuntzaren bidez errealitatea ezagutzen duelakoan. Horren ifrentzua dugu poeta, gogoetan ari dela ohartzen baita zer den benetako izatea. Bai Nietzschek, bai Schopenhauerrek eta bai Mirandek jende arruntarekiko mespretxua erakusten dute, eta haiekin berdintzeko inolako gogorik ez dute adierazten.

Azurmendik dio elitismo hori Euskal Herrira lehenbizikoz Mirandek ekarri zuela, eta, horren ondorioz, moral arrunta alde batera uzteko eta gizarteko eginkizunak eta arauak baztertzeko proposamen argia egiten duela. Esaterako, familiari buruz ari denean, garbi erakusten du ipuinetan —*Eresi kantari, Maitarien arnoa, Ametsetan*— eta eleberrian zer iritzi duen: "Gurasoen erruz: `bide zuzena` joerazi zioten beti, bide hori ordea bizitzako gauza eder eta haundi guztietatik baztertua dago. Irakasleen erruz: horiek ere bide zuzena erakutsi zioten... ezdeuserako. Eta Marcellen erruz! Neska ergol arrunta. Muxu zenbaiten gatik, bere bizi guzian hari loturik izango zen. Izugarria Irudi zitzaion gau minean murgiltzera zoala eta ihesbiderik ezin aurki... Izugarria!".<sup>114</sup> Gizakiari kalte besterik ez dio egiten bikotea izateak, ezkontzeak, familiako ospakizunek... Hori guztia gizakia gizartean sartzeko eta hango arauak betetzeko egina dago; ez dio uzten bere nortasuna garatzen, eta saldoan sartzen du, artaldean. Familia ez ezik, ohiko sexu-joerak ere kritikatzeko ditu Mirandek, bai eleberrian eta baita hainbat olerkitan ere —*Neskatxak, Pigalle, Larunbat arrats, Eder bati, Larrazken gau batez, Amsterdameko orhoitzapen bat, Ederrak*—. Artikulu kritikoetan, nagusiki, bakezaletasuna, berdintasuna, umiltasuna, barkamena eta gisa horretako balio kristauak baztertzen ditu, eta, aldiz, indarra, norberarekiko konfiantza, ausardia, borrokarako grina, hitz batean, bizitza bera aldarrikatzen du. Funtsean, espiritu libreak ez luke konbentzioetara makurtu behar.

Nietzschek agerian jarritako bikoiztasun hori Spenglerrek ere baliatu zuen. Spenglerrek dio bikoiztasuna historiako hainbat elementutan azaltzen dela —gizon/emakume, pribatu/publiko, estatu/familia—, baina, bereziki, noblezia- eta apezterea-elementuetan. Nobleza, berezko estamentua, odolaren eta arrazaren sintesia da, nekazaritza goratu bat, instintu-jendea. Apeza, aldiz, kontra-estamentua da, arraza gabezia, denborarik eta historiarik gabea. Ondorioz, benetako historia ez da kultura-historia,

---

<sup>112</sup>ibídem, 47.

<sup>113</sup>Mirande, op. cit, 1984, 97.

<sup>114</sup>Mirande, op. cit, 1999, 200.

arraza-historia baizik. Arraza, gerra, historia diplomatikoa eta abar askazian, herri-estamentuetan eta erresumen irudietan agertzen dira. Horiek —askaziek, herriek, erresumek— elkar menderatu eta iraun egin nahi dute. Horixe da historia, ez besterik.

Jon Mirandek euskaldunak lurgin-zalduntza gisa ikusten ditu: “Euskaldun zaharrak izan diren zaldun aidor, guduzaleen spiritu aristokratikoa erdeinatuz, haren lekhuaren beren gisako Euskaldun berri, bakhezale, hauzo on eta puska-onen spiritu demokratikoa «*a la française*» eredutzat iarten deraukute”.<sup>115</sup> Horixe dio “Euskaldungoaren etsaiak” artikuluan. Ez da harrizkoa Spenglerrek estamentu nobleari buruz esaten duenaren eta Mirandek euskaldunen nolakotasuna azaltzerakoan aipatzen dituen ezaugarrien artean antzekotasunak ikustea. Antza denez, Mirandek Spenglerren *Der Untergang des Abendlandes* (“Mendebaldearen gainbehera”) lanarekin liluratuta geratu zen. Spenglerren ustez, mundua ikusteko bi modu horien arteko borroka saihestezina da; areago, estamentu bakoitzak, Spenglerren arabera, moral mota bat eraikiko du. Noblearen moralaren baitan, “ona” eta “txarra” —*gut/schlecht*— bereizten dira; apezaren artean, “ona” eta “gaiztoa” —*gut/böse*—. Bi moral mota horien ezaugarriek bat egiten dute Nietzscheren jaunaren eta esklaboen moralak dituztenekin. Dena den, Spengler kultura-morfologoa da, eta kulturak nola osatzen diren, zer elementu dituzten, zer aldaketa izaten dituzten eta abar aztertzen ari zaigu. Spenglerrek dio kultura bakoitzak bere moral duela, baina guztien baitan ageri direla bi forma hauek: apezena eta nobleena. Gainbehera-garaian, apezaren moralak nagusitzen da: hizkuntza abstraktuaren erabilera eta ahulezia. Aro horri zibilizazioa esaten dio.

Spenglerren zein Mirandek iritziak, bi moralen artean ezinbesteko aurkaritza dago: alemaniarren jaunaren eta apezaren (zibilizatu) artean ikusten du eta zuberotarrak hautetsiaren eta saldoaren artean. Spenglerrek esaten du jaunaren moralak kultura-moralak dela, senezkoa, bere burua auzitan jartzen ez duena; moral hori eduki egiten da. Aitzitik, apezena edo zibilizatuena zibilizazio-moralak da, hiri handietakoa, lur artifizialean bizi denarena, bizitzan ongi zer dagoen jakiteko teoria bat behar duenarena, bizitza aztergai duenarena; moral hori, eduki beharrean, bilatu egiten da. Horrekin guztiarekin bat egiten du Mirandek, “Euskaldungoaren etsaiak” artikuluan agertzen duen moduan.

Artikulu horretan, garbi azaltzen du Mirandek euskaldunak endak indartsu eta borrokalaria izandakoa garela, baina, orain, gainbeheran gaudela. Nondik heldu zaigu dekadentzia hori? Mirandek ez dauka zalantzarik, kristautasunak ekarri du euskaldunen hondamendia: “Europako Sathaldeko bi statu latin-berriok eta Romako Eliza. Hoiak, elkharrekin lankhideturik, gure endaren bereizgarri guztien erazteari thaigabe ekhin deraukoten, nahiz alhor politikoan nahiz sinhespenen alhorrean. Eta, gerorren ergelkeria lagun, ekhite hori han osokiro burutu dute non, azkenean, beren sehirik leialenak egin baitituzte Euskaldunetaz: batzuek Espainitarr hoberenak izan nahi ukhan dugu; berzeek, Frantzitarr hoberenak; eta guztiak, Eliza Amaren semerik zintzoenak”.<sup>116</sup> Aski ongi azaltzen du Joxe Azurmendik kristautasunak Mirandek pentsamenduan zer esan nahi duen: finean, Euskal Herriarentzat ahulgarria eta kaltegarria izan dena, geure burua gutxitzen duenarekiko eta menperatzen gaituenarekiko morrontza, moral bakezalea, onzalea eta berdinzalea. Kaltea ekarri digu kristautasunak bai politikan —espainiar eta frantziar estatuen menpeko bihurtu—, baita moralean ere —gure sinesmen eta kultura guztia erauzi eta gure

<sup>115</sup>Larrea, op. cit, 1985, 31-32.

<sup>116</sup>ibidem, 32.

espirituarekin bat ez datorren sinesmena inposatu—. Hona “Euskaldunen etsaiak” artikuluan zer dioen: “Alta politikaren alhorrean baino are kaltegarriago izan zaiku Elizaren eragina espirituaren alhorrean, geroko edozein berphizkunderen ithurri biziak urdinu zerauzkigulakotz. Euskaldun zaharren gogo basa, borthitz eta handia aphaudu, ahuldu, hobeki erran irendu zuen haren doktrinak; otso ginelarik, bildots egin gaitu”.<sup>117</sup>

Miranderen lan osoa aztertu ondoren, Azurmendik dio giza jokabideari buruzko bi ikuspegi ageri direla: gizon ontologiko-mistikoa —*Haur besoetakoan*—, eta etiko-politiko —artikulu politikoetan—. Dena dela, bi gizon horiek badute ezaugarri komun bat: bata zein bestea saldotik urrun dabil, hautetsia da, besteak ez bezalakoa. Ezaugarri hori ezinbestekoa da Miranderen lana ulertzeko. Miranderen gizakiari gizarteak kaltea besterik ez dio ekartzen. Moralak gizakia artaldeko kide egiten du, gizona kaskartuz, gutxituz eta ahulduz. Beraz, morala nortasun indartsuen etsaia da. Artaldearen morala ezin argiago ikusten da politikaren alorrean, euskaldunak mendekotasuna eta txikitasuna maite izatea ekarri baitu.

Batetik, hautetsiaren eta saldoaren artean dagoen ezin moldatua ikusi dugu, eta, bestetik, gizakiaren eta gizartearen artean dagoena. Horiekin batera, beste bi aurkaritza ere aipatu beharra dago: kristau/pagano eta sortalde/sartalde. Kristautasuna, erlijioa izateaz gain, izpiritu eta joera etiko jakin bat ere bada; ikuspegi horretatik kontrajartzen zaio paganotasunari. Izan ere, paganotasunaren balioak nagusi izan nahia, berekoikeria eta ase nahia dira; kristautasunarenak, aldiz, ahultasuna, apaltasuna, umiltasuna..., hitz batean, gizakia saldo-abere bihurtzen duten balioak. Funtsean, askatasunaren sakrifizioa esan nahi du kristautasunak. Honela azaltzen du Joxe Azurmendik kristautasunak zer eragin izan duen euskaldunen artean Miranderen ustez: “Kristautasunak, bada, bertute ttattar kaskarginez indibidualki kaskartu gaituen modura, kolektibitate bezala ere kaskartu eta kibil-zirtzildu egiten gaitu, gure kultura eta sineste propioak deseginez, saldotar bihurtuz”.<sup>118</sup>

Miranderen paganotasuna ulertzeko, estetizismoa eta abertzaletasuna hartu behar dira kontuan. Sentiera artistiko hori ez da azalkeria hutsa; Mirandek bere burua eta harremanak ulertzeko modua da. Abertzaletasunari dagokionez, sustrai faltari eta haren bilaketari lotua agertzen da paganotasuna. Aro Modernoan, gaitz nahiko zabaldua da sustrairik eza, eta, ondorioz, horren beharra. Miranderen kasuan, horri gehitu behar zaio Parisen jaiotako zuberotarra izatea. Ipar Euskal Herria departamendu administratibo bilakatua dago, nortasunez gabetua eta kultura eta hizkuntza gutxituta. Hego Euskal Herrian gauzak ez daude askoz hobeto: mugimendu abertzalea hasia bada ere, jende epela, demokrata eta apala nagusitzen da, diktadura baten menpe egon arren. Parisi eta Madrili begira bizi da Euskal Herria, ito beharrean biziraun nahirik. Egoera horretan, Mirandek, euskaldun sutsua, Parisen bizi da; han Euskal Herria idealizatu egiten du, baina Euskal Herria etortzean, nahi eta gogo gehienak zapuztu egiten zaizkio: “Mirandek pagano da, paganismora heldu delako, nor-bere buru bila, sustrai bila, bai esteta bezala eta bai abertzale gisa. Bere nortasun guztiaren espresio du paganismoa”.<sup>119</sup>

Hori horrela, Mirandek paganismo abertzalea ere badu, nortasun historikoaren eta sozialaren bila baitabil. Esan daiteke galdera baten inguruan dabilela, modu batera edo

---

<sup>117</sup>ibidem, 33.

<sup>118</sup>Azurmendi, op. cit, 1989, 96.

<sup>119</sup>ibidem, 75.

bestera: zer dira, bada, euskaldunak? Erantzuna ematerakoan Mirandek atzera jotzen du. Nietzschek Grezia klasikora bezala jotzen du Mirandek kristautasuna iritsi baino lehenagoko euskaldunengana. Atzera joatearen bidez, benetako euskalduna bilatu nahi du; hori ez da kristau otzana, pagano bortitz eta indartsua baizik. Hori da, hain zuzen, Elizak hondatu duena.

Euskal espiritu jatorraren bila dabilenez, interes handia du mitologian, eta Barandiaran eta Azkue egiten ari diren bilketa-lana biziki estimatzen du. "Sorginen jainkoak" artikuluan azaltzen duen moduan, sorginak euskal sinesmenen zaintzaileak ziren; sorginei buruzko ipuinek euskal pentsamenduaren berri ematen digute: "Euskaldun bakoitzak, bere uste, filosofiko zernahi izanik ere, ohitura horietarik, mito horietarik, aberats ditzake bere burua, bere gogoia eta bere ikusmena; bai eta euskaldun idazle eta antzelariek ere bertan aurki dezakete beren langintzaren iturburu nasai bat: Finlandan, erraiterako, Kalevala-ko mitoetan Sibelius batek soinugintzarako, Kehonen batek irudigintzarako bere gaiak ediren dituen bezala".<sup>120</sup> Gainera, Mirandek esaten du sartaldeko beste mitologia batzuekin alderatuta, euskaldunena ez dela gutxiestekoa.

*Mirande eta kristautasuna* liburuan Joxe Azurmendik galdetzen du zinez zer ote den Miranderen paganismoa, eta nola ulertu behar ote den. Izan ere, garbi dago jolas hutsa ez dela. Dena den, ez dirudi, garai bateko errituak berregitea lortuta ere, orduko sinesmenak pizteko asmorik zuenik. Zer zuen orduan buruan? Peillenek dio Miranderen paganotasuna sentitzeko manera bat zela, askatasun aldarri bat, bizitzari eta bizitzako gauza onei bai esate bat. Honela laburtzen du Azurmendik bere iritzia: "Oso engainatzen ez banaiz, Miranderi, antzinako europarren jainkoez eta aldareez eta sinesmenaz mintzo den arren ´gure endaren bereizgarri` eta ´euskal endaren genio` gisa interesatzen zaizkio horiek, eta ez berez diren sinesmen eta aldare eta jainko gisa".<sup>121</sup> Beraz, paganoa da Mirande, edo kristautasunari kontra ginez beste sinesmen batzuk ditu?

Aurkaritzekin bukatzeko, aipa dezagun zer dagoen Sortalde/Sartalde bikotearen baitan. Sinesmen judu-kristaua ekialdetik etorria denez, sortalde kontzeptuak sinesmen hori adierazten du; mendebaldeak, aldiz, arima faustikoa esan nahi du. Ideia horiek Spenglerrengandik hartu zituen Mirandek. Zer esan nahi du, zehazki, mendebaldeak? Azurmendik dio kontzeptu kulturala dela; geografikoki Ebroren eta Weichselen artean dagoen lurra hartzen du, eta, historikoki, X. mendeaz geroztiko garaia. Spenglerrengandik hartutako ideien artean, bi dira garrantzitsuenak Miranderen pentsamendua ulertzeko: herriak kulturen produktu izatea eta mendebaldeko kultura arima faustikoan agertzea. Lehenengo horren arabera, kultura baten baitako herriak kultura horren obra direla esan behar da. Horrela, Euskal Herria Europako kulturak sortu duen herria litzateke, kultura baten baitan sortutako herri bakoitzak forma jakin bat hartzen baitu. Beraz, Euskal Herriaren kultura Euskal Herria sortu duena da, eta horretara jo behar dugu. Arima faustikoari dagokionez, apoliniarrari kontrajartzen zalitate gordinak baino. Indarrak, alegia".<sup>122</sup> Azken finean, historian ez dago ideiarik, gertakizunak daude.

---

<sup>120</sup>Mirande, op. cit, 1999, 385.

<sup>121</sup>Azurmendi, op. cit, 1978, 80-81.

<sup>122</sup>Azurmendi, op. cit, 1989, 101.

Spenglerren ustez, arima faustikoaren eta kristautasunaren artean ez dago kontraesanik; Nietzscheren eta Miranderen ustez bai, ordea. Dena den, Mirande ulertzeko garrantzitsuena da mendebaldeko jatorrizko arima nola ulertzen duen Spenglerrek, hori hartuko baitu oinarri zuberotarrak. Nietzschek eta Mirandek pentsatzen dute kristautasuna naturaren kontrakoa dela; horrela, ekialde/mendebalde aurkaritza kristautasun/mendebalde bilakatzen da. Mirandek kristautasunari arrotza izatea leporatzen dio; ekialdetik etorria denez, hangoentzat egina da, eta mendebaldean sinesmen arrotz horiek hartzean, mundu ikuskera irauli egin dute, hots, bertako erlijio jatorra desegin. Kristautasuna, gainera, juduekin eta esklaboen moralarekin identifikatzen da. Hori guztia biltzen du ekialde kontzeptuak. Izan ere, ekialdea nahimenaren eritasuna da; nahimen berri bat ekartzen dio izpiritu gaixoari. Nietzscheren ikuspegian, kristautasuna antzinako Greziako eta Erromako munduaren balioen iraultza da, ekialdeko esklaboen iraultza gorena. Hori da Europa osoan nagusitzen dena, bizitzaren kontrako gaitza, alegia.

Horrek guztiak ba al du zentzu arrazistarik? Jakina, kristautasunak sustrai juduak ditu. Nietzscheren ustez, juduek munduari ekarri dioten txarrena da kristautasuna, eta horren ondorio da mendebaldearen gainbehera. Dekadentziaren testuinguruan ulertu behar da Mirandek juduei buruz dioena. Hori aurrerago aztertuko dugu, orokorrean arrazari buruz duen ikuspegiarekin batera.

Ikusi dugunez, Mirandek Nietzscheren, Schopenhauerren eta Spenglerren pentsamenduko hainbat ideia hartu zituen bere etika mamitzeko. Dena dela, zuberotarraren eta alemaniarren artean bada azpimarratu beharreko bat ez etortze bat. Gorago esan dugun bezala, Schopenhauerrek eta Nietzschek benetako errealitatea Lehenengo Izate moduan ulertzen dute. Hori nahimena edo botere-nahimena da, ekintzaren bidez, bere nahia betetzea besterik bilatzen ez duena. Izatearen ikuspegi horretatik aise ondorioztatzen da filosofia praktikoa, hau da, bizitzari lotutako ekintza-indarrarena izatea. Miranderen ontologiari begiratzuz, ordea, ez dugu ikusten Lehen Batasun horretatik —nahiz eta bertatik sortu den mundu sentikorrean ageri zaigun guztia— nola ondorioztatzen duen borrokaren edo indarraren etika: “Horregatik ez da ikusten Miranderi bere ontologiak ikustera goazen erizkera etiko eta politikoak eskatzen zizkionik. Alderantziz dirudi, kietismoa eta nirwana bat eskatu beharko liokeela. Eta halere ‘egoismoaren’ eta Nahiaren etiko edo moral bat, antimoral bat, desarroilatuko du”.<sup>123</sup>

Nolanahi ere, Miranderen literatura eta artikuluak irakurrita, zalantza izpirik ez dago, jokabideari dagokionez, norberak bere buruari arauak ematea, hots, askatasuna, aldarrikatzen duela. Ez moral unibertsalik, ez gizarteko arauak eta jarraibideak betetzerik. Benetako gizakia, saldotik urrun dabilena da. *Haur besoetakoan* eta olerki zein narrazioetan, gizon metafisikoa, bere baitaratua; artikulu politikoetan, gizon indartsua, basa, ekintzari lotua eta senari jarraitzen diona.

#### 4. 6. Politika

Miranderen pentsamendu politikoa ulertzeko ezinbestekoa da Nietzscheren eta

---

<sup>123</sup>Azurmendi, op. cit, 1989, 76.

Spenglerren filosofia kontuan izatea. Nietzscheri hartu zizkion gizakiaren berezko izaera ulertzeko modua, moralaren ikuspegi antimoralista, bi moralen ideia eta demokraziaren eta kristautasunaren aurkako jarrera; hau da, gizakien arteko harremanetan ezberdintasuna aldarrikatzen duen ikusmoldea. Horrez gain, naturaren benetako izatea botere-nahimena da Nietzscheren pentsamenduan —naturako izaki izanik, gizakiari berari ere horixe dagokio—; horren arabera, naturan eta giza bizitzan dagoena borroka da, borroka horren helburua irabaztea da, eta bistan denez, indartsuenak irabazten du. Horregatik, historia ez da gaizkiaren eta ongiaren historia, ez da justiziaren garapena, ez da norabait eramango gaituen bidea. Historia borrokaren, hots, indartsuen garaipenaren historia da: irabaztea da helburu bakarra eta ez dago gertakizunak besterik. Jon Mirandek Spenglerrengandik mendebaldearen gainbeheraren ideia hartu zuen. Haren ustez, Europa zibilizazio fasean sartu da —kultura baten dekadentzia adierazten duen aldian—, nagusitu den gizaki-motak eta gizarte-antolaketak erakusten dutenez. Bi pentsalari alemaniarren ideia guztiak ez ditu oso-osorik hartzen Mirandek, baina horietan oinarritzen da pentsamendu politikoa eraikitzeko.

Halere, zuberotarraren ikusmolde politikoa ulertzeko, bada beste elementu garrantzitsu bat, Euskal Herriaren egoera, hain zuzen: bi estatu handiren menpe, kultura eta hizkuntza galzorian, ohiturak ia desagertuak eta gutxiagotasun konplexua nagusi. Mirandek ikusten du euskaldunak, asko eta asko, egoera horretara jarriak daudela eta ohartu ere ez direla egiten. Abertzaleek demokraziaren bidetik espero dute lortzea Euskal Herriaren askatasuna. Ataka berean daude European hainbat herri minorizatu. Mirandek garbi dauka Estatu handiek —demokratikoek ere bai— beren buruaren alde egiten dutela, eta herri txikiek ere hala egin behar dutela, hitz hutsen bidez ez baita deus ere eskuratzen ahal. Ikusi besterik ez dago zer lortu zuten euskaldun abertzale deserriratuak Espainako gerraren ondoren. Uste zuten Europatik eta Ameriketatik Francoren aurkako laguntza etorriko zitzaizela —euskaldunak onak eta demokrata zintzoak baitziren—, eta azkenean hortxe geratu ziren inolako onarpenik eta laguntzarik gabe Francoren diktaduraren menpe: "Izen haur harrtzea duten Euskaldunik gehienak, erran nahi dut, beren herria aske eta beren hizkuntza ohoretan ikhusi nahi dutenak, azken menderdion Europa iharrosi duten iazarrkhundeetan demokrazien alde ibill izan dira, nehoizko usterik hoberenekin: asmo demokratikoa euskaldungoaren ikurrik nabariena dela eta nazione handi demokrazi-zainek gudua irabaziz, Euskadirentzat irrikatzen zuten askatarzuna emanen zeraukotela uste baitzuten. Azken phondu huntaz zer gertatu den ikhusi dugu. Demokraziek gudua irabazi dute, bainan heietan igurikipen iarri eta heien aldamenean gudukatu zuten euskaldunak ez dira horregatik askeago".<sup>124</sup> "Euskaldun gudu-zalduntza baten beharrkiaz" artikuluko lehenbiziko esaldiak dira horiek. Garbi erakusten dute zer pentsatzen duen egileak demokraziaz eta herri demokratez: guri ez zaigu baliatu eta ez zaigu baliatuko.

*Schopenhauer, Nietzsche eta Spengler Miranderen pentsamenduan* liburuko laugarren atalean aztertzen du Joxe Azurmendik Miranderen politika. Etika eta politika, filosofia praktikoaren baitakoak izaki, giza jokabide eta ekintzei buruzkoak dira. Etikari buruzko atalean ikusi dugu Miranderen zer alderdi diren nagusi eta noren eragina duten. Politikaren kasuan, ekintzak gizartea duenez helburu, arazo edo kezka batzuk sortzen dira.

---

<sup>124</sup>Larrea, op. cit, 1985, 19.



Mirandek bere burua eskuinekotzat eta faxistatzat agertzen du hainbat eskutitzetan. Arrazismoaren gaineko artikulua pare bat baditu frantsesez —*Race, peuple et nation I* eta *Race, peuple et nation II*— zalaparta handia sortu zutenak, eta baita Jean-Louis. Davanten, Jacques Abeberryren eta Piarres Larzabalen erantzun irmoa jaso ere.

Hegats aldizkariaren 50. zenbakian, Ander Iturriotzen zuzendaritzapean, zenbait idazlek —Itxaro Borda, Patri Urkizu eta Emilio Lopez Adan— Miranderen ideologia eta politika aztertu zituzten. Ander Iturriotzen ustez, Miranderen pentsamendua folkista, faxista, arrazista eta antisemita da, eta Mirandek Euskal Herriari egindako ekarpena handia izan dela aitortzen duen arren, haren ideologiaren ezaugarri batzuk agerian jarri behar direla iruditzen zaio.

Itxaro Bordak ez dauka zalantzarik Miranderen faxismoaren eta misoginiaren inguruan. Esaten du argi eta garbi ikusten dela hori haren idatzietan, eta gehitzen du faxismoaren eta misoginiaren arteko lotura aztertzea interesgarria litzatekeela. Patri Urkizuk Miranderen lana, bereziki, alderdi literariotik aztertzen du; halere, beste testu batzuetan irakurtzen diogu Miranderen arrazismoak kezkatzen duela. Izan ere, Mirandek Europako herri gutxituekiko sentiberatasun izugarria izan arren, zuriak edo europarrak ez diren munduko beste *arrazak* gutxietsi egiten ditu, eta, indarraren legearen aldekoa denez, Europak munduan koloniak izatea eta beste herrialdeetakoak mendean edukitzea bidezko ikusten du. Horrek guztiak, Urkizuren ustez, talka egiten du beste alor batzuetan erakusten duen sentiberatasunarekin.

Emilio Lopez Adanen iritzia Nora Arbelbidek egiten dion elkarrizketaren bidez azaltzen da. Haren ustez, Mirande, dudarik gabe, idazle faxista izan zen —Céline bezala, adibidez—, eta hori esan egin behar da. Garbi utzi nahi du ezin dela Miranderekiko miresmena bultzatu ezaugarri hori kontuan hartu gabe. Joxe Azurmendik, aldiz, Miranderen faxismoa ez dela bere lanean agertzen dio, ez bada gutun pertsonaletan eta lagunen lekukotzetan. Nolanahi ere, artikulua batzuetan juduen kontrako jarrera agertzen du; era berean, “Ene artikulua baten kritikaren ondotik” artikuluaaren laugarren oharrean, faxistek egindako sarraskia beste sarraski batzuekin alderatzen duela ikusten dugu —komunistek egindakoarekin, esate baterako—: “1930 urthearen inguru, komunistek 6 edo 7 miliun laborari erho zituzten Ukrainian —hala dioite behintzat herbertzekatuek (ikhus *La Nation Géorgienne*, 1961-ko eta 1962-ko urthrarrilako numeroak)— eta halarik ere jendertik askotto, erran delako Europa librean, bai eta Euskalherrian ere, komunistak edo komunisten bide-lagun dira, kontzientziarik hoberenean [...]. Bainan, erranen derautate, sarraskiak, goseteak, zihor-zelhaiak e.a. komunisten, giristinoen eta bertze demokraten artean azaleko zerbait, ez-beharreko zerbait dira, Nazional-sozialismuaren izaerazko direlarik... Zilhegi izan bekit exegesis hortan ez sinhestea, othoi!”<sup>125</sup> Alderaketa horren inguruan eta indarra erabiltzeari buruz, honako hausnarketa egiten du Lopez Adanek: “Erran nahi baita, erraiten dugularik faxismoa gaizki zela. Bai, ados, dioskute, baina faxismoak hau egin bazuen, demokraziak, hau, hori eta bestea. Erantzunak onesten du horrelako erlatibismo bat. Azken finean, faxismoa eta demokrazia berdina direla, edo [...]. Eta horrela lotura egiten zen

---

<sup>125</sup>Larrea, op. cit, 1985, 113.

boterearen arazoarekin. Hemen, dioskute, garrantzia duena zer da? Irabaztea. Irabaz dezagun. Irabazteko zer behar da? Bestea baino azkarrago izan. Irabaziko dugunean, orduan izango da justizia. Baina bitartean, jo. Eta indartsuenek irabaziko dute. Nire ustez, pentsaera okerra da, eta eskuin muturrari hurbiltzen gaitu. Dominazioa helburu duen indarra ez da berez justifikatzen den gauza naturala. Indarra erabiltzen da helburu batendako, demokrazia bezala. Sistema demokratikoa jendeen askatasuna bermatzeko sortu da: erabiltzen bada jendea zapaltzeko, kontradikzioan da. Biolentzia, hain zuzen, legitimoa da askatasuna begiratzeko erabiltzen duzunean, zanpatua zarelako. Baina biolentzia erabiltzen baduzu boterea lortzeko, boterea finkatzeko, hori ez. Alta, arazoa nahasia da, zeren eta libre izateko boterea behar dugula pentsatzen baduzu, hori ez da berez pentsaera totalitarioa”.<sup>126</sup> Pasarte horretan, askatasunaren, boterearen eta indarraren zilegizko erabileraren gaineko hausnarketa egiten du Lopez Adanek, eta Mirandek indarrak duen iritzia ulertzeko baliagarria izan daiteke lotura hori. Dena den, testu berean, jarraian, Mirandek euskaldunek Lizarrako juduak hil izana ez dela lotsatzekoa esatea erabat gaitzesten du Lopez Adanek.

Ander Iturriotzek idatzi du testurik luzeena, eta aztertu ditu Miranderen pentsamenduaren ildo nagusiak: zer egoeratan sortu zen, zer egilek eragin zuten eta Miranderengan zer motibazio izan zen nagusi eskuineko pentsamendu horrek sustraiak har zitzen. Lan horretan, Miranderen pentsamendu filosofikoan eragin handiena izan duten filosofoez gain, Ortega y Gasset ere aipatzen du. Iturriotzek uste du Mirande egile horietara abertzale bretoi nazizaleen bidez iritsi zela; gazte-gaztetan ezagutu eta bizitza guztian lagun izan zituen. Haien bidez jabetu zen herri gutxitu eta menderatu bateko kide zela, eta euskalduna zelako zela, hain zuzen, europarra; bizitza guztian zehar menderakuntza horren aurka borroka egitea izan zuen motibazio nagusietako bat Mirandek. Behin eta berriro aipatzen du, adibidez, Europako herri gutxituek elkar hartu eta talde bat osatu beharko luketela zanpatzaileari elkarrekin aurre egiteko: “Europa geu gerade Euskalerrria, Katalunia, Britainia, Flandeserrria, bai eta Gaztela, Gaskoinia, Normadia, Baviera e. a., hau da beren tradizioari leial egon diren egiazko erriak oro. Europar erri guztion batasunari buruz abia gaitzean, bai, leenago alkarren artean ditugun gorrotoak eta liskarrak hortarako aaztuz, bakoitzak geure nortasuna gordetzen dugun ber: oinarritzat erri bereziok ezagutzen ez lituken Europarik es baititeke izan. Horrengatik, hain zuzen ere, geure lenengo eginbidea Europar onak geran aldetik euskaltasuna zutiñik iraun eraztea dugu, gure izkuntza debekatuz, gure lege zaarrak kenduz, gure odol-garbitasuna edonongo erbestetarrak gutartera etor erazirik galbidean jarriz euskaltasuna galdu naiean dabilzan arerioai gudu egin bear ba diegu ere”.<sup>127</sup>

Iturriotzek *Hegatsen* esaten duena hartuko dugu oinarri Miranderen eskuineko ideologia eta ikuspegi politikoa aztertzeko, eta, segidan, Joxe Azurmendik dioena gehituko diogu. Iturriotzek garbi du Mirande folkista, faxista, arrazista eta antisemita zela. Folkismoa Bigarren Mundu Gerran Europa iparraldean eta Frantzia sortu zen mugimendua da, eta honako ezaugarri hauek biltzen ditu Iturriotzen hitzetan: “Neo-paganismo etnizista eta komunitarista; azterketa historikoen bidez, oinarri etnikoa duen erlijio panteista eta politeista bat berreraikitze asmoa, horretarako, bereziki, zelten eta

---

<sup>126</sup>Hegats 50: *Jon Mirande: gogoeta itxi gabea*, Donostia, 2013, 220-221.

<sup>127</sup>Larrea, op. cit, 1985, 60.

germaniar-eskandinaviar paganismoak hartuko dituen eta, halaber, helenismoaren eta hinduismoaren ekarpenak; kristautasunaren dogmekin hautsi beharra; partikularizazioak ezeztatzen zituen unibertsaltasunaren ukapena; arraza zuriaren, arraza indoeuroparraren gorespena eta, ondorioz, arrazakeriazko jarrera; antisemitismoa eta negazionismoa; aristokrazia zaharraren eta herri gerrarien mistika; erreferentzia erromantikoak; neobitalismoa; odolaren eta indar naturalaren gorespena; dinamismo indogermanikoa, estatismo kristauaren aurka; esoterismoa, okultismoa eta irrazionalismoak”.<sup>128</sup> Zerrenda hori osatzen du folkismoa ezaugarritzeko, eta gehitzen du ideia horiek lehenagotik nazismoak sozializatu zituela.

Iturriotzek Mirande folkismoan kokatua ikusten du bete-betean. Esan bezala, herri gutxitu batekoa izatearen kontzientzia Frantziako beste herri batzuetako kideen bidez izan zuen. Herri gutxitu horiek, Bigarren Mundu Gerra hasi zenean, bazuten itxaropena alemanek, irabaziz gero, askatasuna eman edo, bederen, beren izaera eta nortasuna errespetatuko zituztela: “Mundu Gerrakoan minoritate herri askok aprobeztatu nahi izan zuten Alemania naziaren eraso, nazien laguntzaz ordura arteko zapalkuntzatik altxatzeko. Mirandek ezin hobeagotzat zeukan jokabide hori”.<sup>129</sup> Ideia hori zabalduz lortu zuten naziek hainbat abertzaleren lankidetzan, baina abertzale horiek gogor zigortu zituzten gerra bukatu zenean: “1944garren urtean —zeinbatentzat «liberazino» aren urtea izan ba da ere— berriz ere frantzitar zentralisten uztarpera erori gera osoki. Beren erriaren alde zerbait egitera saiatu ziren abertzaleak errukirik gabe persegiturik izan ziran, Alemanen lankide izandako Frantzitarrak baño lazkiago noski; aipa Goihenetxe Euskaldunen artean, Petru Rocca Korzikar, Gantois apaiz jauna Flandesetan. Bretainian bereziki, ugari baitziren abertzaleak erri hontan, izugarriko sarraskiak egin zituzten emakume ta aurrak erailduz, presondegian ezarriz e.a”.<sup>130</sup> Horrela azaltzen du “Frantzitar errepublikaren menpeko herriak” artikuluan Mirandek. Lehen ere aipatu da abertzale bretoiekiko harreman estua izan zuela bizitza osoan zehar.

Arrazari dagokionez, Jon Mirandek garbi zuen giza arraza ezberdinak bazirela, eta zuria, Europako jatorrizko arraza izaki, kanpotik datozen beltzek eta horiek hondatzen dutela. Horixe adierazi zuen artikulua hauetan: “Kultura eta folklorea”, “Race, peuple et nation”, “Euskadi eta Europa”, “Frantziako errepublikaren menpeko herriak”, “Euskaldun gudu-zalduntza baten beharrkiaz”. Juduen kontrako jarrera azaltzen da beste batzuetan —“Goncours saria dela eta”, “Frantzia de Gaulleren kespipetan” — eta hainbat eskutizetan; azken horiek bizitza pertsonalari dagozkio, ordea, eta ez ditugu hemen kontuan izango. Dena den, esan behar da Mirandek juduen kultura eta hebreera ezagutzen eta miresten zituela eta egile judu baten olerki bat itzuli zuela haren pentsaera azalduz batera —“Judaica: Xa’ul Txernikhovskiren poema bat euskaraz” —.

Kristautasunari aurre egin beharraz eta paganismo zaharra ezartzeari buruz, ikusi

---

<sup>128</sup>Hegats 50, 91.

<sup>129</sup>Azurmendi, op. cit, 1978, 51.

<sup>130</sup>Larrea, op. cit, 1985, 55.

dugu kristautasunak balio ahulgarriak ekarri zituela Europara eta Euskal Herrira Miranderen ustez. Jon Mirandek euskal sinesmenak eta mundu ikuskera berreskuratu, edo, gutxienez, ezagutu egin nahi zituen, horiek baitziren euskaldunon benetako jakintza osatzen zutenak —horretaz mintzo da “Zientzia berri bat: Psikologi gairikoa” eta “Sorginen jainkoak” artikuluetan, eta hainbat ipuinetan—. Sinesmen horiek, batzuetan, zeltenekin erlazionatuta ikusten ditu —“Bereterretxen kantuaz oharpen bat” eta “Giza lekoreko izateak euskaldunen eta kelten folkloretan”—. Eleberrian eta hainbat olerkitan iparraldeko herrien eta kulturen mira agertzen da eta baita kultura klasikoarena ere. Aristokraziari eta zalduntzari gorazarrea egiten die euskaldun berezkoa nolako izan den adierazten duen aldioro, eta eleberriko gizona deskribatzerakoan ere beste hainbeste.

Erreferentzia eta elementu erromantikoak ugari dira, literaturan bereziki: gizarte moderno eta aurrerakoiaren aurkakoa da, esate baterako, *Haur besoetako* eleberriko gizona. Poemetan, heriotza heroikoaren goraiapamena egiten da, “Eresi” olerkian, adibidez. Ipuinetako elementu asko panteismoari eta politeismoari lotuak daude, eta heriotzak benetako izaterik ez duela dirudi narrazio batzuetan —“Gizeraile baten azken orduak”, “Zinopa”— eta zenbait olerkitan —“Nil igitur mors est”—.

Partikularra ukatzen duen unibertsaltasunari aurre egitea aipatu du Iturriotzek folkismoaren ezaugarrien artean. Ez da harritzekoa Jon Mirandek ideia horrekin bat egitea kontuan hartzen badugu Frantziako Iraultzaz eta iraultza horrek Euskal Herrian izandako ondorioez zer iritzi zuen: “1789garreneko Jazarmendu edo Matxinada aundiak ordea gauzak alda erazi zituan zearo, ez bakarrik Frantzitarrentzat, errege-erregiñai lepoa moztu ta Errepublika jarriz, baiñan bai erri txipiontzat ere. 1789garreneko dagonillaren 4ean jazarleek gizon bakoitzen eskubide bereziak eranzi ba zituzten, uri ta provintzienak ere kendu zituzten: provintzien eskubide bereziok, bada, errien lege ta usantza zarrak ziran, erregeek konkistatu ondoren utzi zikietenak. Urtebetegarrenean, jazarleak urrutiago joan ziran bide ortatik: provintziak berak ezeztatu zituzten ta haien orde zailketa administrativu berri bat asmatu zuten, erresuma beren naiera departamendutan zatikatuz”.<sup>131</sup> Erregimen Zaharraren desagitea ekarri zuen iraultza horrek, gizon-emakume guztiak berdintzeaz gain, herri eta kultura guztiak ere berdindu nahi zituen —berriazko ezaugarriak kendu, hizkuntza eta ohiturak, bereziki—. Horren ondorioz, Frantziaren baitako herriak desitxuratu eta departamendu administratibo bihurtu zituzten, inolako izaera eta ezaugarri berezirik gabe. Denak berdinak, denek eskubide berak, heziketa eta betebeharrak; hitz batean, denak frantsesak eta kito! Horren aurrean etengabe kexu agertzen da Mirandek artikuluetan —“Euzkadi”, “Abertzaletasunaren inguruan”, “Frantzitar errepublikaren menpeko herriak”—, eta agerian jartzen du Espainako diktadura bezain kaltegarria dela Euskal Herriarentzat Frantziako Errepublika.

Idazle eta aztertzaile askorentzat hain begi-bistakoa den faxismoaz zer esan dezakegu? Iturriotzek, adibidez, garbi du Mirandek faxista dela, nahiz eta Mirandek idatzitako testuetan ez den horrelakorik ageri. Miranderi faxismoa leporatzen dioten bakoitzean, haren eskutitzak eta eskutitzetako pasarte jakinak aipatzen dira. Horrelakorik ez bada, Le Penekin

---

<sup>131</sup>Larrea, op. cit, 1985, 51.

ateratako argazki bat, lagun abertzale bretoiekiko harremanak, aldizkari faxista batentzat artikuluak idatzi izana edo aldizkari horietako baten harpidedun izatea. Lehenago esan dugun bezala, Miranderen gutun horiek, nahiz eta gaur egun argitaratuak egon, eskutitz pribatuak dira eta, haren pentsatzeko maneraren berri ematen badute ere, berak ez zituen argitaratzeko eta edozeinek irakurtzeko idatzi.

*Hegatsen* agertutako ideiei buruz aritu gara Miranderen ideia politikoen nondik norakoak azaltzeko asmotan. Aldizkari horretan bertan esaten du Iturriotzek faxismoa anti-ideologia bat dela, bere baitan koherentzia politikorik gabea. Ideologia horrek, ekintza politiko bihurtuta, XX. mendean zer ondorio izan duen esan beharrik ez dago: modernitateak erakutsi duen bortizkeria sistematiko krudelenetakoa. Horri buruz, zer dio Mirandek? Sarraski horien egileak gaizkile eta psikopata gisa tratatzen ditu artikulu batean, era berean, beste herri batzuetan ere badirela halakoak esateko. Gertatutakoa ukatu ez du egiten, baina demokraziaren izenean egindako beste triskantza batzuk aipatzen dituzenez, erlatibizatu egiten duela ematen du.

Dena den, Azurmendik Miranderen ikuspegi politikoa filosofiaren alorrean aztertzen du, eta esaten du zuberotarrarena ez dela faxismo politikoa, kulturala baizik. Azaldu ere egiten du zergatik duen iritzia hori: “Asuntoari ematen zaion inportantzia emateko, ez dago oinarririk haren pentsabidetan. Haren obra literarioan, alegia. Haren faxismoaz eta arrazismoaz dakigun gehien-gehiena eta zehatzena, lagunen testimonioetatik eta gutun partikularren batzuetatik dakigu”.<sup>132</sup> Mirandek ez da inola ere demokraziaren aldekoa: batetik, gizaki guztiak berdindu egiten dituelako, eta, bestetik, Euskal Herriarentzat kaltegarria izan delako. Demokrata ez zenak bi aterabide zituen garai hartan: komunismoa edo faxismoa. Bistan da Miranderen ikusmoldearekin ez datorrela bat komunismoa eta, beraz, faxismoa du irtenbide bakar: “Miranderen ‘faxismoa’ eta ‘arrazismoa’ ez dira kontestatari baten alarde hutsa (baina bai hori ere); ez dira tenperamental hutsak (baina bai hori ere); eta ez dira ezerekin koherentzia gabekoak —baina bai beste Miranderen alderdi askorekin koherentzia gabekoak. Mirandek ‘izpiritu aske bat’ zeritzan bere buruari; ‘irakurle izpiritu zabal gehiago’ eskatzen zuen; Buddhazale zen, Kafkazale zen...”.<sup>133</sup>

Ondorioz, Azurmendiren lanaren arabera, Miranderen faxismoa ezin da faxismo politiko gisa ulertu: haren testuetan ez da agertzen, egiten dituen aitorten pertsonalei begira kontraesanak ikusten dira nonahi eta ezin da esan koherentzia teorikorik badenik. Gainera, askatasunaren aldarriak berebiziko indarra du, eta bere burua eskuineko aitortzen badu ere, eskuinak ez du maite izan, ez baitu indarrean den eskuinarekin bat egiten. Miranderen faxismoa kultura-kritika gisa, hau da, Nietzscheck egiten duen kritikaren modura ulertu behar da: “Ez zen, halere, ‘ideologia’ soila: ez zen filosofia bakarrik. Alegia, Miranderen ‘faxismoa’ ez zen jarrera ‘visceral’ famatu horietakoa, ikusten ari garenez, baina filosofia oso bat, tradizio haundi batekin historian, bere baitan ongi tratatua. Bestalde, ordea, ez zen filosofia hutsa, autore aleman estrainio batzuen obretan ikasia, ezpada errealki

---

<sup>132</sup>Azurmendi, op. cit, 1978, 48.

<sup>133</sup>Azurmendi, op. cit, 1978, 54.

Euskal Herriaren historiaren eta egoeraren eta analisisetan hartzen zuen oin”.<sup>134</sup> Hauek dira zuberotarrarengan eragin izan zuten elementuak: filosofia alemaniar irrazionalista eta bitalista, batetik, eta, bestetik, Euskal Herriaren egoera politikoa. Egia da, halere, eskuineko taldeekin ekintza politikoetan aritu zela, baina horren berri ere eskutitzen eta lekukotzen bidez jaso dugu —ez artikulu edo literatura-testuetan—, eta, gainera, jarduera hori ez zegoen batere ongi ikusia Frantzia garai hartan: bazterreko jarduera bat zen, inolako eragin politikorik izateko aukerarik gabea, are gutxiago Parisen bizi ziren euskaldunen eta bretoien eskutik etorrira.

Aurreko ataletan ikusi dugu zer kultura-kritika egin zuen Nietzschek eta zer egoeratan ikusten zituen Europa eta Alemania. Kultura judu-kristauak ezarritako esklaboen moralak nagusitu zenetik, ahula denak ezartzen ditu balioak, eta horiek balio ahulgarriak dira, erresuminetik sortuak: diferentziak ezabatu egiten dituzte, gizaki sortzailea desegin eta, hortaz, gizakia ez dute hobetzen. Hori guztia ikusten du Nietzschek Europan, orokorrean, eta Alemanian bereziki; testu askotan salatzen zuen moralaren erabilera hori. Natura botere-nahimena den bezala, gizakia bera ere hala da; funtsean, bizitza botere-nahimena da. Bestelako planteamendu moralistetan, gure burua ukatu egiten dugu. Bizitzak, historiak eta ekintzak zentzu jakin bat balute bezala, hau da, Jainkorik balego bezala jokatzeko, gizakiak berak asmatutako egiak sinestea besterik ez da. Ez dago Jainkorik, ez dago moralak erabakitzen duen epailerik, ez dago egiarik, dena giza asmakizuna da. Horixe da Nietzschek iragartzen duena.

Mirandek Nietzschekin bat egiten zuen moralak eta erlijio judu-kristauak kritikatzekoan, baina ez protestantismoari buruzko iritzian. Gogor jotzen zuen erlijio protestantearen kontra Nietzschek, eta Mirandek, berriz, “Euskaldungoaren etsaiak” artikuluan esaten du euskaldunen historian hura izan zela Euskal Herria salbatzeko azken aukera: “Ai beren aitzinako paganizmuaren begiratzera herabe izan ziran Euskaldunok, behintzat protestant bihurtu izan ba lira Euskalherria salbatuko zan ezbairik gabe, herri bat denetik. Albreteko Joanna eta Leizarraga hotsemaile genituela, berphizkunde bati buruz ginhoazen bai herriketan, bai inteligentzian: gure gogo-hertstura dela kausa, hala ez da izan... Gurt gakisien, halaz ere, Reforman alderdi hartu zuten Zuberotarr eta Nafarrtar Aitorseme zintzo heiei: hobe baita gudukatu eta galtzea batere ez gudukatzea baino”.<sup>135</sup> Europako jatorrizko jaunaren arrazaz ere ez du ematen ikuspegi bera dutenik, eta Nietzschek egiten duen deskribapena kontuan izanda —die Blonde Bastie, basapizti hilegorria—, pentsatzekoa da Nietzschek euskaldunak ariar aurreko arraza buru beltz menderatuen artean sartuko zituela.

Nolanahi ere, biek ala biek, dekadentzian ikusten dute Europa, arraza ahulduta, saldo-moralak nagusi: bakezaletasuna, demokrazia, sozialismoa eta berdintasuna. Horiek dira esklaboen moralaren balioak, eta horiek berek erakusten dute zer egoeratan dagoen Europa. Salaketa horrekin bat egiteaz gain, Mirandek Euskal Herrira ekartzen ditu horren ondorioak, eta Nietzschek hitzak “europar on izan gaitezen” aipatzen ditu testu batean baino gehiagotan. Euskalduna izateagatik zen Mirande europarra, europar kulturaren baitan sortua

---

<sup>134</sup>Azurmendi, op. cit, 1989, 150.

<sup>135</sup>Larrea, op. cit, 1985, 33.

baitzen Euskal Herria. Esana dugu horretan Spenglerri jarraitzen ziola Mirandek; haren ikusmoldearen baitan, kulturek sortzen dituzte herriak, eta ez alderantziz.

Spenglerrek kultura-morfologia egiten du, eta kultura bakoitza bere baitan aztertzen du. Kulturak ez ditu bata bestearekin lotuta ikusten, bakoitzak bere bidea eta garapena baititu. Kulturek organismoek bezala funtzionatzen dutenez, sortu, garatu eta zahartu ondoren, hil egiten dira. Azterketarako hainbat elementu kontuan izanda —gizakiaren morala eta gizarte-antolaketa, esate baterako—, Europa gainbeheran ikusten du Spenglerrek. Kultura bat endekatzen ari denean sortzen den gizarteari zibilizazio esaten dio; kultura guztietan iritsiko da zibilizazio zikloa, bizidun guztiengan zahartzaroa bezala. Europako zibilizazio modernoaren hasiera XVIII. mendean kokatzen du, Rousseauarekin batera. Funtsean, zibilizazioak balio guztien iraulketa eskatzen du: “Gizarte bizitzaren intelektualismoarekin, kreatibitate aldiaren sortutako maila eta arrangoen begirunea galtzarekin, berdinketarekin, etc.”.<sup>136</sup>

Etikaren atalean aipatu dugu Spenglerrek zer bereizketa egiten duen nobleen eta apezten moralaren artean. Nobleena senezkoa da eta ez du bere burua auzitan jartzen; lurrari lotua, barne eskaerari jarraitzen diona, nekazaritza goratu bat. Apeztena, ordea, hiri handi eta artifizialeko jendearena da, hizkuntza abstraktua nagusitzen da haiengan, eta teoria bat behar dute bizitzan kokatzeko: naturatik urrundu den gizakia. Apezten morala nagusitua da Europan; horrek erakusten du gizarte zahar bat dela europarra, indarririk eta adorerik gabea. Horrelako gizarteetan, saldoa nagusitzen da, eta agindu egiten du. Zibilizazio garaian ez dago sormenik, eta kulturak sormen-garaian eman duena desegin egiten dute: “Masa-gizartean, kultur gizarte kreatiboan eragile ziren printzipioen ordez, dirua bihurtzen da eragile eta printzipio nagusi. Politikan: alderdiak, demokrazia”.<sup>137</sup> Laburtuz, zibilizazioan, senak eta barne indarrak gidatutako gizartearen tokian, kultura-gizona nagusitu da; lurrari lotutako gizon natural sortzailearen ordez, intelektual kaletar sustrairik gabekoa daukagu.

Gizarte endekatuaren ikuspegi hori bete-betean hartu zuen Mirandek, bai Europaren egoera ulertzeko, baita Euskal Herrikoa azaltzeko ere. Nonahi alderdikeria, intelektualismoa, ahulen morala, diruaren gurtza, gizakien arteko berdintasuna, alderdikeria politikoa, makurkeria, maltzurkeria... ikusten ditu. Euskaldunok europar on izan nahi badugu, jarrera hori erabat irauli behar dugu eta indarraren eta borrokaren bidez egoera aldatu. Spenglerrek berak zesarismoa edo agintari berri baten etorrera iragartzen du.

Nietzscheck eta Spenglerrek Miranderen pentsamenduan izan zuten eraginaren inguruko azalpen hau bukatu aurretik, esan behar da alor batzuetan ez zuela haiekin bat egin, edo nahita, akaso, alde batera utzi zituela puntu batzuk; hau da, haien filosofian oinarritu zen berea eraikitzeko: “Egia esateko, bere moduratsu hartu ditu Autoreok, oinarri-oinarritzko punturen batzuetan bederen. Adibidez, O. Spenglerekin ez da erraza euskaldunok naziotzat hartzea, ezta herrizat ere. Nietzschekin badirudi euskaldunok herri

---

<sup>136</sup>Azurmendi, op. cit, 1989, 120.

<sup>137</sup>Azurmendi, op. cit, 1989, 121.

madarikatutzat eta dekadentziaren kausantetzat ikusi beharko genituzkeela geure buruok...".<sup>138</sup>

Politikaren atalaren hasieran esan dugun moduan, Nietzscheren eta Spenglerren filosofia bereganatzen du Mirandek, hau da, bere egiten du, interpretatu eta ondorioak ateratzen ditu Euskal Herriarentzat. Hori hobeto ulertzeko, hona hemen "Izan basa" artikulua azken hitzak: "Politikan ere, garrantzi ta onuren andiko duzute basatasuna, batez ere erri-arteko politikan. Errien arteko legea auxe baita: borrokatu naia ez duna, borrokatuko dute ta il nai ez duena, ilko dute. Borrokan saldunki ibiltzea ongi bada, irabaztea an obeto da. Orretarako, etsaiari al bezan-bat min eragiteko gogoia euki bear du borrokariak; basa izateko gogoia euki bear du. Arazo ortan emeki ta txintxoki ibili nai lukeenak kalte egingo lioke bai bere buruari, baita -geiago dana- on aldezten duen auziari. Izan basa!...

## 5. MIRANDEREN IDATZIAK

Mirandek olerkiak, narrazioak, artikulua eta eleberri labur bat idatzi zituen. Horrez gainera, lehen esan bezala, hainbat olerki, testu eta narrazio itzuli ere egin zituen. Eleberri laburra izan ezik, gainontzeko lan guztiak garai hartako aldizkarietan argitaratu zituen. Ez da erraza zer idatzi zuen zehaztasunez jakitea, bai baitziren inoiz argitaratu gabekoak (Nietzscheren *Honela mintzatu zen Zaratustra*, adibidez) eta beste hizkuntza batzuetan argitaratutakoak ere (bretoieraz, gaelikoz, esate baterako).

Dena den, hemen atalez atal gaur egun Miranderen lanetik zer deagoen argitaratua aipatuko dut.

- **Narrazioak**

Behiak  
Bi aoak  
Jon Dane Aquerrunen bicitce saintia  
Ametsa  
Ur bazterrean  
Zazpi gizeraile  
Zinopa  
Gaizkile baten azken orduak  
Maitarien arnoa  
Eresi kantari  
Gauaz parke batean

- **Miszelanea**

Kofesio ona

---

<sup>138</sup>ibídem, 123.



Sadikoen zokoa  
Euskaldunen sptrip-teasea  
Vasconicae Linguae erotici glossari tentamen  
Sagarra zergatik

- **Ipuin itzuliak**

Ixiltze (Edgar Allan Poe)  
Mette (Jutlandeko ixtorio zahar bat, anonimoa)  
Amontillado upela (Edgar Allan Poe)  
Legearen aitzinean (Franz Kafka)  
Ipuin kondatzailea (H. H. Munro "Saki")  
Bi fraideak (S. O'Neill)  
Burua (B. Manciet)  
Leiho irikia (H. H. Munro "Saki")  
Gizon-zugaitza (Séamus ó Mainnin)  
Adarra gatik adarra (Giovanni Boccaccio)  
Itzal (Estalitz bat) (Edgar Allan Poe)  
Lehoin zintzoa (Ernest Hemingway)

- **Olerkiak**

Lenago bizi zan Euzkadi  
Maitarzun  
Neskatxak  
Jauregi hotzean  
Ametsetarik  
Pigalle  
Ilhunabarrez  
Jeiki Jeiki  
Oianone  
Akhelarre  
Igelak  
Orhoituz  
Peillen´dar Robert  
Eresi  
Lili bat

**Zergatik**

Behin batez, Zuberoan...  
Aztiatze

Harrizko Jainko bati

**Orziren ttunttuna**

Ohiko Jainkoari

**Nil igitur mors est**

"Nil igitur mors est" poemaren giltza

Undina

**Otso**

**“Otso” poemaren giltza**

Itxasuntzi zaharra

Zakhur hil bati

Paranoia

Larunbat arrats

Kama-Goli

“Kama-Goli” poemaren giltza

Eder bati

Belarri-motzai

Ituntasun

Hiru putattoak

“Limerick”

Eztei berri

Euskaldun zintzoen balada.

Igorre

Paris beuret

Jai gai

Godu abestia

Ortzi-ren zaldunen gudu kanta

Larrazken gau batez

Amsterdameko orhoitzapen bat

Txoriontasun

Euskaldun laminei

Sanguis martyrum

Ederrak

Eusko arima eder

Hire bila, neskatoa

Jainkoen bakean beti bizi zaite

- **Olerki itzuliak**

Bi beleak (eskoziar kanta zaharra, anonimoa)

Ba nin adiskide bat (Ludwig Uhland)

Bela (Edgar Allan Poe)

Lotzilak hamabi (Per Denez)

Zai zurien karrikan (J.P. Sartre)

Goiztar txoriek kanta bezate (Leon Jasson)

Mendi gallurretatik (Friedrich Nietzsche)

La belle dame sans merci (John Keats)

Hirur lili = Drei lilien (Abesti aleman zahar bat. anonimoa)

Kantatzen du kantuz (Gaston III, Comte de Foix)

Lekhoreko biziarena (Hugo von Hofmannsthal)

Eros arrosen artean (Anakreonte)

Zaldiz zeruan (Stan Joans)

Erri-min (Friedrich Schiller)

Atzerriko neskatilla (Friedrich Schiller)  
Ez diteke nor-nai izan pagano (René de Clercq)  
Kattalin (“Clementine” england doiñuz) (Percy Montrose?)  
Osto hilak (Jacques Prévert)  
Ene Biotzeko Maite Argia (Hebrideetako maite-kanta, anonimoa)  
Antoñito Camborioaren eriotza (Federico García Lorca)  
Lullabyland (Alec Wilder)  
Ene kutuntxu (George H. Clutsam)  
Mozkor zaite (Charles Baudelaire)  
Judaica (Xa’ul Tcherniakovsky)  
Apolonen irudi baten aitzinean????

- **Bestelako testu itzuliak**

Breizera (Per Denez)– Iru errien alegia (Mark Legatz),  
Humore beltzaren modelak (anonimoak)  
Ipuin beltzak (anonimoak)  
Lehen gauko kanta (Goulven Pennaod)  
Orrela mintzo zan Zarathustra (Friedrich Nietzsche)

- **Eleberria**

Haur besoetakoa

- **Artikuluak**

**Gizalekoreko izateak euskaldunen eta kelten folkloretan**

Hizkuntza baten heriotzaz eta berpizkundeaz  
Irlandara, haren egoera eta egungo estatua

**Jakintza berri bat: psikologi gindikoa**

**Nere sinestea**

**Sorginen Jainkoak**

Abertzaletasunaren inguruan  
Berterretxen kantuaz oharpen bat  
Gocourt saria dela ta

Ene artikulu baten “kritika”-ren ondotik

Euzkadi eta Europa

**Euskaldun gudu-zalduntza baten beharrkiaz**

**Euskaldungoaren etsaiak**

**Euskaltasun romantiko baten alde**

Frantzia de Gaulleren kepispean  
Frantzitar errepublikaren menpeko herriak  
Herri saindu eta demokratikoaren parabola  
Igelak azken hitza bere  
Kultura eta folklorea

Liburu lizunetaz  
Euzkadi (gaztelera)  
B. Etchegorriry ihardespena (frantsesez)  
Historia de la literatura vasca (gaztelera)  
L'autre son de cloche ( frantsesez)  
Race, peuple et nation I (frantsesez)  
Race, peuple et nation II (frantsesez)  
Je refuse ce nationalisme là! (frantsesez)

- **Aldizkaria**

*Igela*

## 6. OINARRIZKO TESTUAK ETA HIZTEGIA

### OTSO

Bortz izar gori ortze-goian  
eta basoan ez argirik  
aztiak dagoz ikharatan  
aztiaturik ikur hori

izar gorion pentagramman  
lo-hasman dautza bertz' izarrak  
baso gerizan atzar dira  
otsoak eta gizotsoak

oihan-bidean ergelen bat  
oihuz dihoa berantean  
gizon soilari so zitzaizkion  
otso ixilak giza-begiz

otso-ar eta -eme latzak  
giza-blasphema bihotzean  
gauazko bide-joilearen  
haiduru ziran geldituak

oihan beltzeko bidesketan  
ezin helduan zihoala  
esku eiharrez zuhain hilek  
bahitu dute galtzerako

bortz oihuk eta bortz ausikik  
gizerhailketa egin dute  
bainan ortze-goi beltzagoan  
izar goriak itzal dira.

### Hiztegia

gori: emankor

ortze: zeru  
aztiatu: igarri, asmatu  
lo-hasman: erdi lo  
atzarri: esnatu  
berantean: berandu  
so: begira  
bide-joilea: bide jotzailea  
haiduru: zai  
ehiar: ihar  
zuhain: zuhaitz  
ausiki: kozka  
gizerhaillketa: gizakia hiltzea

### “OTSO” POEMAREN GILTZA

Poemaren atzean uste metaphysiko haur ba da: izaiki bat dela, oso bat dela Gaia eta gogoia, irazaidia eta irazolea, ez-iainkoak eta iainkoak eta iainkoak zer beraren modalitate batzu baizik ez dira beraz. Zer hori da, funtsean, egiazko izaiki bakarra: batarzuna da. Batartzuna bikoiztu du gizonaren adimenak: mundua bat dela “irazaidi” bat (kreazone)ba dela uste ukhan du. Dualismo hori gezurrezko da, gaizkia da. Hortan datza gizon-adimenaren bekhatusa. Gizonak bekhatu hori ordaint dezantzat, izaiki bakharrak (h. d. batarzuna edo iainkoa edo oro) nahi du, hots, gizonaren hilopha nahi du. Nahi hori erakhusten du “izar gori”ren ikurrak (pentagramma “mageion” figura gabetu bat baita; 5 -gramma;  $5 = 2+3 = \text{batarzuna} > \text{bi modalitate arr eta emeak gogoia eta gaia iainkoa eta iainkosa} > \text{tarr eta emeak sorthu semea (1); baina ere } 5=1+2 \times 2 = \text{batarzuna} > \text{bi prinkipiok (arra eta emea, gogoia eta gaia) elkharr artean gudukan “gaizkia batarzunaren aitzinean hori da pentagramma gaiztoa. Halaz ere gizonen artean denak ez dira hobendun; zuhur, aztiek (giza-lekhorean noizik behin bizi ditezkenak) batarzuna sumatzen, bai eta gizon-adimenak batarzun horren haustean, egin duen bekahtua: gaizkiaren ikusia interpreta dezakete.$

Bertze irazaikiak (kreaturak) gizona bezain hobendun ez dira. Lehen Batarzunari hurbilago egon direlakotz (personalitate gutiago baitut Horrengatik heiek dute gizona erhan behar. Halaz ere, irazaiki guzti bai gizonak bai abereak beretik dathorrzela erakhutsi nahi izan dut: otsoen “gizatartzuna” adierazi dut (gizotsoak, gizalegea, gizablasphema). Eta irazaiki guztiak izankide baitira, guztiek parte hartuko dute gizonaren hilophan: zuhainek dute bahitzen eta otsoen ausikietara biratzen.

Gizona hil ondoan (h. d. gizonaren Weltanchaug dualista, gezurrezkoa erabili ondoan) Batarzuna, Oro, berriz ere da., arteko gudukarik ez da gehiago eta iainkoa askietsia dago: izarr gaiztoak ez dira gehiago ageri. Ortzea beltz dago; argirik gabe ezer oro dena, ezer ezin da halaber.

lakina, ene poema gizon (2) bide-joailea symboliko baizik ez da, halaz ere antinarrativa bat eman nahi diot neurthitzaldiari, elhe-zaharren antzekoa. Rhythmu gogorr, latz bat haukeratu dut, gaiari ongi zagokolakotz (5+4 ondoan neurthitzak).

### Hiztegia

gai: materia, substantzia  
irazaidi: kreazio, sorkari  
irazaile: kreatzaile, sortzaile  
hilopha: heriotza  
“mageion”: astrofisikan, materia iluna  
hobendun: errudun  
lekhorean: giza bizitzatik kanpo, harago  
erhan: erahil

### ZERGATIK

Zergatik ikasi

ahanztekotz gero  
ikasiak oro?

Zergatik ikhusi  
hainbertze lurralde,  
hainbat, hainbat jende?

Ezer ezin eutsi...  
Zergatik laztandu?  
Zergatik higuindu?

Bihar edo etzi  
ni non naiz izango?  
(Ai, ez naiz\_ordongo,

Nigar dagit asko  
soin 'ta bihotz-minez,  
irazeki minez)

Zergatik, zertako  
—nork erranen eni?—  
hemen... hor... han... ni... (ni?)

## ORZIREN TTUNTTUNA

Orzi-ren ttunttuna dabil soinutan  
Ezerezaz gaindi rhythmua heda.  
Huna! ttunttunaren dantza-hotsetan  
Ezereza uhin bilhakatu da.

Soinu uhinetan agertu-eta  
Biraldatuz doa izaiki oro  
Ttunttunak jo arte dantzaren beta:  
Jaio 'ta hor izan eta igaro.

Hotsaren uhinek darabiltzate  
Izaiki guztiak goiti behera  
Lehen goizetik gaua hel arte:  
Bethi berdin dira, nehoiz ez dira.

Orzi dantzariak ttunttun-hotsetik  
Ixuri daroz suzko uhinak;  
Izaiki bakhoitza iragaitetik  
ikhuz bitza suon bere orbanak.

Jainkoaren esku ezkerretikan  
Sua itzali da eskumaldera,  
Izaikiak oro suzko errekan  
Iragaiten dira, beheiti gora.

Bethikotz sortzen du ttunttunak uhin  
iragaitza hunek bethikotz dirau;  
Halatan hor-izan den oro, behin  
Hor date berriro, lehen zen arau.

Baina ttuntun-hotsak urrhena duke:  
Gaua horra dathor, sua erhanda.  
Izanen da berriz bethiko bakhe,  
Uhinen lilura hamaituren da.

### Hiztegia

beta: astia, denbora  
iragarite: iragan  
ikhuz: ikusi  
orban: mantxa  
arau: -en arabera  
iragaitza: pasatze, igarotze  
urrhena: azkena  
erahanda: hilda

### NIL IGITUR MORS EST...

Oi uda-egun azkendu haur!  
Kirol-ez, hurrek zahar-amets...  
Atheetan, haatik, maitaleak...  
...egia dela ustez. Ala  
nik duta uste, arratsetan?

Maitez gor, gautar maitaleok:  
gizenden landa-baratzetan  
beleak dagoz, hitz egile.  
Kharrikan haurrok, zaharregi:  
alhan da harra zitueta.

Itzalak gelan izigarri;  
hots eta hitzak, areago.  
Despotês, hel! Hel! Sinheslegai  
egun bainago bildur handiz!  
—Deiok ordea alpherretan.

Bakhea jin da. Nondikoa?  
Niago utzi ahal naute  
bi jainko-bele ahantziek  
—mirariz hitzak, zergari txar  
zirenak, itzalarazirik—.

Jai eder neure jauregian  
liburu benak hertsia-eta  
zuhur izanak gutietsiz;  
mintzo dut ezen niagoan  
—ez hemen, ez gaur— ez-jainko bat.

Gizendak eri zirelarik  
*Bizi-min* deithu minbiziaz,  
mintzo zan, ixil, ez-jainkoa;  
«Deus ez da» zion «herioa:  
EZ dena EZin daiteke hil».

Et' EZak oro zituen jo:  
hiriak, haurrak, maitaleak  
—eta botz neukan bihotzean,  
*hil-bildur* deithu gezur-minaz  
gizendak eri ziradela.

### Hiztegia

azkendu: bukatu  
haur: hau  
duta: al dut  
gizenda: giza enda, giza arraza  
Despotês: jauna  
hel: laguntza esakatu  
siheslegai: sinestsi nahi duena, zerbitzari  
jin: etorri  
niago: nago  
zergari: merkatari  
ben: serio, benetako

### “NIL IGITUR MORS EST” POEMAREN GILTZA

Gaitzak, bizidun guziek dazaguten; hil-beldurra du; Lucrecius-en neurtitz batetik dauka izena (*De Natura rerum*, III, 830).

Udaren azkeneko arrats bat da. Uda, bizi betearen aroa alegia; engoitik nabarmen da haatik laster datorren udazkena, hil-aroa. Karriketako hurrek, nola ere bait, ez dute jostatzeko gogorik; iduri luke dagoneko badakitela beharko dutela behin zahartu eta itzali... Aldiz, etxeen aitzinean elkarturik dauden maitaleek ez dute eiki gogoan guzien zahartu eta itzali beharra; beren elkar-maitatzeaz besterik ez dute ohart, gauzarik beharrezko eta egiazkoean zaie maitatzen hori... Jadanik ordea, poetaren bihotzean sartu da duda bat: ikuste dituenok oro (etxe, haur, neska-mutil) bere begien, bere zentzuen iduripen bat baizik ez balira? Ilunabarra da; iluntzeak, gauzen itxura lausotzen duelarik, badarakar gogoeta bakan horren buruan hartzera.

Baina ez du onartzen, hortarako ez bait da oraino zori. Jarraitzen du gauzak egiazki hor direla sinesten, bere zentzuek somatzen dituzten bezalaxe. Hor-direla heriorako! Gaua iguriki eta elkartu diren maitaleek ez dute, ez, etorkizun herioa gogoan, maite-lilurak debekatzen baititu gizon guziak —naiz landugabeak, naiz landuenak— beren bihotz zola, beren bihotz ondoan ezagutzen duten hil-beharraren abotsaren entzutetik, bele beltz iragarle batena antzo. Alta egia da: etorkizun herioa bizidun guzietan gorderik dago; gazteenek, gaztetasuna bera iduri dutenek ere beren aragian dakarte, har jalea fruituan den bezala.

Olerkaria bakarrik dago bere gelan, gogoeta goibel hoik lagun. Gau mina da. Are beldur gehiago damakio ilunak, eta ikaran jartzen dute gauazko hotsek. Erranen luke zerbait badela gelako ilunpean, hari mintzatu nahia. Zer ote? Hil berri baten iratxo edo arima, gorputzaren ganik berezi ta nekeetan? Hain izitua da, non hasten zaion, gaztaroan bezala, bere oraiko sineskabea gatik, norbait-den Jainko bati oihuka, urgaitze-galde. Haren jopu izatera ere lizake, beldur izugarri hau ken lezaioken ber...Baina norbait den Jainkorik ez zaio agertzen; bakarrik da beti; deuserako ez du izan bere hel-eskatze eta erdi-sinestea...

Lehen hiruhapaldiek eroria “tan” dute: zarta hots astun hortaz gogoratu nahi izan dut bizidunaren antsia mundu lazgarri hontan galdurik izatez, heiorako hor izatez.

Poeta, gogoetatuaren ariaz, jartzen da emeki emeki la-antzeko egoera berezi batena, Okkultisten “bigarren egoera”, orduan bait dago gizarima bere egiazko izanean. Sorgortzen zaizkio atzaraldiko Oroimena eta Adimena —German zaharren sinestean, norbait-den Jainkoaren bi bele hegazti zaindariak— bai eta ahaztutzen du bi men hoiek gogoratzen zioten gauza guzien hil-behar hura. Itzaltzen dire buruan zerabilzkin pentsa hitzak: gauzak ulertu nahiz ematen dizkiegun izenak. Uste baitugu, izena jakinez gero, gauzaren izana ere ezagutzen dugula... Baina egiatan, gure ezagutza oro hitz-keta bat baizik ez da eta ezerek ez digu ustea zilegi egiten, hitz hoién atzean izan ere zerbait badela.



Gero ta murgiltzenago da olerkaria bigarren egoera hortan, gero eta bake ta bozkario handiagotan dagoela. Bere baitaratu da, egia aurkitu du bere baitan. Erdainatzen ditu orain aztertzen ohi zituen asmalari sakonen lanegin eta iritzi ezberdin guztiak: bazebiltzan, bakoitza bere bidetik, munduaren arauen bila; baina munduaren ezagutza aizun izaki, aurauok ere aizun izan behar... Poetak aldiz uzten du, gezurrezko jorik, nonbaita eta nozibaita dauzka mundu-ezagutu hori, eta aldi-aldeetarik lekorean zorabioan dagoela, badantzu bere baitan hizlari —ez bere goiko edo kanpoko Jaun Egile bat, baizik bera ere den Arima orokorra.

Gizon gehienek ordea diote munduko biziari, beren mundutar nortasunari, ardura oro eman, eritasun bat baizik ez duten arren delako bizi hori, hil-beharra berarekin ekarki. Behin ere ez dire beren baitaratzen, ezagun ahal lezaten berak eta oro den Arima, hau da, egia bakarra. Orduan balakikete iduritze bat direla mundua eta munduan izatea, eta hil-beldurra joan lakieke, iduripen baten herioa bera ere iduripena bait da.

Poetak ediren du egia handi hau azkenekotz. Segurrean badaki oixtion ikusten zituenak oro bere gogoaren amets bat zirela soilik, izaterik gabeko. Atsegin batean dago, lorrezko amets hartarik askaturik eta egiazko izatea beraren baitan aurkiturik. Zer garrantzi dauka bere “gizakideek” amets zaharraren irauteak bizitze eta hiltze badelako sineskerian? Bere haiekiko har-emanak ere iduripen huts direla ta...

Olerkiaren azkenean eman dudun “la” jario hots zabalak azaldu nahi du poeta, gezurrezko soma-gauzen mundu mugatua utzi eta egiatan Dena-ren itsas handi mugarik gabean ondortzera doala.

## Hiztegia

Nil igitur mors est: orduan heriotza ez da deus

engoitik: honezkero

eiki: egiazki

iduripen: irudimenak sortutako ustea

iguriki: zain egon

urgaitze-galde: laguntza eske

jopu: zerbitzari

ber: -en unetik, bezain laster

hel- eskatzen: larrialdian laguntza eskatu

sorgortu: sentiberatasuna kendu

men: gaitasun

erdainatu: mespretxatu

aizun: faltsu

lekorean: kanpoan

ediren: aurkitu

segurrean: seguruenik

oixtion: arestian, lehen

lor(ezko): zama, astun

soma-gauzak: materiazko gauzak

## NERE SINESTEIA

Ariman sinesten dut —bere izen arrunta eman behar baitzaio—; erran nahi dut izaki bakoitzean alderdi psikiko bat badagoela; konbentzitu nago, eta materiazale mekanizaileek diotenez bestalde, *psukhê* hori ez dela ekaiaren gain-fenomena bat abere eta gizakentearantz, baina aitzitik, fisika-kimika aldaketek oso bestelakoa, bere izate barnatsu eta sakonean. Nere ustez, parapsikologiako ikerketen bidez, gisa batez edo bestez, hori probatu izan da. Esate baterako, erran genezake arima errealtate bakarra eta bakoitza dela. Bai; nire Arima neure errealtate bakoitza eta bakarra dela sinets nezake...

Metafisika sistema batzuek irakasten dutenaren aitzitik (adibidez, Indietan), arima hori bakoitzarena dela sinestuko nuke gisa batez bederen, zeren ez diodan ukatzen psuke-arteko iduria, baizik kristau ikasbidearen aitzitik, gure lurreratzea gabe, gure sortzea gabe izaten zela uste dut —eta benetan bizi zela— eta gure heriotzaren ondotik mundu honetan biziko dela. Ez dut erran nahi, hala ere, metenpsikosian sinesten dudala; erran nahi bailuke, arima bakoitzak gorputz, batetik bestera tai gabe aldatu behar lukeela, bere aitzineko bizitzako moral merezimenduak haragitze, bakoitza eratuz. (*Karma*-ren ikasbidea.) Kelta druida aintzinekoak ohartu ziren bezala, uste dut gure bakoitzaren arimak bizitza asko dituela eramaten mundu material

desberdinetan, hein desberdinetan, baina «garai» absolutorik ez denaz gain, bizitza guziak garai berekoak dira, denbora berean gertatzen, baina hori beste kontu bat da...

Hein bakoitzean, «mundu» bakoitzean, arimak gorputz aragidun bat izan behar du, zeren aldi bakoitzean erran genezake arimaren kontzientzia dela gorputza: arimak bere ezagutza izan dezan bidea (Aristotelek zioen arima gorputzaren iduria, itxura dela). Horregatik, nahiz gorputza gauza iragankor eta bigarren mailako den, Arimari berdinuz nahi bada, sineslari batzuek dagiten bezala, ez da mespretxatu behar hiltzera behartua baldin bada, arima beste plan edo hein batera iragaiten delarik. Aitzitik, gure nortasun ezagutuaren oinarri bezala ezagutarazi behar da, eta hortik («Die Hinterwelter»), hots, metafisikalarien mintzaldien gatik bere izatezko indarrak ohoratu behar dizkiogu, horiek baitira, nahiz azalezko nahiz apaleko, erro sakon eta beharrezkoenak: erran nahi dut, sexuaren ezagutza eta etniaren kontzientzia. Gogoaren gainbegia gatik, zentzu horien ukatzea ez lizateke engainu eta astakeria baizik, zeren «aingerua egin nahi duenak animalea egin dezake».

Ariman sinesten badut, Jainkoetan sinetsi beharko ote dut? Nere ustez, hauzi oso desberdina da. Neretzat, nere arima aski zait. Halere, bere batasunaren nekeak astun egiten dionean, Jainkoak ohoratzen zirikatua da, nostalgia baten uztak edo klaneko giza handien arimen oihartzuna gure izatearen beste planetan bizitzen direnak balira bezala.

### Hiztegia

ekai: materia

taí gabe: gelditu gabe

kelta: zelta

druida: mitologia zeltean apaiza

hein: aldi, garai

Die Hinterwelter: munduostetarrak, haragoko mundukoak

gainbegia: gaintetik egotea, nagusitasuna

### JAKINTZA BERRI BAT: PSIKOLOGIA GAINDIKOA

#### Amaia: ustekizunak

Psikologi gaindiko gertari nausienak gainbegiratu ondoren, aitortu behar dugu, noski, Shakespeare-kin batean, badirela:

...gauza gehiago zeru-lurretan

...filosofiak uste duen baino.

(«Hamlet» 1, 5)

Zer irakasten digu gainbegiratu horrek? Lehenik, izagaindikotan sinestea ez dela txorakeria. Ziur da azti eta sorginek benetan ekarri dituztela herrien «sineskeriak» aipatzen dituen zenbait mirari: izena sortu baino lehen medium izan dira soilki. Haien sorginegintzak artez edo moldez mediumtasuna eratoritzeko dira; beharrezko den transa-egoeran sorgina jartzeko, edari mozgorrari bereziak irentsiz eta irudimena astintzen duten ohikunak ospatuz (Sorgin eta aztietaz hemen mintzo naizela, aldera uzten dut, oraingoz, Jakintza ezkutua, hots, Magu, Kabalista eta horrelakoen metafisikaren jarduna; alta ziur nago egia zerbait bil dezakegula metafisika hortan).

Bestalde, gizagaindi eta petiko izakien hauzia berpizten du psikologigaindikoak. Ez naiz hemen horretaz jardungo, txit nahasia bait da gai hori eta, gainera, oraindik ez daukadan jakitea eskatzen du. Esan dezadan haatik, Charles Richet haundiak *Traité de Métapsychique* delako liburu ospatu bat idatzi zuenean (1922), ausartu zela pentsatzera aragaindiko gertari adigaitz zenbait giza lekoreko «nortasun» batzuek eragiten zituztela behar bada...

Mesmer-en usteak ere neurri batean jakintza berriak sendotzen ditu. Agian ez da bizi-irrada edo

erakarpenik; baina baliteke mesmertzalearen ganik, zenbait aldiz, ektoplasis edo atera-eralgintza bat izatea (mediumena iduri) beste giza gorputzetan ari dena, mirarizko sendaketen eragile. (Sasi-sendalariak ez dira denak gezurti eta lapurrak; batzuetan benetan sendatzen dute, medikuak etsi arren).

Azkenean, Espiritismuak gure eskerrak hartzen ditu, besterik ez bada ere, jakintzarien ardura araugaindiko gertarietara erakarri duelako. Beste alde batetik, ordea, parapsikologiak erabaki behar dituen hauzi behinenak jaukitzen dituzte espiritisten sinespenek:

#### 1.—Arima badea izan?

Ez uste izan parapsikologilari guziak arimazale direnik! Ikusi dugu nola ikertzaile zenbait ahalegindu diren araugaindiko fenomenuak ukigai arau ezagunen bidez azaltzera. Bai eta, ikerkuntzen hasieran behinik behin, haien azalpenek egiantzeko eta gotor xamar iduri zuten.

Halaz ere, orain badirudi fenomenuok —gogobarrukoek nahiz gogo-lekorekoek— gogo hutsezko «zerbait» badela egiaztatzen dutela, ukigairen laguntza gabe (araugaindiko ezagutzan) eta ukigaitan beretan (asmo-eralgintzan) ari ditekenean; beraz, ukigai gaindiko dena. Zerbait horri, nahi dutenek, «Arima» esan diezaioke.

#### 2.—Ideoplasis prosopesis ala Geroko eta Aurreko bizia?

Ez dut uste hori aztertzaile bakar batek ere uka dezakeenik. Halaber, gogo hutsezko hori ukigai gaindiko bada, haizu da ukigaia hilondoan ere bizi ditekela uste izatea. Baina galdea: zer da bizi eta nola?

Izpiritualistek, aintzinatarrek (kristauak eta beste sinesmeneko batzuek) nola oraindarrek (espiritistek), gure nortasun osoak, gorputza itzalita ere, bizirik irauten duela dadukate, arima-huts. Baina ukigaizaleek ondo erakutsi dute (oro ez bait da arbuiatzeko haien ustekizunetan) giza-nortasuna deitzen dugun fenomenua, hein handi batean, ukigaiari datxikola; esan nahi dut, giza-burmuinari. Beraz, burmuin hori itzaliz gero, alferrik dugu igurikitzea gure oraingo nortasunak, gure oraingo «ni»-ak, batere aldatu gabe bere izatean jarraikiko duela.

Horrengatik, parapsikologilari askok ez du nahi ukigaizale hutsak ez izan arren giza arimaren geroko bizian sinetsi. Hala nola, Charles Richet-ek eta Rene Sudre-k. Bi ustekizunen bidez azaltzen ditu honek geroko bizia egiaztatu, iduri duten Espiritismuaren gertari guziak: ideoplasis edo asmo-eralgintza eta prosopesis, hau da, nortasun puskatua edo nortasun aizunak mediumak edukitzea (prosopon = antzoki mozorroa zen).

Mediumetikiko batzarretan nabaritzen diren «hilen arimak» ez dira benetan bizidun baten (mediumaren) nortasun aizuna, pekonortasunaren agerketa baizik; zenbait aldiz ukigaiketa. Gainera, pekonortasun horiek, araugaindiko ezagumenaz, hil den baten berri ikas dezakete, eta haren nortasunaz gezurrean estaliz, hila bera agertzen dela iduriaz.

Halaz ere, Espiritismuaren gertari zenbaitek ez dute ematen Sudre-n ustekizun hori dagokienik. Esate baterako, agerketak bizidunen artean ihork ez dakizkinak esan dituenen. Eztabaida gabeko gertariak guti dira, jakina; bat orraitio ezagutzen da ederra; André Dumas jaunaren *La Science de l'ame* delako idaztarian irakurri dut: Lady Nona edo Telika, Kristo aurreko XV-garren mendean bizi zen Egiptoko andragoi baten agerketa; han zeudenek eskatuz, egiptoera zaharrean hitzegin zuen, hots, hizkera batean ihork haren fonetika orduan ez baizekien. Lady Nona horri esker, hizkuntzalariek, mintzaira jakintzariak ezagutzen dituzte orain Faraonen mintzaira hotsak...

Horrelako gertarien aurrean, Rene Sudre-k bere teoria osotu egin behar izan du. Aiher da orain giza-burmuina hil ondoren, giza-gogoaren zati batek bizirik irauten duela, ez ordea egiazko giza-nortasunak, ez arimak, jendeak hitz hori aditzen duen legez.

Gorputzetik landa bizi dena oroimen hutsa omen da, ezagumen eta nahimenik gabe; hitz batez, nortasunik gabe. Oroimen hortan ditu metagnomilariak ikasten dituen berriak hartzen, alegia.

Urrun xamar ibili zaigu Sudre azalpen horren bila. Gainera, ez du adierazten agerketa zeinbaiten egintza eta berezitasunik (egia esan, oso bakan dira agerketok). Eta bestalde, burmuinik gabeko ezagumen edo nahimen batean sinestea, funtsean, ez da burmuinik gabeko oroimen batean sinestea baino xoroago.

Parapsikologilari aunitzek, beraz, arau gaindiko fenomenuak aztertuz gogo hutsa izan ere badela sinetsi behar eta, ez dute ez Izpiritualista horien ustekizuna, ez Sudre-rena ere onartu. Gorputza hilik ere, giza nortasunak bizirik jarraitzen duela diote; aldatu egin bait da ukigaitik berezi den ezkerok.

Hori baitugu, ez bakarrik parapsikologi, bai psikologi guziaren hauzi zahar beti gorputzu bat: gogo-burmuinen edo arima-gorputzen arteko ondoretasuna. Henri Bergson jaunak, haatik, asmo berriak ekarri ditu korapilo hori urratzeari buruz (irakur haren liburua, *Matie're et Mémoire Essai sur la relation du corps a'esprit*). Giza gogoak bi alde badauzka —hemen behar dugu, Sigmund Freud irakasleari zor diogun «berjakintza petiko» haren adigai berria lagun hartu—; batetik burmuinari darraikio, hori dugu berjakintza, norberak bere gogoaren gainean bat-batean ikasten dituen berriak. Bergson-ek erakusten du nola burmuinaren berjakintza hori ukigaiezko munduon gaudelako sortu zaigun, ukigaiari egokitu beharrez.

Freud-ek, ordea, giza-gogoak beste alde bat daukala irakatsi digu, berjakintza petikoa (Freuden aurretik psikologilari zahar zenbaitek ere susmatu zuen hori, besteren artean Leibniz eta Maine de Biran-ek). Austriar

irakasleak eta haren lehenengo jarraitzaileek uste zuten berjakintza-petiko hortan berjakintzak behin jakin eta gero ahaztutakoak zeudela bakarrik; batzuetan on-arau edo gizarte-arauen aurkako zireiako ahazturik (Freud-en libido, gizaki-griña, eta Adler-en indar nahikeria). Baina psikologilariak asko zabaldu dute azken une hauetan berjakintza-petikoaren adigaia. Konturatu dira ez zela soilki berjakintzaren hondakin bat, alderantziz, berjakintza zela haren saila, edo, hobeto esan, haren errainua burmuinean (cf. C. G. Jung-en lanak).

Egokiago genuke beraz berjakintza lekorekoa esatea, berjakintza-petikoa baino, neronek, ohiturari jarraituz, azken izen hau erabili arren idazlan hortan.

Horra non oraingo psikologiak oinarri bat eskaintzen dien parapsikologilarien ustekizunei. Asmo berri horiek aintzat hartuz, Dr. Geley-k *L'être subconscient* deritzaion liburu batean, bi sailetan banatzen du berjakintza-petiko edo lekorekoa.

a) Berjakintza-petiko arrunta; guti gora behera, Freudena, zapaldu behar ditugun gorputzaren griña eta irrika txarrez eraturia.

b) Berjakintza-petiko gorena (berjakintza gaindikoa esan genezaioke); oso bestelakoa, gure benetako nortasuna da eta gure egiazko «ni»-a; gorputza hil ondoan han dugu bizi, bai eta gorputza sortu aurrean ere, Geley-ren ustez.

Ezen giza-arima, hots, gizonaren berjakintza gaindikoa, baldin ukigai-gaindikoa, bada, nola sinetsi ukigaiarekin batean jaiotzen denik? Jakintzaren bideetatik, Sortalde eta Sartalde ohitura zaharrek (batez ere India eta Keltiakoek) eta Platondarrek iritxi zuten ustekizun berera heltzen da Geley jauna: palingenesis delakora.

Gogo hutsak (Lehenengo Batasuna) erarik edo mugarik ez du, ez eta berjakintzarik ere. Mugatuz gero, berjakintza hartuz gero, Gaia sortzen du: Gaia Gogoaren berjakintza hartzea da. Eraldua eta mugatua da, Dena (Gogoa) izaki berezietan banatuz. Beraz, izaki bakoitza Lehen-Gogoaren alde bat da, mugaturik eta berjakintza harturik.

Eta bizialditik bizialdira, izaki oro gero eta mugatzenago, bereztenago da, gero eta berjakintza gehiago edukiz. Bizialdien ingurua burutzean, izaki bakoitza, Lehengo Batasunera bihurtzen da, bizialdiz bizialdi irabazi duen nortasuna zainduz haatik: orduan bera eta oro da, batera.

Ikusten dugunez, Geley-ren ustekizuna Sudre-rena baino pozgarriago da, gure izatean betiere iraungo dugulako itxaropena ez baitigu kentzen. Gure egiazko nortasuna, gure gogo edo arima, ez da hilko gure burmuinarekin batera. Burmuina eta honen oroimenarekin (bi oroimen mota bait dira, Bergson-ek erakusten duen bezala, bata gorputzarekikoa) hilko dena, gure azaleko nortasuna, gure «ni» lurterra da.

Mediama transan dagoela, bere gorputz, bere berjakintzaz ezaxolatzen da. Orduan bere berjakintza-lekoreko izanen da, eta bera eta oro batetan izaki, den guzia badaki: horregatik da garbi ikusle edo araugaindiko ezagutzale.

Baina urrutiago joan gaitezke bide hortatik: esan dezakegu nornahi, medium ez izanik ere, bere gorputzaz eta azaleko nortasunaz ezaxolatzen delarik, bere egiazko nortasunera bihurtzen dela, gogo-hutsezko izanean: hala nola lo dagoelarik. Haren ametsek (Geley-ren berjakintzapetiko arrunta ez dutenean), gorputzarekiko berjakintza-petikoan dute beren jatorria, telepati eta metagnomizko gertariak ospatzen dizkigute sarri, batipat goizalderako ametsek. Bai eta ere, Jung-ek aurkitu dituen «goi-eredu» (archetypen) direlako gizaki guziekiko mito edo ereduak: guziekiko berjakintza-lekoretik baidatoz, Jung-en esanetik.

Fenomenuok erakutsi iduri dute, ukigaiak ezaxolatzen garen aldi guziz geratu eta den guzia batetan garelako, medium, transaratu bezala. Zer du mediumak guk baino gehiago? Guk baino berjakintza-lekoretiko sail haundiago bat berjakintzara dezake, deus ez besterik.

Geley-ren izadi ikuskerak balio duena balio du... Dena dela iduritu zait aski ernegarri zela irakurleari aurkezteko, gizanortasunari buruzko beste bi teoria nausien ertzean: burmuinarekin batera hiltzen dela dioten ukigaiakileen ustekizuna, eta, gorputza hilik ere, batere aldatu gabe jarraitzen duela daukaten Gogozale horien iritzia.

## Hiztegia

izagaindikoak: naturaz gaindiko izakia

ohikun: erritu

gizagaindi: naturaz gaindiko gizakia

petiko: azpiko, beheko

aragaindiko: naturaz gaindiko arau

adigaitz: ulergaitz

giza lekoreko: gizakiaz kanpoko

bizi-irrada: bizi-erradiazio  
ektoplasia: materia bat ateratzea giza goputz batetik  
atera-eralgintza: ektoplasia  
gertariak: gertakariak  
behinen: nagusi  
jauki: jaulki, bota  
ukigai: uki daitekeena, ukigarri, material  
ideoplasia: asmo eralgintza (erabiltzea)  
prosopesis: nortasun puskatua edo faltsua  
haizu: zilegi  
ukigaizale: materiazale  
iguriki: itxoin, zain egon  
aizun: faltsu  
pekonortasuna: azpiko nortasuna, ezezaguna  
andragoi: andregai  
aiher izan: joera izan  
-tik landa: -tik kanpo  
metagnomia: arau gaindiko ezagutza  
ondoretasun: bizardun batek beste bati bere ezaugarriak pasatzea  
berjakintza petikoa: inkontzientea  
adigai: kontzeptu  
gai: materia, zerez osatua dagoen gauza bat  
eraldua: mugatua

## GIZALEKOREKO IZATEAK EUSKALDUNEN ETA KELTEN FOLKLORETAN

Arduraz eta atseginez irakurri dut GERNIKA-ren 18-garren zenbakian J. Th. Labandibar-en idaziana: *Elementos Míticos en las Leyendas de Azkue*. Azkue handia hasi zitzaigun Euskalerrriaren Jakintza bilatu eta biltzen. Haren bil-lanari jarraipen eman behar diogu orain euskaltzaleok, harek jaso elezaharrak adieraziz, gure herriaren arima ezagut dezagun —Labandibarren hitzetan—, elezahar horietan bait dago Euskal Endaren egiatzko folklorea eta ez bakarrik Pernando Amezketarraren ipuinetan, edo pilota, fandango, mus eta beste baskokerietan. Zoritxarrez, jakingarri aunitz betiereko galdu dugu, beranduegi eman zirelako bilaketa horri euskal-jakintzariak. Behar bada ere, gure nausi tenporal eta izpiritualek indarrez erautsi bide zituzten Euskaldunen gogo-bihotzetatik paganu-usain gehiegi zeukaten herri sinespenak...

Keltalari bezala, zehaztapen zenbait eman nahi dut hemen Keltan gizalekoreko edo gizagaindiko izateei buruz, Labandibar jaunak idatzi duenaren osagarri. Lehenik erran behar diot egileari Irlandako «lamiak» ez duela Banchi izena, baina Sidh edo Beansidhe; engeleraren ortografian, banshee. Izen horrek «bake emakumea» esan nahi bide du: bake = *Sid* (goidelera, irlandera zaharrean), emakumea = *bean*; bestalde, beansidhea ez da zeharo gure lamiñaren antzeko, geroxeago erakutsiko dudana bezala.

Euskaldun lamiñen iduriago dira Gales-ko *Tylwyth Teg* edo «Enda Ederrekoak»: hauek ere izate bitxi batzu dira (nid ysbrydion, ond pobl Fychain ydy), zoletan bizi direnak. Beren deituraren gatik, tylfyth teg-eko emakumeak bakarrik dira eder; gizonezkoak beltz eta zatar dira. Enda ederrekoek ere gizakumeetako emagin baten lagungoa eskatzen dute sarri: ondo ordaintzen dute baina bere ekintzan ari delarik, ama, haurra eta aita baizik ezin ikus ditzake; gainerazkoak oro gandu batek estalirik daudelako. Zenbait aldiz aitak ur bat ematen dio haurren begiak igurtzitzeko, baina ohartu gabe bere begiak emaginak harekin igurtzitzen baditu, ganduak ezkututzen zituenak ikusten ditu orduan, ezkerreko begiaz, eta tylwyth teg-ek begi hori zulatu egiten diote.

Galestarren sinespen horrek Lamia bat *eta bere amaina*, Azkuek dakarren euskal ipuina oroiteratzen digu osoki (In «Euskalerrriaren Jakintza», II, 135).

Halaz ere, Enda ederrekoak ez dira gaiztoak: lagundu omen diote gizakume behartsu bati baino gehiagori, egunero txanpon bat utziz toki berezi batean. Baina txanpona gaizki igorri gogo badu, orbel bihurtzen da.

Landetan maiz ikusten dira toki batzu, haietan belarra muskerrago bait da. Lehenago Frantzian uste zuten sorginek akelarre han egiten zutelara, eta sorgin-obo (ronds de sorcières) deitzen zituzten toki horiek. Galestarrek, berriz, Enda Ederraren dantza-toki direla diote (dawnsfeydd y Tylwyth, Teg). Ene Zubero herrian ere uste hori bazuten.

Enda Ederrekoak ez-hilkor dira, edo, behintzat, gu baino askoz biziluzedunago. Iñoz ez dira zahartzen, ez eritzen; kantan eta dantzan diraute beti, manuren musika lagun. Batzuetan Tylwyth, Teg-eko emakumezkoak gizaseme batekin ezkontzen dira (cf. Bizkaiko ipuina, *Lamiña bat ezkongai*, Azkue, aipatu obran, II, 194). Gizonezkoek, ordea, ez dute sekulan gizalabarik andregaitzat biltzen, itsusi eta zatar baitira.

Ageri denez, alkarri hurbil ditugu Gales-ko Enda Ederra eta Euskal Herriko lamiñ-enda. Ene gardiz, beraz, lamiñek ez dute izenaz beste zer ikustekorik Phrygeia-ko Erreginarekin: Sarkalde-Europako kultur-Oboan jaio, eta haziak ditugu dudarik batere gabe.

Izate maitagarri horien berri gehiago ikasteko Irlandako Beansidhe-aren gana itzul gaitezen orain. Goidelen (Gael) aintzinako historiak dioenez, herriko lehen izaleetatik ziren Tuatha dê Dannan edo Dana Jainkosaren gizeliak. Irlandaratu baino lehen, «munduko ipar-izaroetan, aztigoa, sorgintza eta mageia ikasten» egonik ziren. Elezahar batzuen arauera beansidheak dira Tuatha Dê Danann-en ondokoak. Gizakumeak lirerateke, beraz, nahiz beste gizendak baino hainitez azkarrago eta indartsuago, Jakintza ezkutuarien, gordearen, jabe direlako. Ene aburuz, haatik, sinespen horrek beansidhearen egiazko etorkia maskaldu egiten du: beste elezahar gehien jakilegoatik, izate horiek giza gaindiko direla ageri du; mundu honen bestaldean bizi dira. Bestalde horri izen hauek eman ohi zion Goidel hizkuntzak: Gazteen Herria (Tir na-n Og), Poz-zelaia, Agindu lurra... Itsasoan zegoen atsegin-herri hori itsaslariek ezin ikus zezaketen: iduripen batek atzipeturik, uhinak baizik ez zituzten haren lekuan ikusten.

Enda Ederrekoak ez antzo, beansidheak oro emakumezkoak eta gure lamiñen aitzika, giza alabak bezala ziren aurpegi eta kaizuz. Haien ere maitemintzen ziren noizpeinka gizaseme batetaz, eta beren egoitzara eroan ohi zuten, ondorengo ipuin honek erakusten digunez:

*Behin Kondle Gorria, ehun Borroketako Kond-en semea, aitarekin zegoen Goi-Usnech-ean. Emakume bat ikusi zuen etortzen, obi ez bezalako jantzitan.*

— Nondik ator, emakume? erran zuen.

— Bizidunen Lurretik horra nauk —erantzun zuen—, han ez baita ez Heriorik, ez hogenik, ez hutsik. Tai gabeko afariak egiten ditiagu, adelatu behar izan gabe; batzarre ederrak baditugu liskarrik gabekoak. Bake haundian geudek, horregatik sidhe deitzen gaituk.

— Norekin haiz mintzo? —Mutil Kondlek erran zion semeari.

— Emakumeak erantzun zuen: «Ari jatorreko emakume gazte eta eder batak mintzo duk, behin ere hilen edo zahartuko ez dena. Maite diat Kondle Gorria! Dei egin dioat, Poz zelairat jin dadila, han baitago Boadag erregea betiereko jaun; nausi denez geroztik, haren herriak ez dik ez auhenik ez lorrik ezagutzen. Ator nirekin, Kondle Gorri, idun apain, argia bezain gorria... Nere deia onartzen baduk hire ederra ez duk zimelduko...».

Ikusten dugu Beansidheek egite handia badutela Tylwyth Teg eta Lamiñekin. Ez dira berdin orratio. Goidelen Beansidhea gizagaindiko izate bat da: bestaldean bizi da, paganuen atse-baratzeko aingeru-antzean. Gales-ko Tylwyth Teg-ak eta Euskal Herriko Lamiñak, aldiz, enda nahastuak dira; batetik, ezin ukatuzko askazigoa, ahaidegoa, badute beansidhekin; bestetik, herri guzietan aurkitzen diren gizapetiko izateok gogoratzen dizkigute —Okultisten hizkeran «elemental» izendunak—, nahiz suarekikoak, (salmandrae), nahi urarekikoak (undinae), nahiz haizearekikoak (sylphi), nahiz lurrarekikoak (gnomi), Izaeraz ez dira gaiztoak, isekari eta mutiri baizik; baina magilariak bere menpera jar ditzake. Giza arimarik ez dute, eta armia bat irabazi nahian saiatzen dira (irakur La Motte-Fouqué German idazlearen kondaira pollita).

Balidurike Galestarrek eta Euskaldunek bi eratako sinespenak nahastekatu dituztela, eta bitariko izateok —Enda Ederrekoak eta Lamiñak— sortzeko. Aralar mendian bizi den «Maitagarria» dukegu ausaz, Euskal Herriko folkloean, Irlandako beansidheen ahizpa bat.

Eta zer dira bada jatorriz gizalekoreko izate horiek guziak? Materialistek erranen dute, eskierki, herrien sineskeriak baizik ez direla. Zenbaitek, berriz, Harri Aro Berriko gizenda batetaz daukate («Homo mediterraneus» delako haren enda): beste enda handiago eta indartsuago batek W-Europa beretu ondoan, lehen izaleak leizeetan eta harpe-zuloetan ezkutatu ziren, baina, zeukaten beldurraren gatik, etorri berriei agertzen zitzaizkien noizik behin, eta horrela, Troll, Goblin, Fadet edo Lamiñen baitako sineskeria sortu zuten hauen artean. Euskaldunak jadanik bazeuden ordea, Nafarroako mendietan, Harri Aro Berrian: horregatik Lamiñen etorkiak askoz zaharrago izan behar du. Batzuek diote, beraz, Sarkalde European aspaldi-aspaldian bizi omen ziren Lapon ala Mogol antzeko gizenden arrastoak direla.

Nahi dut... baina ez diet gure lamiña, pollit, adats, horajlei, «*Homo mediterraneus*»-en are gutiago, Laponen, antz handirik atzematen; gainera, farregarri zait gizalekoreko izate horiei antropologoen begiz so egitea. Ez! Zer diren ulertzeko giltza ematen digu Kondle Gorriari gertatuak. Harek bakarrik zuen bizidunen Lurreko emakumea ikusten, biek alkar maite zutelako. Jenderik gehienak, ordea, begirik ez du gizagaindikoak ikusteko, gizakumeen lur honi eutsiegi izaki. Labandibar jaunak dio: «...*Por aquí se ve que el ir en ayunas al monte es exponerse a la aparición del Basajaun o de la Basa-andere...*». Iñakaz mintzo, dela aiher naiz, alta egia da: barurak ere, soma eta soinarekiko berjakintza sorgortzen dituelarik, gizona *transa* antzeko egoera batean jar dezake, zenbait aldiz.

Orduan, beste Jakintza gorago batez baliatuz, izadij eta gizagaindiko zerak «ikus» ditzake, barne-begiz; ezen, ene irakasle ohi batek nonbait idazten duen bezala «hainbat erizten diogun Mundu ikuskor eta ukikor — hau ez da egiazki bizi den Munduaren errainua, errainu ahuldu bat baizik» (R. Tocquet, in *Les phénomènes physiques de la Métapsychique*).

Lehen hain ugari izanik, gaur egun ia iñork ez badu lamiñik topatzen, hori ez ahal da Ohiturazaleek (Tradiziozaleek) aipu duten «munduaren gotortzeak», munduaren aurreratzeak, ekarritako ondore bat? Egia da Demokrazia eta Atomoaren Fisika ere ekarri dizkigula.... Oro ezin euki dezakegu.

## Hiztegia

enda: arraza  
keltari: zelta  
gizalekoreko: gizakiaz kanpoko  
gizagaindiko: gizakiaz gaineko  
amaina: emagina  
musker: berde  
sorgin-obo: sorginen zirkulua  
manu: agindu???  
gardi: iritzi  
kultur-obo: kultur zirkulua  
gizeli: leinu, herri  
izaro: irla  
gizenda: giza arraza  
maskaldu: ahuldu, higatu  
atzipetu: engainatu  
aitzika: aurka  
kaizu: neurri, tamaina  
hogen: erru  
tai gabe: etengabe  
adelatu: prestatu, apailatu  
jin: etorri  
ahuen: atsekabearen adierazpena  
lor: zama  
idun: lepo  
atse-baratze: atsedeen baratze, paradisu  
askazigo: ahaidetasun  
gizapetiko: gizakiaz azpiko  
mutiri: lotsagabe, zakar  
iñaka: burla, iseka  
aiher izan: susmoa izan  
soma: zentzumenei lotua  
soina: gorputza  
sorgortu: sentikortasunik gabe dagoena

## SORGINEN JAINKOAK

*The God of the witches* tituluarekin agerrerazi zuen, duela zenbait unte, Margaret Murray eskoizar daimonologistak, laster ospatu zen liburu bat, eta frantseserak izen beraren pean itzulia izan dena (*Le Dieu des*

*Sorcieres*, Denoël 1957). Liburu hortan, egileak Euskalerriko sorginak maiz aipu ditu, eta horrengatik, bai eta aldizkari hontako idazkideak hasi direlaketz, gure sorginekin, nik ere artikulu labur hau egin nahi ukan dut gai labaingarri hortaz.

Alabainan, Miss Murray eta beste sorgin-jakitun (hitz berri hori barka bekit) batzuen lanetarik ageri denez, euskaldun sorginak zenbaitek uste luken baino hanitzez ezagunago eta ezagutuago dira atzerriko jakintsuen artean.

Jakintsuek ikusgune askotarik so egin diezaiekete sorginei. Frantses gehienek, beren betiko ohiturei jarraikiz, materialismoaren edo, berek diotenez, positibismoaren aldetik begiratu nahi diete; erran nahi dut, gizarte-jakintza edo, soziologiaren eta psiko-patologiaren ikusgunetik, Michelet-etik hasirik (La Sorcellerie liburu famatu hark ere XVII-garren mendeko lapurtar sorginak aipatzen ditu) Jean Palou-raino (Ikus, haren *La Sorcellerie.*, P.U.F., 1960). Horientzat, Erdi Aroko gizarte hierarkizatuari oldartzen zitzaizkion nekazari eta bertze proletari behartsu batzu ziren sorginak, hots, «kontestari» batzu *avant la letre*; bertze zenbaitentzat, aldiz, zainak edo gogoa, eri zituzten jende dohakabe batzu baizik ez ziren: histeriko, neurotiko, eta abar. Mende ilun haietako Eliz-gizon eta erregeek ziorik gabe ankerki pertsegitu zituzten (cf. Rolland Villeneuve-n lanak, *Gilles de Rays*, Denoël, 1955, eta *Dictionnaire du Diable et de la Démonologie*, Marabout, 1968 eta bertze hanitz).

Interesgarriago da sorginek egiten zituzten «mirariak» —orduko hauzi-agiriei sinetsi behar bazaie— ukatzen ez dituzten beste zenbait, jakintsuren pentsaera. Ez dute naski uste delako mirariak Debru txarraren edo gizagaindiko beste izaki batzuen laguntzaz egiten zirenik; baina, jakintsu horientzat, gogozko edo izpirituzko ahalmen berezi batzu zeduzkaten jendeak ziren sorginak, eta sorgintza, beraz, parapsikologiak ikertzen dituen gertakarien alorrean barna sartzen du: sorginek, beren nahi hutsez, edo erabiltzen zituzten droga eta gantzugailuen bidez, beren burua trance bezalatsuko izaera batean ezartzen zuten, eta orduan metagnomia, psikokinesia eta horrelako beste fenomenuak agertzen zituzten. Ikusgune, hortarik, balio luke ikertzea zerengatik sorgin omen zirelako metagnomos horiek herrialde zenbaitetan besteetan baino ugariago agitu edo agitzen diren Mendeetan zehar: Euskalerrian, Lotaringian, Normandian, Eskozian, Finlandan eta, batez ere, Goi-Asiako eremuetan Tibet eta Mongoliako buddistasunari bere kutsu berezia, ematen diotenak hango «xaman» eta «beki» deritzaieen mago famatuak baitira (Tantris-tasuna edo *vajrayana*). Baina luzeegi litzateke sorgintza parapsikologiaren ikusgunetik hemen ikertzea, beste jakintza hau gure «latin» herrietan oraino ere guti ezaguna delakotz, eta behar bainuke, beraz, zer den eta zer metoduz ari den lehenik erakutsi (sorgin metagnomosoen ohikunde trance-eragileez irakur: Mircea Eliade, *Le chamanisme et les techniques archaïques de l'extase Payot*, 1951).

Azkenekotz, bada hirugarren ikusmolde bat jakintzaren aldetik sorgintzaren ikertzekotz: hura da Euskalerra eta Europa Sartaldeko beste sorginen baitan giristinotasuna etor-aitzin zeuden sineste eta erlijio zaharren begiratzaileak ikusten dituztenena. Alde hontarik ere badira gure sorginez ikerpen oso on eta sakonak eginik, hala nola Julio Caro-Baroja, «don Pio» handiaren iloba eta diszipulu den etnologoaren liburuetan; aipa ditzadan haren *Algunos Mitos españoles y otros ensayos* (Editora Nacional, Madrid, 1944), eta, oroz lehen, *The World of the witches Weidenfeld and Nicholson* (London, 1964).

Hori bera da, hain zuzen, gorago aipatu Margaret Murray-ren ustekizuna. Haren araura, Europa Sartaldeko sorginek, eta Euskalerrikoek ere haien artean ez zuten giristinoen eta juduen gaizkina edo deabrua jauresten, baina bai giristinotasunaren aintzineko betakortasunaren jainko paganoa, aker baten irudian (Galiako Keltek *Cernunnos*: adardun, erraiten zioten); baina, emeki-emeki, giristinoak hasi ziren Satanas gizon-aker baten itxuran ikusten, ustez beren herritar pagano egon zirenen jainkoa beren Debru nausia zela. Badirudi Miss Murray zuzenean dagoela; alabainan, gure sorginen bilkuretako «debru» adardunak ez du Juduen eta beste goizerritarren gaizkinaren egite handirik; aitzitik, Jentilen jainkoren batzu go goratzen ditu: oroit gaitezen akerra zela, aspaldiko Helladan, Afrodite sexu jainkosaren zamaría, bai eta Germanen mitologian gudu eta indarraren jainko den Thorr-en abere sagaratu ere (Pio Barojak, *La Leyenda de Jaun de Alzate* eleberrian, euskaldun jainko zahar Ortzi Germanen Thorrekin idurikatzen du). Euskaldun sorginek aker beltzari zioten jaurespenetik dator haien biltokiari *ake(r)larre*, akerlanda eta abar izentzat emaita, eta jaurespen horren oihartzun bat aurkitzen dugu, naski, Gipuzkoako kantu zahar honetan:

*Donostiarrek ekarri dute  
Getariatik akerra  
Kanpantorrean ipiñi dute  
Aita-Santua zutela...*

Gainera, Pireneotako harri-hitzetan *Aherbelste* agertzen zaigun jainko-izena, zenbaitek uste ukan du euskarazko aker-beltz zela; baina hizkuntz jakitun gehienek ez dute itzulpen hori onartzen.



Uste izateko da, bestalde, gure sorginak, ez bakarrik Ortzi-Thorr, baizik Jentilen pantheioneko beste jainko eta daimunak ere akelarrean jauresten jarraiki zirela... nahiz inguruko giristinatutako berriak —aintzina jainko izate horien baitan sinesten zutenak— Semiten Jainko bakarra jaurestera heldu (Hala ere, askok badu sinespen zahar haien hondarrik, sinespen zahar horiek sekula ez baitira osoki galtzen). Hori garbi ageri da Irlandako ohituren ikertzetik: alabainan, apez eta fraide izpiritu zabal batzuei esker, «Sainduen eta Jakintsuen Uhartea» horrek Sartaldeko herrietan bakarra begiratu du, hein batean bederen, bere literaturan, Erromatarrek eta Kristoren misionistak jin aintzineko mitologia; horrengatik, ezin preziatuzko jakilegoa ematen digu aspaldiko Europatarrek zer erlijio zedukaten jakin nahi dugunean. Bada, Irlandako mito eta ipuinetan ikusten ditugu fede zaharren apez *druida* izenekoak —sorgin eta mirarigile bezala ageri— aintzinako jainkoak zerbitzatuz nola bizi diren; nahiz beren herritar gehienak giristino bihurtuz gero ere.

Jainko zaharrok, aldiz, lurarren eta lurtarren nausi handitsuak izanik, orain lurpeko leizeetan, harpeetan, karbeetan, megalithos-petan, ohituraren araura bizirik diraute, Euskalerriko lamiñak, Gales Herriko *tylwyth teg* («*The fair people*» = jende politak), Armorikako *korrigan*, Alemaniako *Heinzelmanchen* eta Iparraldeko *trollak* iduri.

Julio Caro Barojak, *La magia en Castilla durante los siglos XVI y XVII* deitu ikerlanean (in *Algunos mitos españoles*), zuzenez ohar-erazten du Euskalerriko sorginak ere, Gaztelakoez, eta El-Andalus-ekoez bestela, ez zirela soilki azti ala mirarigile, baina oroz lehen mitologia baten begiratzailerik, jainko eta jainkosa zaharren apez edo ema-apezak izan balira bezala; eta azkenekotz, ulergaitz ez den biraldakuntza baten —ondorioz, berak gizagaindiko izate batzuei izatera heldu direla, gure Zuberoa herrian ni ene konturatu naizenaz: orain han, leheneko «belhagileak», nahiz izenak ez duen belar egileez besterik erran nahi, hau da, belarrekin eden eta filtroen egile, jendeen ustean lamiñekin eta euskal mitologiako beste daimonekin gutxi edo hanitz, nahasiak dira.

Dena dela, gure sorginen inguru diren mitoei hartzen dute ikerketa eta begira ditzagun artoski, gure mitologiaren zati zabal bat moldatzen dutelakotz, eta gure mitologian datzalakotz gure egiazko Ohitura, ez sasi-folkloreko «gure tradizio zahar» ospetsuetan (berri xamarrek, eta kanpotik etorriak gehientsuak). Euskaldun bakoitzak, bere uste, filosofiko zernahi izanik ere, ohitura horietarik, mito horietarik, aberats ditzake bere burua, bere gogo eta bere ikusmena; bai eta euskaldun idazle eta antzelariak ere bertan aurki dezakete beren langintzaren iturburu nasai bat: Finlandan, erraiterako, Kalevala-ko mitoetan Sibelius batek soinugintzarako, Kehonen batek irudigintzarako bere gaiak ediren dituen bezala. Ez, dugu, geuk, zorigaitzez, Kalevalaren heineko mito-bildumarik sortu orain artean; beharbada. Lonrot-en neurriko poetarik agitu ez zaizkutelakotz.

Halarik ere, gure elezahar eta ipuin zaharrek darabiltzaten mitoak etnologo euskaldun bihoztoi zenbaitek gartsuki bildu eta biltzen dituenak, Azkuetik has eta gure egunetako Aita Barandiaran eta Caro Baroja-raino (mugaz hunandian aipa dezadan Pierre Dony-Pétre-ren Basa fauna, in «*Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*» num. 92-93 eta 94) landurik ez izan arren, ez dira oro har beste zein nahi sartaldetar herritakoak baino gutxiago edo gutiesgarriago, ikertzaile zenbaiten ustez Harriaroraino garamatzatenaz gero.

## Hiztegia

naski: noski  
gizagaindiko: gizakiaz gaineko  
gantzugailu: ukendu  
metagnomia: arau gaindiko ezagutza  
psikokinesis: gogoak eragindako mugimendua  
agitu: gertatu  
ohikunde: erritu  
betakortasun: betekortasun, emankortasun  
goizerrri: sortalde, ekialde  
zamari: zama garraiatzeko erabiltzen den aberea  
jin: etorri  
jakilego: lekukotasun  
karbe: harri azpi  
belhagile: sorgin  
eden: pozo  
filro: maitasun lilura

artoski: arduraz  
antzelari: artista  
nasai: zabal  
ediren: aurkitu  
bihoztoi: aursart

## EUSKALTASUN ROMANTIKO BATEN ALDE

*«Nire burua dakust Gipuzkoa edo Nafarroako  
mendietan gaindi gudari-saldo bat darraitala,  
bati barrandan bizi, gogoa beti gertu,  
oldartzen, iges egiten, sasieta ezkututzen,  
indarka ibiltzen, etsaiaren baserriari su ematen».*

Pio Baroja-k

Orain euskaltzaleak ba ditugu, leenago. Euskalerrriaren problemarik sortzen ez zuen garaietan, ez zirenak. Euskaltzale horietatik bakan zenbait —garbiak, zindoak... ameskorrak— euskera bein «goi mailako» kultura baten ekarle izan dadin alengintzen dira. Zoritxarrez erri euskalduna ez zaie orain artean jarraiki gora dijoan aldapa hortan: zaarrek jadanik alegiñik aski eginda, atsedena dute orain amets; nork gaitzetsiko lituke horrengatik?, «doatsu logale direnak, loak artuko baititu...», doakabe aldiz iratzarri nai dituena... Eta gazteak, Euskadiren geroaren itxaropena omen ditugun gazte maiteak? Ez dira gure auzo-errietakoak baño txarrago ez obeak: mutillak futbolzale, neskak dantzazale, sentimendu onez beteak guztiak.

Zeruari esker euskaltzale batzu ba dira ordea realistago direnak. Erriak zer nai duen ikusita beren begi zorrotzez, ots «ogia ta jolasak» erri orok bezela, borondate onez saiatzen dira hoik Euskaldunari ematen, kulturzaleak beren bakartegian utziz jolasak beintzat ugari ematen dizkiote, baño kontuz! ez nola-naiko jolasak, EUSKAL-jolasak baño: haiei zor diogu gure neska-mutil zintzoenek fandangoa dantzatzen ba dute rock'n roll'en ordez, eta gure gazte gotorrak pilotan ari ba dira futboleak bezain trebeki. Euskaltzale arrizale maitagarri horiek gutxiago izanaren komplexua kendu diote askori: haien irakaspenaren araura, dantzari, pilotari edo muslari on izaki, Euskaldun ona zera euskera tutik ez jakiñik ere edo euska-odol tantorik zure zañetan ez izanik ere; baño bestaldetik, folkloreak erdeinatzen ba dituzu, sekulan ez zaituzte Euskaldun egiazkotzat edukiko euskeraz Axularrek bezain ongi ba zeneki edo lau saietsetatik Aitoren odolotikoa ba ziña ere.

Baño erriaren ogia ez dago azturik euskal politikariek agintzen baitigute, ongi guriñeztatua, gañera, biarko, gobernura eltzen direneko. Orduan ba ditugegu aurrerapen oikonomikoak, gizarteko zuzentza, bai eta erri baten zorionaren urrezko giltzak diren Auteskunde Aske ta Orokorrak... ots, lurreko paradisu bat izango da Euskadi! Bitartean arrotzen menpean bizi gerala Euskaldunak urrituz dijoazela edonongo kompotarrek hoi lekua arturik, euskera galtzen ari dela? Ez estu: gure egoera its horrek ez dezake iraun. Alabaño leenago aske, gure askatasuna lege-kontra kendu ziguten, ergo, legez itzuli bearke digute bein: hala eskatzen du erri arteko Zuzentzak. Eta ez da dudarik munduko demokratek orok lagunduko digutela askatasunerako bidean, ongi merezi baitugu ere: ez al gera betidanik, Arri-aroa asita XXgn mendeko demokraziaren printzipioen araura bizi izan, ez al gera iñoiz konkista gudarik egin ez duen erri bakarra, euskal-politikari legezale, zintzo horiei siñetsi bear ba diegu?

Alde batetik politikarien legalismuak, bestetik euskaltzaleen folklorismuak, euskaltasun berri bat sortu digute azkenengo mende-erdi hontan: Euskaldun eredugarria gizon gotor baño bakezale bat da, puska-ona, gaizakeriarik gabeko, alai ta parregille, optimista «baikor ez dut esango, baitaki ezezkoa ematen bearra denean, adibidez euskal-kulturzaleek laguntza zerbait eskatzen diotenean...», auzo ona ots, notin bat oso atsegifa gizarte edo ereriarreko jolasetarako! Langille ta realista gañera, oraindar munduari egokitzen dakiena...

Adiskide maiteak, ba da ordu euskaltasun irrieginarri hori arbiaturik beste baliosogo baten moldatzeari buruz abia gaitzan. Nork ez dakus, nork ez du somatzen hori gure endaren ifakin edo karikatura bat baizik ez dela, eta eredutzat aurkezten diguten Euskaldun gorputz sendo ta biotz ezta gure beerapenaren igali ustela dela? Gorputzaren indarra doain ederra noski, jo-muga guren batera eldu bearrean diardun gogo bortitzari laguntzeko; berez, ordea, alperrikako da ezer ez da: atleta uts dena ez da abere bat baño geiago. Langilletasuna ez onbidei baño gaizbide da aberastunaiak sorturik denean gure realisten artean gertatzen den bezala, ezen ondasunek ez ba dute gogoa zikintzen, ondasunen billatzeak bai ordea. Eta sobera Euskaldunen

optimismu merkea biziaren ukatze bat da, bizia tragoidia bat baita eta ez komoidia, gudua eskatzen baitu eta ez bake ta atsedena, eta gizon edo erri baten elburua ez delako zoriona izan bear, aunditasuna baizik.

Adimenari uko eginda, ametsetan ari naizela esango dute noski abertzale realistek, edo izen egokiago batekin deitzeko, razionalistek, beren ideologia XVIIgn mendeko frantziar «pilosopu» engandik bildu dutenak. Bañan adimena baño gorago ezartzen dut ametsa, arimaren errañu eta deia baita. Adimenak aldiz, uste duelarik egia billatzen ari dela, mytho batzu baizik ez ditu erabilikatzen hala nola, erriketaz mintzo baigera, gizandiaren aurrerapena, bakea gizonek bear duten gauzarik, garrantzikoena balitz bezela, legearen nausigoa e. a. Ba da ordu gure ideologiaren iturburuak razionalismu estu hortatik kanpoan billa ditzagun gure, erriari buruz amets aundiak egitera ausart gaitезan, itz batez, ba da ordu razionalista adimentzale izateko ordeз romantiko izan gaitезan. Hala izan ziran sekula euskaltasunaren garra, piztu izan dutenak: Aita Larramendi, Agostin Chaho, lenengo gudu-buruzagi karlistak, Arana-Goiri ta beste bakan zenbait. Zoritzarrez, horien ondotik etorri izan direnek; beren burua horien «ikasle» bezela agertu nai dutenek zein nai zuzenbide politikotako izan ditezen euskal-igikunde batendez «euskal» alderdiak eskeintzen dizkigute erriaren salbabidetzat, hau da, gauza estatiko, geldikor batzu gure endaren abioa eragozten dutenak.

Gogo razionalista mythozale ba da, romantikoa mystikazale da: mystikaren bidez eltzen da mundu irudikor honen atzean den egiazko izateraño, ots, Arimaraño, eta hartan indar arturik berriz ere inguratzen da munduari buruz, bañan ez geiago haren jopu, baizik haren nausi bezela, ta mundua moldaberritzen du bere ametsaren araura. Geu euskal-mystikoak izan gaitезan beraz, abertzale realistek gure lepotik iseka egiñik ere amets-egilleak geralakoan. Alemaniako romantiko aundi batek, NOVALIS olerkariak esan bezela, adimena, oldozmena «somatze itzali bat da soilki, bizi auldu, marguldu bat». Gure ametsaren bidez aldiz, egiazko euskaltasuna ezagut dezakegu, gure arbaso aundiek Erdi-Mendetan Munduari erakutsi ziotena. Eta odol-garbiko Euskaldun horiek ez ziran ez auzo on, ez bakezale, ez jasankor, bañan aitzitik bortitz, urduri, guduzale ta aundi-izan naiak: hainbat obe horrelakoak izan direlako, askoz eredugarriago baitukegu orduko Peru Abendañoako bat oraingo Perrando Amezketarrak oro baño.

Arbaso indartsu ta indartzaleok ez dira il betiko —izan denik ez baititeke il, bañan beti izan ere bai da— ta garai-berriko mundu ekaizale ta atsedenzale honen morroin izan nai ez den Euskaldunak oraindik entzun ditzake bere barruan ametsari egoak aske uzten ba dizkio, antxiñako gudateen aranotsak, leenagoko euskal-zalduntasunaren deia. Dei horri ez diezaiogula gor egin! Gezurrezko euskaltasunaren mythoak aldera utziz, berriz ere izan gaitезan, leenago izan giñan bezela, «Vascones inquieti», Euskaldun urduri ta biurriak.

## Hiztegia

bakartegi: komentu  
erdeinatu: mespretxatu  
its: goibel. triste  
notin: lagun, pertsona  
enda: arraza  
iñakin: burla, iseka  
igali: fruitu  
guren: goren, bikain  
oldozmen: pentsatzeko gaitasuna  
marguldu: zurbildu, kolorea galdu  
ekaizale: materiazale  
aranots: oihartzun, durundi

«Gogoetan nengoelarian egun batez cer perpaus haulatuco nuen  
gure gazteriari aippatceco, gogora citcaitan,  
hej guehienic agrada ahal daquiueten gauca dela gerla...»  
(Joannes Etxeberry Sarakoak, «Escual-Herrico gazteriari»)n

«ezen gizonak ez dira elkharren bethe:  
horrela mintzatzen da Zuzentarzuna».  
(Friedrich Nietzsche'k «Also sprach Zarathustra»)n

Izen haur hartzea duten Euskaldunak gehienak, erran nahi dut, beren herria aske eta beren hizkuntza ohoretan ikhusi nahi dutenak, azken menderdion Europa iharrosi duten iazarrkhundeetan demokrazien alde ibill izan dira, nehoizko usterik hoberenekin: asmo demokratikoa euskaldungoaren ikurrik nabariena dela eta nazione handi demokrazi-zainek gudua irabaziz, Euskadirentzat irrikatzen zuten askatarzuna emanen zeraukotela uste baitzuten. Azken phondu huntaz zer gertatu den ikhusi dugu. Demokraziek gudua irabazi dute, baina heietan igurikipen iari eta heien aldamenean gudukatu zuten euskaldunak ez dira horregatik askeago. Aitzinetik bezala bi zathitan dagoz: batzu askatarzunaren zaindari omen dan statu baten nagusigo-pean, herrien arrteko batzar orotan enda-erhaiteka kondemnatzen duena, haren politika ordea, bereganatu dituen enda zuri, beltz edo hori guztien kulturen suntzi-arazteari doalarik; atzo, diktadore zelakoan demokraziek arbuatzen zutena, egun, aldiz, beren UNESCOn era hitz-harmen oikomikoetan onhartzten duten statu-agintari batek oindikatuak bertzeak. Nazione handien lokera hori delata, euskal-abertzaleak haurrñoak bezala intzirika dabilta, salhatu izan direla hotsez. Baina zer! iokera hori egoki baino egokiago da, ahanzkorr izaitean baitatza demokrazien verthutea, demokrata batek zionez.

Intzirika ibili baino norberak bere uste eta konpezioenen kritika egia bat egin leza hobe litzateke, demokraziekin khidetze hori, bai eta asmo demokratikoarekin euskal-nazionalismuaren identifikatze hori Euskalherriaren onerako izan direnz eta direnz ikherrutz.

Paradoxotan ari naizela dirudike, baina Euskaldunak zinezko demokratikak behin ere izan direnik uste ez dudala aithorr dut, non ez ba da azken garai huntan, atzerritikako era sozialak ekharri landerreriak, atzerritar ikastetxeak eta Romako Elizaren kristaudemokraziak deragieten influentzia hirurkoitza dela zio. Euskaldunetaz mintzatu izan den errankhunik zuhurrena Le Play soziologuarena zait: lurginzalduntza bat zirela, alegia. Zaldun eta aitorseme ziran egiaz, beren burua «etxeko jaun» izendatzen zuten lurgin hek, etxeko guztien, emazte, haur eta sehien nagosi zirenok, ez nabaski Romako pater familia garratzen antzoan, haatik gutiango feminismuak eta «puerismuak» indarrgabekten duten sendi modernan bezala. Eta Euskaldun gehienak etxalde baten jaube eta beraz etxekoiaun zirelakotz, elkharren bethe ziran oro, heien gizartean zuzenbide gabeko gizamailik ez zelarikan. Horregatik euskal kulturaren demokrazitarzunaz hitz-egin ahal izan da. Emanak alderdikerizko aitzin-eritzirik gabe hartuz, ordea, Euskalherrian ere egoile guztiak *cives optimo jure* ez zirala, baina aitzitik, kasta lekhorekoak eta hunki-ezinak ere zegoela ezagutu behar da: h.n. Gaskoinak, Jitoak, Juduak, Agotak e.a. Hauien aurkha negurri gogorak erabaki ohi zituen lege-emaileak, zenbaitek Euskaldun idiosynkrisis onhesleaz zernahi erranik edo idatzirik ere. Erraiterako, Nafarroan sarri zedin Jito edo Buhameari legeak ehun zigorrada eman lekion manatzen zuen; eta Bizkaiko Juduez... Gaztelako regeari gaindeithu beharri ukhan zeraukoten Euskalherrian egon ahal izaitetkotz. Lizarrako pograma ere aipha dezagun. Gure arbasoen «bidegabekeri» horrtaz ahalketu behar dugua egungo Euskaldunok? Nire ustez, bozkariotu behar genduke, orduko Euskaldunek beren ondoreko anhitzetan guttiagotarzun-komplexua ez zutela bai ordea bertzeen enda baino gehiagotzat euskal enda ioiten zutela derakhusate-ta.

Folklorearen ikherrtzeak odolgarbitarzuneko hauziei garrantzi handia zemaiteela agertzen du; odol-garbitarzun horren erakhusetekotz mazmarroak (sic), h.d. atharigainean ibenitako blasoinak zerabiltzaten. Horiek orok demokraziaren kolore guti dute, eza? (sic)

Badarik ere lurgin zalduntza bat izan aitzin, gularizalduntza bat izan ziran Euskaldunak. Lurgintza berant samarr sartu zan gure herrian, atzerritarrek ekharri nabaski (beharr bada Romako soldatu-laborariek) hizkuntzaren ikherrtzeetik agiri denez. Lehen abere-haztetik bizi izan ziran Euskaldunak; artzainkultur jori bat erakhusen du euskarak bat eta guduegitetik ere. Gure arbaso zaharrei buruz zehatzapen guti dakigu; Historian agertzen diren orduko, berriz Imperi, Behereko garaian, alegia gulari eta guduzale borthitz bezala pintatzen dituzte idazki eta elhezaharrek: hatsapenean lurr ebasle inorganizatuak; ondoren herrialde —eta resuma— eralkitzalle, Waskoniko duke-herria (VII gn. mendean) eta Nafarroako rege-herria (IX gn. mendean) irazan zitutenak. Hemen, faktu baten interessant da iakitea: orduko euskaldunok zeduzkatzen aitzindari eta guduburuzagiak german endako zirela dirudi, beren endakide, Hegol-aldeko Got eta ipharraldeko frankei aitzi iazarriak. Ezin ukhatuzko german eragin bat euskal gerlahiztegian, behar bada goten ganikakoa: gudu = «katus» germanek mailegatu keltak-hitzetik; iskillu = got. skildu; murga edo morga = got. baurgs; sala (lauregi) = frank.

sal; e.a. Zer nahi den, german altzindariok gallo eta ibero-roman artean ez anzo gudulari indigenak (euskaldunok) zituten beren meneko; gehiago dena, berek euskal anzoko izenak zeduzkaten —Azenari, Lupus = Otsoa, Gartztea, Santx Mitarra (menditarra?)— eta textuetatik nabari denez, euskaraz hitz egiten zuten. Bertakotu ziran osoki, bertakoak hein batean germandu ba ziran ere. Ordurarte basati eta anarkheian bizi izandako euskaldunok beren endaren gudu eta herri-organizacionerako ahalkeizunen agerraratu zituen legamia ukhan zuketen german elemendu hori. Zorioneko ondorioa ekharri zuen guretzat bi enden elkharr-eragiteak: Euskalherriaren irazaile den Nafarr Statua.

Euskaldun germandu zalduntza gudulari hori izan ez balitz, Euskalherrikeri ere izanen erizela ahantzi beharr ez dugu: gizeli bihurri anarkhistetan banaturik egonen ziran euskaldunak, goiz ala berant hauzoherri hobeki organizaturen batek bereganatu eta assimilatuko zituenak. Geure herriaren Historiak nola bertzeenak, indarrak duela bethi gizasaldo amorphea gizarte organizatu bortxaz bilhakutzen phorogutzen du. Zuzen da hori: ezen bortxatzea borthitzenari dagoko.

Bada, Euskalherriaren oraiko egokera kritikoa kontuan hartuz, berriz ere horrelako gudu-zalduntza baten beharrunean gagozela nabari da. Hiltzera doa gure herritarzuna, eta ez gudukarien herio ohogarriaz, endakatzezko herioaz baizik —ahalke— izangarriagorik ez baita. Askatarzuna galdu dugu eta gure ekhinzako aberastarzunak arrotzek gozaten ditute. Areago da ordea, geure ethniaren osotartzuna ere galurhen baitago, euskaldun elemendu garbien herr-bertzeatzea eta bertze endako, guretzat onura gutiko elemenduez haien ordezkatea dela kausa. Atzerritarrekiko ezkontzek mestizen problema aurkhezten deraukute, behin askatu beharrrko duguna, baina nola? (Atzerritarrekiko ezkontzak oro kaltegarri direnik ez dut erraiten: odol-gurutzatze zenbaitek on dakharrkigukete eta nezessari ditugu; eskontideen enda batere kontuan hartu gaberek egiten direnak ditut arbuiazten. Baserritarrrta euskaldun sentho eta garbi egon eta bethi ere «zalduntza» bat dela, baina egungo kulturaren ez du lehen bezainbat garrantzi eta gainera, euskaldun anhitz lurrigintza utziz hirietaratu dira, bertzeak bezala arbaso-gabeko proletari edo burjes ttipi egin baltira heietan.

Euskaldungoaren endakatze hori egokera politikotik doa dudarik gabe eta haren aurkha sendagailu politiko bilhatzea sori da baina are euskaldun gehienak loiten dituen gutiagotartzunezko komplexutik. Horrek eraginik enda burgoitazun oro galtzen dute eta Frantzitarr edo espainitarr kultur-nirvanan beren nortarzun oro honda dadin baizen ez dute irrikatzen. Gutiagotartzun komplexu bat emaiten ez zaieno, euskaldungoak burua ezin jaso, dezake uste dudana.

Euskal-abertzaleak bihotzez maite ditut... Bihotzak ordea, itsutu beharr ez gaitu eta abertzaleok, euskaldun gendeari, batez ere gante-gendeari jo-muga aski gora bat ezin eman deraukotela agiri da. Horrengatik dira, heien seme-alhabetarik hainbat eta hainbat emankhorrago eta sakonago dirudieten doktrinen alde su eta khe iarrten: marxismu, internazionalismu edo bertze-ismu batzu, gure herriari on guti dekharrkeotenak. Askatarzuna gura izaitea guti da. Azkarrtarzuna gura izaitea hobe da. *Zazpiak-Bat* parolak herrialde ttipi baten zedarrietan barnen koka ez diteken arima handia ezin sukharrr dezake eta «Arbol Malato» delakoaren ideala, irenduen ideal bat da ene aburuz. Zuzenaz dagokunaren eskatzeak ez du valio: zerbait izaitekotan, dagokuna, baino gehiago eskatu beharr dugu, legezkoak baino argumendu hoberenak ditugula, erran nahi dut, indarreko argumenduak.

Euskaldunei premia dituten endarekiko gehiagotartzun komplexu eta indarrezko ideal hoiem emaiteko biderik egokienetarik bat, gudu-zalduntza berri baten kreatzea lizatekela uste dut. Bidenabarr euskaldunon odolgarbitartzunaren begiratzeko ardura luke zalduntza horrek: horrtarakotz blasoin eta bertze emblema jeraldikoen harrtzara erabiltea on genuke behar bada. Asmo horrek irakurrrleak zaletzen ba ditu, zaldun berri hoik nola hautets litezken bertze artikulua batean azalduko dut.

## Hiztegia

elkarren beth: elakarren pareko izan

iharrosi: inarrosi, astindu

ihazarrkhunde: jazarpen, pertsekuzio

igurikipen: itxaropen

enda-erhaiteka: enda erahilketa

enda: arraza

oindikatuak: oineratuak

lokera: jokabidea

landerreri: atzerritarrrak dakarren gaixotasuna

sehi: zerbitzari, morroi

nabaski: naski, noski

bethe izan: berdin izan, pareko  
lekhore: kanpoko  
hunki-ezin: uki ezin  
ahalketu: lotsatu  
mazmarro: armarri  
jori: ugari, oparo  
aitzi: kontra, aurka  
got: godo  
iskillu: arma  
morga: ponpa, handikeria  
ahalkeizun: desohore, laido  
agerreratu: agerrerazi  
irazaile: kreatzaile  
gizeli: leinu, herri  
galurhen: galzorian  
her-bertzeatzea: erbesteratzea  
sori izan: zilegi izan  
loiten: joiten, jotzen  
gante-gendea: eskularrudun jendea  
irendu: zikiratu

## EUSKALDUNGOAREN ETSIAK

Gure herria maite ukhan arren halaz ere maitarzun horrek itsutu ez ba gaitu, guhaur izan garela maiz lehen etsaiak aithortu beharrko dugu. Bertze gende individualistak oro bezala —halanola Keltak— alde batetik autonomian bizi nahi ukhan dugu bethi, eta bertzetik, autonomia hori segurta lezaketan organizazione sozialik ez dugu behin ere onhartu nahi ukhan. Mark Legaz-ek dioenez, anarkhistak gara... Nire ustez, haatik, atzerritarrek dute anarkhismu galgarri hunen hazia gure baithan erein, Euskalherri elkharrtu eta indartsu baten bildur zirelaktz.

Eze, nahiz oraiko Euskalherritar bakhetsuak ahanzi duten, dirudinez, bi aldiz gure arbasoak beren lpharr eta Hegoialdeko hauzoen bildurra izan ziran: lehen aldikotz, Pyreneuz haraindiko aldiriak Garonna ibairano —eta haratago ere— errhausti, soildu edo bereganatu zituztanean. Nafarroko menditarrek; bigarrenetoz, Hispaniaren *reconquista* zela zio, Nafarrtar Statua eralki zutenean Afrikatarren aurrkha... bai era hauzo khristauen aurkha ere. Hauk dira gure historia modernoko egintza nagosiak; haiengatik batez ere, zuzenbide dugu Euskaldun izenaz burgoi izaitera, enda sentho eta azkar bat izan garela baiterakhusate; enda sentho azkarr ororen antzora hauzo ahulagoren bizkarretik hedatzera eta aberastera ekharriak ginelarik. Egun, aldiz, erran-delako abertzale zenbaitek, Euskaldun zaharrak izan diren zaldun aidor, guduzaleen spiritu aristokratikoa erdeinatuz, haren lekhuaren beren gisako Euskaldun berri, bakhezale, hauzo on eta puska-onen spiritu demokratikoa «*a la française*» eredutzat iarthen deraukute. Nik ez dut erranen spiritu berri hori gure dekadentzaren kausa izan danik, bainan bai dekadentzaren ondorio eta agerkhun dugula. Frantzitarren ariora demokraziaren amets urdinekin lokhartzen den herriak zahartzen eta akhitzen ari dela emaiten du ikhusterat.

¿Nondik ethorri zaiku dekadentza? Gure ahalmen politikoaren bildurr zegozen hauzoek, hots, Frantziako Rege Guztiz Khristauak eta Espainiako Rege Katholikoak, oharrtuki eragin zeraukutela ezagun da. Deithura huietan, hain zuzen ere euskaldungoaren etsai handienak nabari zaizkigu: Europako Sarthaldeko bi statu latin-berriok eta Romako Eliza. Hoiiek, elkharrekin lankhideturik, gure endaren bereizgarri guztien erauzteari thaigabe ekhin deraukoten, nahiz alhorrr politikoan nahiz sinhespenen alhorrean. Eta, gerorren ergelkeria lagun, ekhite hori han osokiro burutu dute non, azkenean, beren sehirik leialenak egin baitituzte Euskaldunetaz: batzuek Espainitarr hoberenak izan nahi ukhan dugu; berzeek, Frantzitarr hoberenak; eta guztiak, Eliza Amaren semerik zintzoenak, Arana Goiri'tarr Sabinekin politikan eragin-reakzionari eskerr (nahiz edadura aski ez duen ukhan, ene aburuz), Hegoialdeko Euskaldunak hain Espainitarr jathorrek ez direla ohartzen hasiak ba dira ere oraino burhau bat dirudi Zuberotarr edo Benafarrtar edo Laphurtarr baten Frantziaren etsaitzat aithortzen duenean bere burua; bai eta burhau bat ere ikharagarrikoa non-nahiko

Euskaldun bat Katholizismuaren aurka agertzen denean. Ni oroz lehen Euskaldun izaiki, heien etsai naizela aldarrikatuko dut ausarki, pseudo-euskaltzaleak oro eta %50-eko abertzale guztiak nardarazi behar ba ditut ere.

Hasteandanik, euskaldungoaren gorputzkintza izan den Nafarrrar Statuaren kontra iokatu dute Aita Sainduak Elizaren urgaitzez, Rege Katholikoak Bizkaitarrak eta Giputzak seduzitu zituzten euskal-statuaren ganik alde egitera. Bi eskualde hoi iokaeran gure geroztikako bethiko makhurra iadanik agiri zaiku: lekhoretik ethorritako lege, sinhespen edo sinheskeriei behari emaita eta gurez-gure direnen arbuatzea. Horrtan ez soilik Bizkaitarra eta Giputzak, baina bai Euskaldun guztiok hobendun izan gara goiz ala berantago. Espainiaren politika «herri eta sinhesteosotarzunaren alde» zorianean bururatu zitzairen iaungoikoak benedikatzan zuelakotz, agian Nafarroako azken monarkhak protestante zirelakoan eskomulgatu izan zirenean, eta heien lege-berriak hauzo khatolikoan menpeko eman zituenean Romatarr eskuzabalak. Ai beren aitzinako paganizmuaren begiratzera herabe izan ziran Euskaldunok, behintzat protestant bihurtu izan ba lira Euskalherria salbatuko zan ezbaierik gabe, herri bat denetik. Albreteko Joanna eta Leizarraga hotsemaile genituela, berphizkunde bati buruz ginhoazen bai herrikeretan, bai inteligentzan: gure gogo-hertstura dela kausa, hala ez da izan... Gurt gakizkien, halaz ere, Reforman alderdi harritu zuten Zuberotarr eta Nafarrrar Aitorseme zintzo heiei: hobe baita gudukatu eta galtzea batere ez gudukatzea baino.

Alta politikaren alhorrean baino are kaltegarriago izan zaiku Elizaren eragina espirituaren alhorrean, geroko edozein berphizkunderen ithurri biziak urdiru zerauzkigulakotz. Euskaldun zaharren gogo basa, borthitz eta handia ahaldu, ahuldu, hobeki erran irindu zuen haren doktrinak; otso, ginelarik, bildots egin gaitu... Gu paganu ginan oraino gure hauzo guztiek espaldian onharrturik zutelarik Goieritar batzuek ekharri «Berri Ona»; eta gero ere, paganu egon gara bethi gure izaiki-zolan, egiazko Europatarrak oro diren bezala. Orienteko doktrina bat baita Khristautaruna, hangotarrentzat egina; eta Europa hunetan erro hartzekotan, hemengotarren *Weltanschauung* bereiziari egokitu behar zaio, nahi ala ez. Europatarrak zuzentza nahi du, bai eta nuantzak; ezinharr dezake... evangeli-elhetzat Goiz-erritarren enthelegu sorgorak kilikatzen dituzten dogma zehatz eta lazgarriak. Horrengatik, Elizaren hastapenetik hunat «heretikorik» asko aurrkhitu dituzte bethi beren aurrkha iazarriak, Romako iaun berriek. Lehenik Keltek, monakhismuaren bidez, eta gero Sede Saindua osoki italianizatu zenean, Germanek, Luther-ek eragin Reformaz iosuren irakaspenari txertatu zertaukotan Europatarrak hain nezesari dugun paganismuaren guna. Gure harrian, ondikotz «eraberritze» hori ez zan egin ahal izan... Aitzitik, are lehen baino arrotzago genduen Eliza baten menpean makhurrurik egon ginan, italianizant izaiteko orde orai hispanizant, h. d. Afrikatarr-Kamita, bihurtu baitzan Kontra reforma zala bide. Kontrareforma horren «gizon-handia» Euskaldun bat izan dela, horrtan gure zori guztiaren synbol bat dakhusat: Euskaldunak, beraren nazionalitatea halako atsegin masochista batekin gutietsiz eta aldebat atsiz (sic), bethi eta bethi indarr eta ahaleginak oro, bere enda-energeiak oro arrotz eta atzeritarren zerbitzuan eman ditu. Egun ere, gure neskak Frantziatar edo Espainiatarr bourgeois endekatuen baithan neskame sartzen diren bezelaxe; gure muthilek Frantziaren harmadetan, Alemaniaren kontra gudukatuz, gudari hoberenen izena irabazten duten bezelaxe —Frantzia Euskaldungoaren etsaia eta Alemania, gurea ez baina gure etsaiaren etsaia izalki— halaber Euskalherriko adimen bizkorak, euskararen eta euskal-kulturaren alde lan egiteko orde aphezgaitegian sartzen eta proselytismuaren aritzera ioaiten dira lurralde hurrunetarat, *ad maiorem gloriam Romae*, baina gure herriarentzat onurarik gabe. Hainbat eta hainbat gogo, —eta soin— indar Euskaldun horrela alpherrik galtzen ikustea, nigar-egingarri da.

Nire elhe hauk entzun-eta, hypokritak edo ergelak iauntziak urra eta beharriak tapa ariko direla badakit, blasphematu dudala hotsez. Engoitik ahatik, Euskaldunik anhitz —gizaldi gazteetan batik bat— nik hemen garbian izkiriatu ditudanak ahapetik erraiten hasiak dira. Ai ginitza bildur eta ahalge zozoak bethikotz utz gure ona eta onura non dagozen ikhus dezaguntzat, behinik bein. Agian eguna ethorriko zaiku, uste baino lasterrago, gure gizeli iainkoen aldareak haizara (sic) lorez estaliko baitira gure oihanetan, edo gure bihotzetan; eta Zazpi eskualdetako semealhabak, latinkeriak arbuaturik eta euskal-endaren genioari itzulirik, harzara herri azkarr, sentho eta handi nahi bat formatuko baitute, geroaldi zabal bati buruz ioaile.

## Hiztegia

errhausti: erraustu  
burgoi: harro  
enda: arraza  
aidor: burgoi, harro  
iarten: jartzen  
ariora: arabera  
thaigabe: etengabe  
sehi: zerbitzari  
burhau: birao  
ausarki: ugari  
nardarazi: higuin egin, gogait egin  
urgaizte: laguntza  
lekhore: kanpo  
beharri: belarri  
hobendun: errudun  
begiratu: zaindu  
herabe izan: lotsak edo eraginda ezertarako adorerik ez izatea  
hotsemaile: eragile, gidari  
urdindu: lizundu  
irendu: zikiratu  
Goierritar: sortaldetar, ekialdetar  
nuantzak: itzala  
enthelegu: adimen  
sorgortu: sentiberatasuna galdu  
kelta: zelta  
guna: gunea  
ondikotz: zoritzarrez  
atsiz: kirastuz  
elhe: hitz  
engoitik: honezkero  
ahalge: lotsa  
gizeli: leinu, herri  
haizara: egurastutako  
harzara: berriro  
ioaile: badoan



## 7. BIBLIOGRAFIA

- AGINAGA: "Behar ginuen bakarra!", *in Egan*, 1/3 (1961).
- AIALA, J. L. (J. L. Larrea): "Mirande: igarle desterratua", *in Zeruko Argia*, 865 (1980), 29-30.
- ALDEKOA, Iñaki: "Nietzscheren eragina Aresti eta Miranderengan", *in Galeuzca* (1992), 9-18.
- ANAITASUNA, 353, 1977, Miranderi eskainitako zenbaki berezia.
- ARESTI, Gabriel: "Jon Mirande: *Haur Besoetakoa*", *in Anaitasuna*, 195 (1970), 10.
- ARRUTI, Dionixio: "Erri baten misterioa", *in Jakin*, 15 (1961), 33-39.
- ATXAGA, Bernardo: "Miranderen senditzeko manera", *in Mirande, Jon: Haur Besoetakoa*, Pamiela, Iruña, 1987, 123-132.
- ARZE, Joxe Antonio: "Jon Mirande hil da", *in Zeruko Argia*, 519 (1973), 7.
- AZURMENDI, Joxe: *Schopenhauer, Nietzsche eta Spengler Miranderen pentsamenduan*, Susa, Lasarte-Oria, 1989.
- AZURMENDI, Joxe: *Mirande eta kristautasuna*, Ediciones de la Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa, Donostia, 1978.
- AZURMENDI, Joxe: "Miranderen kritika Iraultza Frantsesari", *in Jakin*, 52 (1989), 69-87 eta 53 (1989), 81-114.
- BAROJA, Pio: *Altzateko Jaun-en kontu zaharra*, La Primitiva Casa Baroja, 1986. Euskaratzailea: Patxi Apalategi.
- BIDEGAIN, Eneko: *Lehen Mundu Gerra eta Euskal Herria*, Elkar, Baiona, 2014.
- EGAÑA, Iñaki: *Euskal Herriaren historia laburra*, Txertoa, Donostia, 2014.
- ETXAIDE, Yon: "Jon Mirande hil zaigu", *in Zeruko Argia*, 519 (1973) 7.
- GOULVENN, Pennaod: "De viris illustribus: Mirande´tar Jon", *in Mirande, Jon: Idazlan Hautatuak*, Gero, Bilbo, 1976, 271-281.
- Hegats50: *Jon Mirande: gogoeta itxi gabea*, Donostia, 2013.
- IBIÑAGABEITIA, Andima: "Olerkiarenean", *in Gernika*, 23 (1953), 98-102.
- ITURRIA, Andoni: "Jose Maria Salaberria. Gizona, idazlea, euskal-izatea", *in Jakin*, 30 (1968), 24-36.

- IZAGIRRE, Koldo: "Sarrera", in *Jon Mirande: XX. mendeko poesia kalerak*, 2001, 1.
- JAKA, Aiora: "Miranderen itzulpen argitaragabe batzuk", in "Itzulpengintzari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan", Iker 28, EHU-Senez 39, 247-299.
- KINTANA, Xabier: "Jon Mirande hil da", in *Anaitasuna*, 249 (1973), 6.
- KORTAZAR, Jon: *Labirintoaren oroimena*, Erein, Donostia, 1994.
- LARREA, Jose Maria: *Miranderen lan kritikoak*, Pamiela, Iruña, 1985.
- LARRESORO: "Jon Mirande Aiphasorhoko" in *Zeruko Argia*, 521 (1973), 3.
- LETE, Xabier: "Vinculación y desarraigo en la obra literaria de Jon Mirande", in *Garaia*, (1976), 33-34.
- MIRANDE, Jon: *24 poema faksimilean*, Klasikoen Gordailua.
- MIRANDE, Jon: *Haur Besoetakoa*, Lur, Donostia, 1983.
- MIRANDE, Jon: *Poemak 1950-1966*, Erein, Donostia, 1984.
- MIRANDE, Jon: *Ilhun-argiak/Claroscuros*, EHU, Zarautz, 1992, (Felix Maraña eta Felipe Juaristiren edizioa).
- MIRANDE, Jon: *Obra osoa*, Hiria, Alegia, 1999.
- NIETZSCHE, Friedrich: *Über Wahrheit und Lüge im aussermoralischen Sinne*, aus dem Nachlass 1. 1873. (saretik hartua).
- NIETZSCHE, Friedrich: *Honela mintzatu zen Zaratustra*, Klasikoak bilduma, 1992. Euskaratzailea: Xabier Mendiguren Bereziartu.
- NIETZSCHE, Friedrich: *Zur Genealogie der Moral. Eine Streitschrift*, C. G. Neuman, Leipzig, 1887. Azken errebisioa, 2018. (saretik hartua)
- NIETZSCHE, Friedrich: *Jenseits von Gut und Böse*, Projekt Gutenberg Literary Archive Foundation PMB 113, Oxford, 2004. (saretik hartua).
- OTAEGI, Lurdes: "Jon Mirande (1925-1972)", in *Bidegileak*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Donostia, 2000.
- PEILLEN, Txomin: "Jon Mirande eta Aiphasorhokoren bizia", in *Mirande, Jon: Idazlan Hautatuak*, Gero, Bilbo (1981), 11-29.
- PEILLEN, Txomin: "Benetakoa eta asmatuzkoa Miranderen idazlanetan", in *Egan* 1-2 (1987), 5-21.
- PEILLEN, Txomin: "Jon Miranderen biografiaz", in *Jon Mirande, olerkaria*, Euskaltzainak

bilduma, 18 (2012), 17-30.

- RABADE OBRADO, Ana Isabel: "Sobre el irracionalismo: Schopenhauer y Unamuno", in *Anales del Seminario de Metafísica*, XXI (1986), 41-57.
- SAN MARTIN, Juan: "Jon Mirande joan zaigu", in *Anaitasuna*, 250 (1973), 3.
- SARRIONANDIA, Joseba: "Haur besoetakoa eta beste ninfula batzuk", in *Maiatz*, 4 (1983), 3-8.
- SARRIONANDIA, Joseba: "Jon Mirande poeta intelektuala" in *Sarrionandia, Joseba: Marginalia*, Elkar, Donostia 1988.
- SATRUSTEGI, Jose Maria: "Mirande eta Mitxelenaren arteko posta harremanak", in *Fontes Linguae Vasconum*, 71 (1996), 141-159.
- SCHOPENHAUER, Arthur: *Mundua nahimen eta errepresentazio gisa*, Klasikoak bilduma, 1999. Euskaratzailea: Xabier Mendiguren Bereziartu.
- UNAMUNO, Miguel: *Biziaren sentimendu tragikoaz*, Klasikoak bilduma, 1994. Euskaratzailea: Xabier Kintana Urkiaga.
- URIBE, Kirmen: "Haur Besoetakoa-ren imaginarioa. Lehen hurbilpen bat", in *Uztaro*, 24 (1998), 77-78.
- URKIZU, Patri: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, Zarautz, Susa, 1995.

## 8. ERANSKINA: IKASLEENTZAKO MATERIALA

### Nor izan zen Jon Mirande?

Jon Mirande idazlea 1925ean sortu zen Parisen. Gurasoak zuberotarrak izan arren, ez zioten euskararik erakutsi umetan. Gaztetan, ikastetxeko lagun bretoi baten bidez jabetu zen bere egoeraz, hau da, gurasoek, euskaldunak izanagatik, ez ziotela hizkuntza erakutsi. Areago, ohartu zen herri zapaldu batekoa zela. Lehenbizi bretoiera ikasi zuen, eta, berehala, euskara. Handik aurrera, Europako beste hizkuntza gutxitu batzuk ikasteari ekin zion (gaelera, irlandera, okzitaniera...) eta beste hainbat hizkuntza ere bai: ingelesa, alemana, espainola, latina eta abar.

Dena den, euskaraz idaztea eta beste hizkuntza batzuetako testuak euskaratzea erabaki zuen. Izan ere, euskal testuetan gabekia handia ikusten zuen, eta pentsatzen zuen berebiziko garrantzia zuela euskaldunentzat euskaraz mota guztietako testuak izatea. Hortaz, Mirandek poesia idatzi zuen, narrazioak ere bai, eleberri labur bat eta hainbat artikulu. Literatura argitaratzeko arazoak izan zituen ia bizitza osoan zehar —erabiltzen zituen gaiak ez ziren garai hartako euskal literaturan ohikoak, eta eskandalagarritzat jo izan zituzten— eta, horregatik, garai hartako aldizkarietan argitaratu zituen idatzi guztiak.

Artikuluen artean, badira artikulu kritikoak (politikoak, esan daiteke) eta berari interesatzen zitzaizkion gai buruzkoak (hizkuntza gutxituei, parapsikologiari eta sorginei buruzkoak). Gainera, hiru urtean zehar Txomin Peillenekin batera *Igela* aldizkaria martxan jarri zuen, eta hor ere argitaratu zituen bere testu eta itzulpenak. Aldizkari horren helburua, euskaraz zernahi argitaratu ahal izatea zen.

### 8. 1. BATXILERGOA: 1. maila.

#### **8. gaia: *Gizakiari buruzko hausnarketa filosofikoa eta existentziaren zentzua.***

Gizakiaren bizitzari buruzko hausnarketan, hiru gai aztertzen dira nagusiki: gizakia bera zer den, askatasuna nola ulertzen den eta gizarteak zer eginkizun eta garrantzi duen giza bizitzan.

Jon Mirande literatura-idazle gisa ezagutzen dugu, eta egia da ez zuela testu filosofikorik idatzi. Nolanahi ere, Miranderen idatziak aztertuz gero, garbi ikusten da pentsamendu filosofiko bat badagoela hor azpian. Ez da beti koherentea izango, ez da sistematikoa, baina testuak gertutik aztertuta ohartuko gara, hainbat puntutan, ikuspegi sendo bat dagoela. Giza bizitzari eta existentziari dagokienez, hona Jon Miranderen testuak irakurrita argitara daitezkeen puntu nagusiak.

- Gizakia

Miranderen filosofia guztia antropologian oinarrituta dago. Parapsikologia abiapuntu hartuta, gizakia zer den esaten du zuberotarrak. Gizakiaren gaineko jakintza ulertu ondoren azaleratuko dira pentsamenduaren gainontzeko atalak.

Mirandek garbi dauka gizakia arimaz eta gorputzez osatua dagoela. Parapsikologiari buruzko artikuluan hori horrela dela erakusten duten hainbat gertakizun biltzen ditu, eta, haren ustez, ondorioa garbia da: gizakiak arima eta gorputza ditu, hots, gogo eta garuna. Are gehiago, Miranderen esanetan, arima bakoitzarena edo norberarena da: *“Ariman sinesten dut —bere izen arrunta eman behar baitzaio—; erran nahi dut izaki bakoitzean alderdi psikiko bat badagoela; konbentzitu nago, eta materiazale mekanizaleek diotenez bestalde, psukhê hori ez dela ekaiaren gain-fenomena bat abere eta gizakentearentzat, baina aitzitik, fisika-kimika aldaketek oso bestelakoa, bere izate barnatsu eta sakonean...”* (Nere sinestea).

Behin hori esanda, bere buruari galdetzen dio ea arima gorputzarekin jaiotzen ote den eta harekin hiltzen den, edo, aitzitik, gorputza baino lehenagotik baden eta izaten jarraituko ote duen gorputza hil ondoren ere. Horren erantzuna ere garbia da Miranderentzat: arima espirituzkoa bada, hau da, sentikorraz haragokoa —ukigaiak gaindikoa—, ez du zertan gorputza desagertzean desagertu. Horrek, ordea, beste auzi hau ere pizten du: zer da norberaren arimatik gorputza hil ondoren iraungo duena?

Galdera horri erantzuteko Henri Bergsonen egiten duen bereizketa bati jarraitzen dio, bi kontzientzia mota ditugula dioena, alegia. Batetik, burmuinari, hots, munduko bizialdiari lotutako kontzientzia dugu, eta, bestetik, haragoko kontzientzia bat —Jungen arketipoen gisakoa—. Bigarren horrek bizirik segituko du, haren zati litzateke, era berean, Freudek aipatzen duen inkontzientea —berjakintza petikoa, Miranderen hitzetan—.

Kontuan izan behar dugu Mirande espiritualista izan arren, inola ere ez duela Jainko sortzailerengan eta salbatzailearengan sinesten. Jon Miranderen ustez, gizakiaren errurik handiena sortzaile eta sorkarien arteko bikoiztasun hori ezartzea izan da. Beraz, tradizio espiritualistari kontra jartzen zaio puntu horretan erabat.

- Askatasuna

Miranderen pentsamenduan askatasun erabatekoa funtsezkoa da. Askatasun morala ezinbestekoa zaio, eta hori garbi ikusten dugu literaturan zer gai darabiltzan eta nola lantzen dituen aztertzen badugu. Mirandek *Haur Besoetako*a eleberrian behin eta berriz egiten du *besteak ez bezalakoa* izatearen alde, hau da, adierazten du norberak izaera berezkoari begiratuta erabaki behar duela zer egin eta zer izan nahi duen; hori da *hautetsiak* egiten duena, moral propioa sortu.

Miranderen ustez ez da posible moral unibertsalik, denak ezberdinak baikara. Izan ere, norberak sortu behar du bere morala daukan izaeratik abiatuta. *Haur besoetako*aren irakurketa filosofikoak hau erakusten digu: *besteak ez bezalakoa* denak, *hautetsiak*, besteak ez bezalako jarrerak ditu. Eleberrian, gizonak hamaika urteko neskatxa batekin duen maitasun-harremana kontatzen du, eta, ohiko maitasun-harremanekin alderatuz, benetakoagotzat jotzen du Mirandek, arimen elkarketa baita maitasun horren bidez

gauzatzen dena. Joxe Azurmendiren ustez, pedofiliaren tokian, beste edozein ezohiko harreman motaren bat ere hartzen ahal zuen gaitzat (homosexualitatea, adibidez); azken batean, horren helburua norberak bere moralak askatasunez nola sor dezakeen erakustea da. Ikusten denez, askatasuna funtsezkoa eta ezinbestekoa da Miranderen pentsamenduan.

- **Gizartekoitasuna**

Miranderen pentsamendu etikoan agertzen den funtsezko beste elementu bat gizarteaz duen iritzia da. Haren ustez, gizartea kartzela da, gizakiak dituen grina, desio eta gogo guztiak zapuzten baitizkio. Gizarteko bizitzak ezinbesteko du berak ezarritako arauak betetzea eta betearaztea, denak berdin-berdinak izatea, eta horretarako, eskura dituen baliabide guztiak erabiliko ditu: hezkuntza, familia, erlijioa, moralak, legea, epaitegiak eta abar. Horiek guztiak arbuizatzen ditu, bai bere narrazioetan, bai olerkietan eta baita eleberrian ere: ezkontza, bikotea izatea, aurrerapena, hezkuntza arautua, zintzotasuna, otzantasuna, eliza, dirua eta abar.

Esan daiteke Mirandek begi aurrean duen gizartea ez duela gustuko. Horrez gainera, Nietzscheren eraginez, gizakien arteko berdintasun ustezkoa kritikatzeko du, eta pentsatzen du berdintasun horrek gizakia antzutu egiten duela eta ez diola bere izatea garatzen uzten. Beraz, gizartea, eta gizarteko bizitza erabat kaltegarriak zaizkio gizakiari, eta, ahal duen neurrian, horri ihes egin behar dio, eta bere askatasunari eman lehentasuna. Hona zer esan zuen Gabriel Arestik *Haur besoetakoa* argitaratu zuenean: “Libertadeari eskainitako kantua”, “ikaragarritasunean mamitutako edertasun inposiblea”.

## **8. 2. BATXILERGOA. 2. maila.**

### **Nietzsche.**

Jon Mirande literatura-idazlea izan zen nagusiki, baina bere idatzietan agerian jartzeko moduko pentsamendu filosofikoa dago. Miranderen ikuspegia irrazionalismoaren baitakoa da, eta, bereziki, Nietzscheren eragina izan zuen. Nietzschekiko miresmena artikuluetan eta gutun pertsonaletan irakurtzen diogu eta Nietzscheren hainbat testu euskaratu egin zituen (*Honela mintzatu zen Zarathustra*, adibidez). Dena den, Schonpenhauerren eta Sepenglerren itzala zuberotarrarengan aintzakotzat hartzeko modukoa da.

- **Antropologia**

Miranderen filosofia antropologia bat da; parapsikologian oinarrituta esaten digu zuberotarrak zer den gizakia. Hori ulertu ondoren ikusiko dugu gizakiak zer eta nola ezagutu dezakeen, zer den errealitatea eta nola jokatu behar duen.

Mirandek garbi dauka gizakia arimaz eta gorputzez osatua dagoela. Parapsikologiari buruzko artikuluan hori horrela dela erakusten duten hainbat gertakizun biltzen ditu, eta, haren ustez, ondorioa argia da: gizakiak, izaki guztiek bezala, arima eta gorputza ditu, hots,

gogoia eta garuna. Are gehiago, Miranderen ustez, arima bakoitzarena edo norberarena da: *“Ariman sinesten dut —bere izen arrunta eman behar baitzaio—; erran nahi dut izaki bakoitzean alderdi psikiko bat badagoela; konbentzitu nago, eta materiazale mekanizaileek diotenez bestalde, psukhê hori ez dela ekaiaren gain-fenomeno bat abere eta gizakentearentzat, baina aitzitik, fisika-kimika aldaketez oso bestelakoa, bere izate barnatsu eta sakonean...”* (Nere sinestea). Arimaren ikuspegi horretan Nietzscherengandik eta Schopenhauerengandik urrundu egiten da. Izan ere, filosofo horien ustez ez dago espirituzkoa den arimarik, dena bat da.

Parapsikologiari buruzko artikuluan, Mirandek bere buruari galdetzen dio ea arima gorputzarekin jaiotzen ote den eta harekin hiltzen den, edo, aitzitik, gorputza baino lehenagotik baden eta izaten jarraituko ote duen gorputza hil ondoren ere. Espiritualisten ustez, gorputza hil eta gero arimak kontzientzia osoz segitzen du bizitzen; materialisten ustez, ordea, gorputzarekin batera sortu eta desagertzen da arima deitzen dugun izate hori. Mirandek ez du bat egingo ez batzuekin ez eta besteekin ere. Haren ustez, arimak ez du zertan gorputza desagertzean desagertu, espirituzkoa baita, hau da, sentikorraz haragokoa (ukigaiaz gaindikoa). Nolanahi ere, Miranderi hil ondoren arimak nortasun osoarekin bizitzen segitzea ere ez zaio zentzuzkoa iruditzen. Beraz, norbera den arima horretatik zerk segitzen duen bizirik esateko orduan, Henri Bergsonen egiten duen bereizketa bati jarraitzen dio, alegia, bi kontzientzia mota ditugula dioena: batetik, burmuinari, hots, munduko bizitzari lotutakoa, eta, bestetik, haragoko kontzientzia bat (Jungen arketipoen gisakoa). Bigarren hori da bizirik segitzen duena, eta kontzientzia horren zati da, hain zuzen, Freudek aipatzen duen inkontzientea (berjakintza petikoa).

Gizakia gorputzez eta arimaz osatua egoteak beste auzi garrantzitsu bat ere jartzen du agerian. Zer harreman dute bi horiek munduko bizialdian zehar? Miranderen kasuan, galdera horri erantzuterakoan, bi ikuspegi kontrajarri agertzen dira. Parapsikologiari buruzko artikuluan, *“Nil igitur mors est”* olerkian eta orokorrean hasierako testuetan, garbi azaltzen du gorputza (adimena eta oroimena barne) benetakoa ezagutzarako oztopo dela, eta, hortaz, ametsetan, mozkorraldian edo gorputza sorgortzean lortzen duela gizakiak bere benetako egoeran egotea. *“Nere sinestea”* artikuluan, ordea, gorputza ez dela mespretxatu behar esaten du, bera baita arimaren kontzientzia, arimaren forma. Horrez gainera, garbi esaten du munduko bizialdirako ezinbestekoa dela gorputza.

Bukatzeko, kontuan izan behar dugu Mirande espiritualista dela, baina inola ere ez duela Jainko sortzailearengan eta salbatzailearengan sinesten. Haren ustez, gizakiaren errurik handiena sortzaile eta sorkarien arteko bikoiztasua ezartzea izan da. Beraz, tradizio espiritualistari kontrajartzen zaio erabat Jainkoaren gain.

- Morala

Jon Mirandek jokabideari buruz hitz egiten du, eta ohikoak ez diren portaerak hobesten ditu, baina ez du filosofia praktikoa erabat antolaturik ematen. Moralari buruzko pentsamendua narratioetan, eleberrian eta hainbat artikulutan agertzen du. Horiei begiratuta ohartzen gara haren ikuspegiak badituela bi ezaugarri nagusi: batetik, morala norberarena da, hau da, ez da moral unibertsalik posible; bestetik, gizarte kartzela da

gizakiarentzat, ez baitio uzten bere barneko irrikari eta grinari jarraitzen, izan ere, gizaki guztiak berdintzen ditu. Ikus dezagun gizakiaz esaten duenaren eta giza jokabiderako proposatzen duenaren artean zer harreman dagoen.

*Haur besoetako*a eleberrian eta “Nil igitur mors est” olerkiaren azalpenean, zuberotarrak aurkezten digun gizakia bere benetako egoeran dago zentzumenezko mundu honetatik urruntzen eta bere barnerako bidean murgiltzen den heinean. Egoera horretan ikusten du zer den benetako errealitatea, eta ohartzen da itxurazko mundu batean bizi dela. Ondorioz, jokabide egokia meditazioan edo barnerako begiak irekitzean dago. Gizakiak mundu aldakor hau ahaztu egin behar du eta bere baitan barneratu, egia ikusteko. Ikuspegi horretan bat egiten du Schopenhauerren eta hasierako Nietzscheren filosofiarekin, hots, benetako errealitatea (nahimena edo botere-nahimena) ezagutzeko, aniztasuna den mundua alde batera utzi behar dugula esatearekin.

Artikulu kritikoetan, berriz, indarra, borroka eta bortxa aldarrikatzen ditu. Jon Miranderen ustez, naturako legeak erakusten du —eta gizakia izaki naturala da— borroka dela araua, indartsuenak irabazten duela eta bere legea inposatu. Kristautasunaren ondorioz ezarri den moralak, gizarteko moralak, ahulen moralak da, nortasun eskasa dutenena, gizaki guztiak berdindu nahi dituenarena. Kristautasunak gizakia *saldoko* bihurtzen duten balioak ezartzen ditu. *Hautetsia*, berriz, gai da bere moralak sortzeko daukan nortasunetik abiatuta. *Hautetsia* *saldotik* aparte ibiltzen da, ez baititu gizarteko arau ahulgarriak jarraitzen. Hori da, Nietzscheren eta Miranderen iritziz, *gizarteak*, *saldok* barkatzen ez duen hutsegite nagusia.

Bi moralen bereizketa horretan garbi ikusten da Nietzscheren jaunena eta esklaboena moralaren eragina. Nietzschek bezala, indarra eta borroka hobesten ditu Mirandek: indartsuak, jaunak, *hautetsiak* bere balioak sortuko ditu eta ez ditu zalantzan jarriko. Esklaboak, *saldokoak*, gizaki guztiak berdindu nahi ditu, bakezalea da, laguntzailea, hitz batean, ahula da, erresumindua dago, eta, beraz, gizarteko arauak inposatzearen aldekoa. Jarrera berdinak horrek ekarri du mendebaldearen gainbehera.

Askatasuna funtsezkoa da Jon Miranderen pentsamenduan, eta horri heltzen dio bai moralaz ari denean, baita politikaz ari denean ere. Gizarteak gizakia antzutu egiten du, bere benetako izaerari segitzea eragozten dio, ardi bihurtzen du, esaneko, ezgauza. Gizartearekiko bateraezintasun hori da, Azurmendiren ustez, *Haur besoetako*a eleberriaren gai filosofiko nagusia. *Hautetsiak* bere nortasunaren eta izaeraren arabera bizi nahi du, askatasunean, eta erakutsi nahi du ongia norberaren arabera dela. Mirandek lan horrekin esan nahi digu bizitzeko modu ugari daudela.

Kristautasunak, Nietzschek erakutsi zuenez, Europa osoaren gainbehera eragin duen ideologia ahulgarria ezarri du, eta begi-bistakoa zaio zuberotarrari zer ondorio izan dituen Euskal Herrian demokraziak. Hortaz, biziki kritikatu du demokrazia ere, moral kristauaren balioak defendatzen baititu.

Garbi geratzen da Mirandek immoralista dela, moral unibertsalaren aurka jotzen baitu bete-betean. Hori erakusteko, *Haur besoetako*an gizonaren eta gizartearen arteko gatazka konponezin hori baliatzen du. Finean —eta horretan ere Nietzschezalea dugu—, bi moralak daude: *gizartearena* eta *hautetsiarena*.



- Epistemologia eta hizkuntzaren filosofia

Miranderen ezagutzaren teoriari begiratzan diogunean ikusten dugu antzekotasun handia duela Schopenhauerren eta hasierako Nietzscheren epistemologiarekin. Izan ere, Schopenhauerrek hasitako irrazionalismoaren bideari jarraitzen dionez, benetako ezagutzarako bide, intuizio naturala, mitoak, intuizio poetikoa eta parapsikologia izango ditu. Prozedura horiei arrazionalismo estua kontrajartzen die, eta ukatu egiten du ustez ezagutzen den mundu aldakorraren eta anitzaren benetakotasuna: adimen-ezagutzari esker daukagun mundua itxura hutsa da.

“Nil igitur mors est` poemaren giltza”n, labur bada ere, azaltzen du poetak nola lortzen duen egia ezagutzea. Poeta lo antzeko egoeran jartzen da, oroimena eta adimena lokartuarazten ditu, eta ikusten du ordu arte jakintsuek munduari buruz zioten guztia faltsua zela. Hortaz, poetak alde batera uzten du *nonbaita* eta *noizbaita* dituen mundu itxurazko eta gezurrezko hau, eta bere baitan ikusten du bera ere baden Arima orokorra: “*Eta aldi aldeetarik lekorean zorabioan dagoela, badantzu bere baitan hizlari —ez bere gaineko edo kanpoko Jaun Egile bat, baizik bera ere den Arima orokorra*”. Orduan olerkariak gizakien eritasun nagusia den heriotzarekiko beldurra galdu egiten du, itxurazkoaren heriotza bera ere itxurazkoa baita.

Hainbat artikulutan (psikologiaren gaindikoa eta zelden folkloreaki buruzkoa), behin eta berriz aipatzen du benetako ezagutzarako bidea ez direla arrazoiak eta zientziak; aitzitik, barnera begiratu behar da, eta poliki-poliki mundu sentikorra ahaztu. Horretarako, gorputza sorgortzea eta trantze gisako egoera batean (mozkorraldi, amets eta abar) jartzea da bidea: mundu honetara lotzen gaituzten adimena eta oroimena lokartzen dira, eta barne begiekin egia ezagutuko dugu.

“Nil igitur mors est` poemaren giltza”n hizkuntzari kritika zorrotza egiten dio. Izan ere, Nietzscheri jarraituz, esaten du hitzak ezagutzearekin errealitatea ezagutu uste dugula, baina ezerk ez duela ziurtatzen hitz horien atzean errealitate badenik: “*Itzaltzen dire buruan zerabilzkin pentsa hitzak: gauzak ulertu nahiz ematen dizkiegun izenak. Uste baitugu, izena jakinez gero, gauzaren izana ere ezagutzen dugula... Baina egiatan, gure ezagutza oro hitz-keta bat baizik ez da eta ezerekin ez digu ustea zilegi egiten, hitz horien atzean izan ere zerbait badela*”. Hitz horiek Nietzscheren *Egiaz eta gezurrez zentzu ez-moralean* lana ekartzen dute gogora eta garbi erakusten dute egile alemaniarraren eragina jaso zuela Jon Mirandek.

- Ontologia

Errealitateaz edo benetan baden izateaz aritzeko orduan, ezinbestekoa da aipatzea Mirandek ez duela Jainko sortzailerengan sinesten. Areago, “Otso` olerkiaren giltza”n garbi azaltzen du gizakiaren errurik handiena dela izakiak bitan sailkatzea: alde batetik, sortzailea, eta, bestetik, sorkaria: “*Poemaren atzean uste metafisiko haur ba da: izaiki bat dela, oso bat dela Gaia eta gogoa, irazaidia eta irazilea, ez-iainkoak eta iainkoak zer beraren modalitate batzu baizik ez dira beraz. Zer hori da, funtsean, egiazko izaiki bakarra: batarzuna da. Batarzuna bikoiztu du gizonaren adimenak*”. Miranderen ustez, erru handi hori ordaindu

beharra du gizakiak, eta horregatik, izaki guztiek gizakiaren sakrifizioa eskatzen dute. Izan ere, gainontzeko izakiak ez dira gizakia bezainbat urrundu Lehen Batasun horretatik. Beraz, gizakia hil ondoren berriz izango da Oro dena, hots, Batasuna.

Benetan badena Batasuna da; Mirandek Arima orokorra edo Oro dena ere deitzen dio. Nola ateratzen da Batasun horretatik askotariko mundu sentikorra? Hori azaltzeko Gustave Geleyren teoriara jotzen du, eta honela azaltzen du: hasieran Gogo hutsa dago, batere kontzientziarik eta mugarik gabea. Gogo huts horrek kontzientzia hartzen duen eta mugatzen den neurrian, munduan den materia (gaia) sortzen da. Azken finean, gaia edo materia Gogoaren kontzientzia hartzea da. Funtsean, izaki bakoitza Lehen Gogo hutsaren alde bat da, mugatua eta kontzientzia hartuta: dena bat da, gaia eta gogoia izate bat bera dira.

Era berean, izaki guztiak bizialditik bizialdira gero eta gehiago mugatzen dira, gero eta kontzientzia gehiago hartzen dute. Azkenik, bizialdien itzulia bukatzean, izaki bakoitza Lehen Batasun horretara itzuliko da, bizialdietan zehar eskuratu duen nortasuna galdu gabe; orduan, Mirandek dioenez, *“bera eta oro da, batera”*.

“Orziren ttunttuna” olerkian, munduaren sorrera kontatzen du Mirandek modu poetikoan, eta aurreko azalpenekin lotuta, garbi geratzen da munduaren izateak ez duela ez sortzailerik, eta ez helbururik ere. *Orziren ttunttunaren* uhinetatik sortzen da den guztia, ez asmo, ez norabide, ez helburu, eta behin izan dena behin eta berriro izango da, izan den deus ere ez baita desagertzen. Horrek, nolabait, Nietzscheren betiereko itzulia gogorarazten du. Nolanahi ere, Mirandek ez du garbi uzten zeren alde egiten duen: edo orainaldia besterik ez dago eta dena aldi berean ari da gertatzen, edo dena etengabe errepikatzen da behin eta berriro. Bi aukerak aipatzen ditu eta ez dago garbi denborari buruzko zer ikuspegi duen.

Bukatzeko, aipa dezagun Jainko sortzailerik gabeko mundua irudikatzeak zer ondorio dituen pentsamenduaren alorrean. Jainkorik ez izateak erlijioari eragiten diola begi-bistatkoada, baina esan behar da pentsamendurako, kulturarako, mundu-ikuskerarako, historia ulertzeko eta moralerako ere berebiziko garrantzia duela ikuspegi horrek. Joxe Azurmendiren hitzetan Jon Mirandek mundua Jainkorik gabe pentsatzeko modu bat jartzen digu eskura, haren filosofia ideia horren inguruan antolatua baitago. Ez badago Jainkorik, historiak ez du norabiderik, ez dago absolutuki esaterik zer dagoen ongi eta zer gaizki, aurrerapenaren ideia ilusio hutsa da, eta, hortaz, gizakiaren gainerik ez dago ez erreferentziarik ez gidaririk. Gizakia bakarrik dago beste izakiekin batera eta bititza bere modura bizi besterik ez du, laguntzarik eta gidaritzarik gabe.